

# ZAR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ** \* 100n. Zenbakia **Dagonilla/Irailla**  
1986

EUN ZENBAKI


150 IDAZLE

EUN ALKAR-IZKETA

1.600 IDAZ-LAN

EUN LAN-ALDI

DANA BIZKAI'KO  
EUSKEREAREN  
ALDE



GOIURI'KO AMA

# BERTSOETAN

## GURE "BASARRI" JAUN AGURGARRI

Gure Basarri, Jaun agurgarri  
bertsolari-olerkari,  
Euskeran alde zuk eten gabe  
ekin deitsazu lanari,  
ori dalata nik erreguka  
diñardut Jainko Aitari:  
berak al dau ta emon deitsula  
oindiño urte ugari,  
buru argiko, biotz garbiko  
zaitugun gizon onari,  
gure artean gaur egunean  
eredu zaitugunari.

Gaur eguneko bertsolariak  
jakintzaz aberatsago  
ikusten dodaz, ta nire ustez  
baita be dotoreago,  
alan dirudi etxuran baña,  
barruan zer ete dago?  
Euskadirentzat maitetasuna  
ukatzen dunik balego,  
gure artean txartzat artua,  
ni beintzat orretan nago,  
abertzaleak agertzen dira  
ta Euskadi olan pozago

Guztiak doguz zure antzean  
Aberriaren maitale,  
baña ez dira, nire ustean,  
zu baxen Jaungoiko zale,  
batzuek doguz, zori txarrean,  
sinismenaren galtzale.  
Eleiza pobre oba zalata  
lenago beti eskale,  
orain osteran erdi aberats  
ikusten doguz erosle,  
etxe ederrak eurekandurik  
eta automobilien jaube.

Olerkariak beti dabilta  
goiko "estratosferatik"  
Jatsi beitez ba erri mallara  
ibilli barik ain goitik,  
ulerterrezak ager deitezan

eurek be gure aldetik.  
Bertsolariak barriz osteran  
ibilli barik ain betik,  
erdi mallara igonda dagoz  
"Basarri" eldu zanetik,  
Enbeita Kepa eredu artuz  
beste guztien gañetik.

Baldintza danak txarrak ei dira  
gogor esanak parkatu,  
barne-muñetan nago miñetan  
eta ezin dot ukatu,  
biotz-biotzan barru-barrutik  
nai zaituedaz aupatu;  
bertsolariak asko al dabe  
bertso bitartez aldatu,  
Euskalerriko gazterik naiko  
daukaguz erdi ondatuz,  
Alkar zaitetze BERTSOLARIOK  
eta gazteak gaizkatu!!!

Eskumatarrak batsuek eta  
beste batsuek ezkertu,  
ori dala-ta enaukazue  
iñola ere bildurti,  
agertu ezik danen aurrean  
gizon modura, guzurti;  
orretan ere gure "Basarri"  
egizale ta zintzoki,  
beti lanean zuzenbidean  
bildurrik gabe ausarti,  
mingostasunak iruntsi arren  
agertu barik negarti.

Basarri'gandik ikasi geinke  
asmoak zelan agertu,  
itz egokiak era neurtuak  
erreztasunez aurkituz,  
erri mallako bertsolaritza  
olerkaritza biurtuz.  
Erdal sudezko itz baltzegiak  
euskal usaiñez zurutuz,  
Euskera txatxar barregarria  
euskal joskeraz ornituz,

berai entzuten zorionean  
ezin giñeike nagitu.

Gaur egunean gure artean  
bertsolariak ugari,  
aspaldi ontan beti lanean  
eutsiten gure Euskerari,  
erdi galduko ikusten baita  
erruki izanik berari.  
Ez esan iñoiz Ama Euskera,  
Ama bait dogu Euskadi,  
Ama onaren izkuntza dogu  
Euskera diño Basarrik,  
Aman izkuntza galduko balitz  
zelan itz egin Amari?

Urrun naukazu "Basarri" maite  
zugandik naiko aparte,  
eskeñi nairik olerkitxo au  
zure omenaren alde,  
jakiñik dala Kristo maitea  
kristau guztion bitarte.  
Maite zaitugun bertso zaleak  
or gaituzuz naiko laster;  
zorioneko egun pozgarri  
eder ori eldu arte,  
izan zakidaz "Iñaki maite"  
zorionez bere-bete.

Biotz-biotzez agur bero bat  
neure aizkide laztana,  
itz neurtuetan esan leikezan  
bertsolarien esanak,  
izango al dira bene-benetan  
Jaunan aurrean zuzenak;  
lortu daiguzan Euskalerrian  
kristau zintzorik onenak,  
zuri jarraituz, zigor naukazu,  
lortuko dogu almena,  
gaur eguneko bertsolaritza  
bearrezko dan kemena.

LERTIBE

Milla bederatzireun eta larogei bosgarreneko Maiatzaren ogetamaika'ko "GOIZ-ARGI" euskal aldizkarian irakurri nebanagaz, asko min-  
du nitzan; olantxe iñoian amabosgarren orrian:

"Ez du lenengo omenaldia artu gure adiskide ta lankide dugun BASARRI aundiak, baña ez gutxi merezia ere: erakunde, erri, bertsolari,  
idazle... Gauza oso nabarmena: Bizkaiko bertsolariak ez ziran agertu..."

Utsune ori betetzearen, bertso batzuk bialtzeko erabagia sortu zan nire barruan, eta garaia eldu zanean, auxe bialdu neban Zarauz'ko  
Udal-Etxera, Basarriren pozgarritzat eta gure Bizkaiko bertsolarien laguntasunik eza'ren kitugarritzat.

## BIDE LUZEA (100n. ZER)

### ORDUKO ITXAROPENA

Gogoan daukagu 1977'ko udabarriaren egun gogoan-garria.

Bai. Udabarria zan eta lora barri bat lez sortu zan ZER aldizkaria EUZKERAZALEAK ALKARTEA'ren gelan egindako batzar aretan. Urrengo uztaillean agertu zan lenengo zenbakia. Uztaillean, bai, berorik aundiena izaten dan illean.

Ez geukan ixaropen larregirik! Ain j^ausia eta eurbera aundian ikusten genduan Bizkai'ko euskerea! Zeozer egin bear zan!

Eta asi eta jarraitu! Ona emen gu, ba-dala-eztala, 100n. zenbakira elduta! Nok sinistu orduan?

Aita Letona izan zan Bultzagille aundia eta beragaz batera an gengoan au idazten dauan Martin, Josu Arenaza, Bernardo Ibarra, Iñaki Egurrola... Euskerzaleak Alkarteko batzuk... ez dakit iñor aitzuta izten dodan.

### BESTE BATZUK

Beste aldizkari batzuk larrialdi aundietan ikusi doguz. Batzuk betiko ondatu be egin dira, beste batzuk isilladiak igaro ondoren, barriro agertu. Eta guk beti iraun dogu zutunik. Pozik egoteko gauzea da au.

Eta iraun be atzerarik egin barik, aldizkari apaiña, aundikeri bakoa, ingi egokiagaz eta azal ederrakaz ateraten.

Eta orrelan illerik illera 100'era eldu arte.

### GURE LAGUNTZAILLEAK

Laguntzarik geien emon dauskuna EUSKERAZALEAK ALKARTEA izan da.

ZER Euskerazaleak'en orma ondoan sortu zan auntz-orriaren antzekoa da eta Alkarte onen ondoan egin dau bere bidea, beronegaz geroago ta obeto alkartuta.

Eta Euskerazaleak Alkartea'ren bidez diru laguntza emon dauskuen beste erakunde batzuk be gogoratu bear: Bizkai'ko Aldundia, Bizkai'ko Aurrezki-Kutxa, Eusko Jaurilaritza be bai apur bat, asikeretan Bilbo'ko Aurrezki-Kutxa be bai, baiña gure laguntzaillerik onenak idazleak eta irakurleak izan dira. Eskerrik asko.

### IDAZLEAK

Eun eta berrogei ta amar idazleak idatzi dabe ZER aldizkarian eta onein lanak len "Editorial Vizcainak irarri ebazan eta aspaldion BOAN Irarkoleak. Onei be gure esker ona.

Kerexeta'tar Jaime'ri dautsogu zor 100n.zenbaki berezi onen azkenean argitaratzen dogun aurkibidea. Or ager-

tzen da idazle bakoitxak zenbat zenbakitan eta zeinetan idatzi dauan, baiña batzuk zenbaki bakoitxean bitan be idatzi dabe eta beste batzuk izen bigaz be bai.

Ona emen amar zenbaki baiño geiagotan idatzi dabenen izenak:

Aita Akesolo'k 13'tan  
 Josu Altuna'k 57'tan  
 Josu Arenaza'n 12'tan  
 Matai Argintxona'k 13'tan  
 Josu Arregi'k 47'tan  
 Anes Arrinda'k 16'tan  
 Aurre Apraiz'ek 11'tan  
 Gotzon Azpeitia'k 10'etan  
 Anjel Bidaguren'ek 14'an  
 Bilbao Jon Erramon'en 17'tan.  
 Egiluze-Letonak 92'tan  
 Andika'k 14'tan  
 Estomba-Urkiola'k 75'etan  
 Isidor Etxebarria'k 13'tan  
 Gallastegi'k (Zar Gazte) 65'etan  
 Martin Olazar-Gamiz-Martintxu 61'etan eta atariko (edotorial) 61'etan  
 guztiak.

Iñaki Goikoetxeak 50'etan  
 Gorria'k 36'tan  
 Gorri'k 14'tan  
 Ibarra, Euskaldun barri Zangroniz 45'etan  
 Kamiñazpi'k 17'tan (iru orri)  
 Kerexeta Jaime'k 38'etan  
 Landajuela Andoni'k 29'tan  
 Latiegi Bixente'k 45'etan  
 Legarreta Josu (Piru) 37'tan  
 Maitena'k 17'tan  
 Sabin Muniategi'k 35'etan  
 Onaindia Santi'k 60'tan  
 Pedro Puxana'k 18'tan  
 Solozabal Paulin'ek 39'tan  
 utarsus'ek 22'tan  
 Zubikarai Augustin'ek 30'etan.

Jarraitu idazle ugari ta adiskide aundiok, gure Aldizkaria aurrera aterateko zuen laguntza bearrezkoa emoten.

Amar zenbaki baiño gitxiagotan agertu diranak asko dira eta euretariko batzui idazteko deia egiten dautsegu: Aberkide edo Andika'ri, Bitor Atxutegi'ri, Barona Astrid'eri, Erkoreka Josu Iñaki'ri, Etxebarria Juan Manuel'eri, Izaro lekaimeari, Mallona Agurtzane'ri, Muniategi Asier'eri, Olabarria Anastasio'ri, Josu Penades'eri..., eta beste askori. Ez dogu zerrenda au geiago luzatu bearko.

Ez uste izan sarritan lanak ugari izaten doguzanik, Idatzi egizue! Bai? Eskerrik asko.

### GOIAN BEGOZ

Egun onetan gogoan daukaguz eriotzea eldu jakelako agar egin dauskuen idazleak be. Baten bat aitzuteko arriskua izan arren ona emen^ Argintxona Matai, Azpeitia Julene, Estoba Manuel, Landajuela Andoni, Uxola, Oneik betiko Aberrian izango doguz itxaroten.

### BATZARRA TA OSPAKIZUNA

Zenbaki onen beste leku baten iragarten dogun lez, irailaren 20'an egingo dogu Larra'n Idazleen eta laguntzailleren batzarra: Mezea, azterpena, bazkaria. Pozezko eta esker onezko bazkaria ta egun osoa izatea nai genduke. Etorri, arren.

# LIBURUAK

## MENDATAKO PROFETA



**Idazlea:** Teresio ELORRIETA  
**Idazpurua:** Mendata'ko Profeta.  
**Irarkola:** Igarri S.C.L. Bilbao.  
**Urtea:** 1986.  
**Argitaldaria:** Larrea (S. Onaindia).

### LIBURU IRAKURGARRIA

Gauza arrigarria benetan gure Euskalerrian eta Bizkaia eskualdean, igarletza-lana egiteko zeregiña artutako gizonak izatea eta orrexegaitik liburua irakurgarria da eta irakurleak jakingarria dan gauza barri bat aurkituko dau.

**Ez** dira asko olako liburuak! Zenbatetan liburua irakurri eta azkenean esan bear izaten dan: Zer atera dot irakurketa onetatik!

Liburu **au** irakurten dauanak **ez** dau egin bearko olako itaunik. Argi agertuko dautso barruak zer ateraten dauan.

Gauza arrigarria da izan be Euskalerriko igarletza eta idazleak egiten dauzan gertakuntzak eta azalpenak be ederrak dira, naizta sarritan gauza ezagunak izan. Labur eta zorrotz agertzen dau idazleak Euskalerriko giroa. Igarlearen aldian asi eta igarkizunak bete arteko epearen barruan.

Bear ba'da asieran irakurleak olako zerbait esango dautso bere buruari: Baiña gauza oneik beti esan diranak ba-dira! Baiña **ez** beite azpeltu. Igarkizunaren giroa gertatzeko da dana eta azkenean **ez** dau izango damurik.

### BIZKAI'KO EUSKERA

Geroago **ta** ugariago agertzen jakuz Bizkai'ko euskeraz idatzitako liburuak eta **poza** emoten dauku idazle **guztiak** idazkera bardin-antzekoa erabilteak. Orixe da Bizkaiera batua, erritarrak aspaldion idatzi dabena eta irakurleak irakurteko oiturea artuta irakurten dabena. Aiene! Ortik urrindu **ez** ba-giña! Gaur beste oillar batek **egingo** leuski-gu kukurruku! Eta bide ori alde batera itzi dalako dakortu euskerearen ondamendia!

Bizkaieraren batasun orrek **ez** dau esan gura idazle guztiak bardin-bardin idazten dabela, edo idazkeretan okerreko biderik **ez** dagoala edo idazle bakoitzak bere berezitasunik **ez** daukala. **Ez** orixe! Eta bear be **ez** da olako bardintasunik. Baiña bai ainbeste idazleak erabili ta sendotu daben bizkaiera bizi dala **eta** aurrera doala.

Euskera ederra eta ulertterreza da Aita Teresio Elorrieta'k liburu onetan darabillena. Geroago egingo dautsoz ogartxu batzuk.

### LIBURUAREN GAIA

Aita Santi'ren aurkezpena eta idazlearen sarrera irakurri ondoren, liburuak erakunde argi ta ederra agertzen dau bere amabi ataletan.

Erakundearen muiña 45n. orrialdean "Ustegabekoa" idazpurua doroan zatian dago: Igarlea, Eulalio, Santiagoetan Kortezubira joan **zan**, Salbide baserrira, bere arrebegaz an eguna igaroteko. Gaberdi inguruan urten eban Mendata bere errirantza eta Ugalde'ko Santa Ana baseleizearen aurrean andra batek agurtu eban eta biak Mendata'ra joiazan **lez**, batera egin eben bidea. Auxe **izan** zan igarkizun guztiak iragarri eutsozan andrea. Gabaz, bide **luzea**, emakumea esan eta esan eta Eulalio igarlea entzun eta entzun, alkarrari nor ziran, **ez** batak eta **ez** besteak, esan barik. Jazokizun arrigarria benetan!

Gau orretako igarkizunak zabaldu ebazan arduraz Eulalio'k. Entzule asko etorten jakozan etxera eta baserriko lanak egokiro egitea be **galazo** egin eutsoen. Ortik igarlearen zorrak era estualdiak.

Muin orren inguruan dotoz igarkizunak ulertzeko jakingarriak eta gero igarkizunen iturriak, errian zabal ibilli ondoren baten batek edo batzuk idatzitako agiritiatik artuta. Agiri orreik (Elorrieta'rena, Nabe-ran'ena, Eusko Folklore'koa batez be lenengo biak) **ez** dira urtez eta

egunez zeaztuten eta jakingarri ori bearrezkoa **zan**. Argi **diño** idazleak iturri oneitan **ez** dala beti zeatz-zeatz agertzen Igarlearen igarpena. Erritarrak entzun eta **esan**; gauza batzuk aldatu egin ebezan. Orregaitik gauza batzuk, esaterako guda labur bat izango dalako igarkizuna, **ez** da betetuta ikusten.

### EUSKEREAREN AKATSAK

1985'eko abenduaren 4'an il zan liburu onen idazlea, aita Santi'k sarreran diñoanez. Liburu ainbat urte **lenago** idatzia izango da, baiña azkenerantza be orrazketaren batzuk egingo eutsozan, batez be irarko-lara eroateko orduan.

Akats bi aurkitzen dodaz nik liburu onetan idazleak darabillan euskeran. **Ez** dira garrantzi aundikoak baiña bai azterketa egiterakoan esan-bearrekoak.

**Ez** dot akats lez artzen "gustia", orrelantxe **s'gaz** idaztea. Au sarritan agertzen da eta **ez** dot uste irarkolako utsa **izango** danik.

Akats aundiagoa da joskerea beti zuzena **ez** izatea eta batez be izen-lagunezko edo adjetibozko esaldi txikiak, erderaz relatibokoak esaten jakenak beti atzeratu egiten dauzala eta noizean bein esangurea bera be aldatu egiten dabe. Olakoak orririk geienetan agertzen dira, **baiña** **ez** dodaz zenbatu. Adibide batzuk agertuko dodaz:

14n.orrialdean: "Manu Iturri Donostin bizi dana"

Obeto: Donostin bizi dan Manu Iturri

14n.orrialdean: "... autorleak, Igarlea ondo ezagutu ebenak"

Obeto: Igarlea ondo ezagutu eben autorleak.

15n.orrialdean: "Manuel Elorrieta Intxausti, Igarlearen lobatxu nean bizi zana"

Obeto: Igarlearen lobatxuarenean **bizi** zan M.L.I.

15n.orrialdean: "Felix Naberan dogu, Igarlearen kideko ta lankidea izan zana"

Obeto: Igarlearen kideko ta ta lankidea izan zan **F.N.** dogu.

Olakoak noizean bein ba'litzakez... baiña ain dira ugariak!

Onen antzekoa da beste oker au be: Erderazko gerundioaren jokersa euskerara eta era ez-egokian sartzea:

14n.orrialdean: "... batzarrak.. eukiten ebezala gogapeko arazoak aztertu eta azaldu **eginaiz** eta liburu baten ezarriaz."

"**Eginaiz**" eta "ezarriaz" aditz-joko orreik **ez** dira zuzenak eta euskereak obeto artuko leuke esaldi bardiñen bidea artzea:

... batzarrak eukiten ebezan eta gogapeko arazoak aztertu eta azaldu ondoren, gero liburu baten ezarten ziran.

Olako esaldiak be naikoa ugari dagoz liburuan.

Eta bigarren okerra, au **ez** ain ugari, adizkizun zuzenari dagokion askoren adizkia **ez** ezartea da. Geroago ta geiago dira uts au egiten daben idazleak eta onek txirotasuna dakartso euskereari. Aurkitu dagigun adibide bat:

"Ozta-ozta geratzen zan ba Bizkaian sendirik alako edo onelako nekaldia ta larritasunak, euki **ez** ebanik" (obeto ebanik) (125n.orr.).

**Iñoz** bestetara be jazoten jako, batena izan eta askoren adizkia erabili: Igarlearen ondorengo senitartekoen goraberak emen ezarten dira (obeto: ezarte dira emen) besteak be antzekoak edo erdi bardiñezkoak izan zirala jakin dagiezan obeto: "dagien").

Ba-dira beste oker txiki batzuk be, esaterako "**euren**" esan bearrean geienetan "**euroen**" esaten dau eta nik **ez** dakit nondik atera dauan **o** ori.

Liburuaren idazpuruan "**PROFETA**" baiño egokiago legoke "I-GARLEA".

### ARTU ETA IRAKURRI

Aztertzaillearen lana beteteko akats txiki oneik atera bear izan arren, asieran esana diñot barrero: Liburu irakurgarria da, artu ba, irakurle, eta irakurri.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

## EMAKUMEAK ALKARTASUN BARRIAN (3)

**Lidia** (Filipos'ko kristau emakumea) (Ap. Eg 16, 40)

Y cuando salieron de la carcel (Pablo y Silas) entraron en casa de Lidia;

Lei: Orduan ilkiric presoindeguitic sar citecen Lydia baithan;

Duv: Orduan presondegitik atheraturik, Lidiaren etchera sarthu ziren.

01: Baltegitik irtenda, beraz, Lidi'ren etxera yo zuten,

E-B: Eta espetxetik urtenda, Lidia'ren etxean sartu ziran;

**Lolda** (Timoteo'ren amama) (Tim 2.<sup>a</sup>, 1, 5): ikusi **Eunlze**.

**Maria** (Jesus'en ama; oso sarritan agertzen da) (Lk 2, 16)

(los pastores) encontraron a Maria y a Jose y al niño acostado en el pesebre.

Lei: eta eriden citzaten Maria eta Joseph, eta haour-tchoa mangederan ezarria.

Duv: eta aurkhitu zituzten Maria eta Joseph, eta haurttoa askan etzana.

01: ta Mari ta Yose ta Autxoa askan etzana idoro zituten.

E-B: eta Maria, Jose, eta askan etzunda egoan umea aurkitu ebezan.

**Maria** (Betania'koa, Marta'ren aiztea eta Lazaro'ren arrebea) (Jn 11, 19)

Habian venido muchos judios a casa de Marta y Maria.

Lei: Eta iuduetarik anhitz ethor citecen Marthagana eta Mariagana,

Duv: Baziren, berriz, Juduetarik asko, Marthari eta Mariari (zerbait gozakari ematera) ethorriak.

01: ta yudu aunitz ara etorriak Marta ta Mari'rengana,

E-B: Judar asko etorri izan ziran Marta ta Mari'ren etxera,

**Maria** (Jesus'i jarraitzen eutsoen emakumeetarikoa, Santiago gaztearen eta Jose'ren ama) (Mk 15, 40)

Habia tambien unas mujeres mirando desde lejos, entre ellas, Maria Magdalena, Maria la madre de Santiago el menor y de Jose, y Salome.

Lei: Eta baciraden emazteac-ere urrundanic beha ceudela, ceinen artean baltzen Maria Magdalena, eta Maria Jacques chipiaren eta Josesen ama, eta Salome.

Duv: Bada, baziren einazteki batzu ere urrundik begira zaudenak, zeinen artean Maria Magdalena, eta Maria, Jakobe chumearen eta Josepen ama, eta Salome.

01: Emakume batzu ere an zeuden urruntxetik begira; ta ayen artean Mari Malen, ta Yakob gaztearen ta Yose'ren ama Mari, ta Salome.

E-B: Emakume batzuk be ba-ziran an, urrundik begira; arein artean, Mari Madalen, Santiago gaztearen eta Jose'ren ama Mari, eta Salome:

Maria (Joan Markos'en ama) (Ap. Eg 12, 12)

Consciente de su situacion, (Pedro) marchó a casa de Maria.

Lei: Eta gauca consideraturic ethor cedin Maria Ioan-sen,

Duv: Eta gogoeta horietan ethorri zen Mariaren etchera.

01: Ta yazoa gogoan zerabilkila, Mari'ren etxera joan zan.

E-B: Eta jazoa gogoan erabilela, Mari'ren etxera joan zan.

Maria (Erroma'ko kristau emakumea) (Erm 16, 6)

Recuerdos a Maria, que tanto ha trabajado por vosotros.

Lei: Saluta ecacue Maria guregan anhitz trailla-tua.

Duv: Agurrak Mariari, zeinak zuen artean nekhe handiak erabili baltitu.

01: Gorantziak Mari'ri, zuenean ainbeste lan egin du-nari.

E-B: Gorantziak Maria'ri, zuekaltik ainbat lan egin eban-eta.

**Mari Madalen** (Magdala'ko emakumea) (Mk 15,40): ikusi 3'garren **Maria**.

**Marta** (Betania'ko Mari'ren alzteia eta Lazaro'ren arrebea) (Jn 11, 19): ikusi 2'garren **Maria**.

**Persida** (Erroma'ko kristau emakumea) (Erm 16,12)

Recuerdos a la amada Persida, que ha trabajado tanto en el Señor.

Lei: Saluta ecacue Persida, nik maite dodana eta anhitz trailla-tu dena, gure Iaunean.

Duv: Agurrak Persida maite-malteari, zeina Jaunarentzat nekhe handitan sarthu baita.

01: Gorantziak nere Persi malteari, Yaunarentzat ainbeste lan egin dunari.

E-B: Gorantziak Persida malte-malteari, Jaunagan ainbat atsekabe eroan dauanari.

**Prisca** edo **Priszlla** (Paulo'ren lankide zan Akila'ren emaztea) (Erm 16, 3)

Recuerdos a Prisca y Aquila, colaboradores míos en Cristo Jesús.

# BIBLIA

Lei: Salutaitzacue Priscilla eta Aquila, ene aiutariak Jesus Christ Iaunean.

Duv: Ene izenean agur egiozue Priskari eta Akilari, zeinek Jesu-Kristoren zerbitzuan lagundu izan bainaute.

Ol: Gorantziak Jesu Kristo'ren alde nere lankide izan diran... Piriska ta Akila'ri.

E-B: Gorantziak Jesukristo'ren alde nire lankide izan diran Priska ta Akila'ri.

**Rode** (Mari izeneko Joan Markos'en amaren neskamea) (Ap. Eg 12, 13)

Llamo el (Pedro) a la puerta de la calle, y se acerco a abrirle una sirvienta llamada Rode.

Lei: Eta bulkatu cuenean Pierrisec etche aitzineko bortha, ilki cedin nescato bat behatzera, Rhode deitzen cenic.

Duv: Bada, etche sartzeko athea jo zuenean, Errhode deitzen zen neskatcha bat ethorri zen entzutera.

Ol: Ezkaratz-atean yo zunean, Errode zeritzan neskame bat atera zan aditzera.

E-B: Eta Pedro'k bee-barruko atea jo ebanean, Rode izeneko neskame bat urreratu zan atera, ixil-ixilik entzutera.

**Safira** (Ananias'en emaztea) (Ap. Eg 5, 1)

Un hombre llamado Ananias, de acuerdo con su mujer Safira, vendio una propiedad.

Lei: Baina Ananias deitzen cen guicon batec, Sapphira bere emaztearequin sal cecan possessionebat:

Duv: Aldiz, Ananias deitzen zen gizon batek, bere emazte Saphirarequin saldu zuen bazter bat.

Ol: Anani zeritzan norbaitek, bere emazte Sapir'ekin itundute, landa saldu...

E-B: Ananias izeneko gizon batek, bere emazte Safira'gaz itunduta, landa bat saldu eban;

**Salome** (Jesus'i jarraitzen eutsoen emakumeetarikoa) (Mk 15, 40): ikusi 3'garren **Maria**.

**Sintike** (Filipos'ko kristau emakumea) (Flp 4, 2): ikusi **Ebodla**.

**Susana** (Jesus'i jarraitzen eutsoen emakumeetarikoa) (Lk 8, 3): ikusi **Joana**.

## SUPER GAU

Bizi oiñarrizko egiturak ankazgoratuz  
Super Gau berba barria dator indar artzen,  
Eriotzadun azi txarra erein ta ernalduz  
Gizon arroaren ustekizunak lurperatzen.

jAu da oraingo gizartearen gurutzea!  
Gizonak berak, arro, duana leporatu,  
Izar-asmoz errezkutzeko gorabidea  
Beste mundu barriren bat daigun eskuratu.

Elburu ausart ta, ona da bai, nai ba-dozu,  
Baiña, eriotz izerdiz odoltsu datorrena  
Autserrezko odoitzapean, ortzi barrena,  
Lokarriak apurtuta aizebeta, itsu...

Indarroletan ezbearrak diranean sortzen  
Gizonak berak, negar dagi bildur-ikaraz  
Ikusten Izadia ondamentiraten  
Atomuaren madarokatuzko kutsaduraz.

Gizonak lokarriruriko indar-tzar ori  
Onetik urten ta, igesari damotsonean  
Inperuko labearen ozalea dirudi  
Sugar goritan, izumenezko lasterrean.

Gogora daigun Hiroshima'n zer gertatu zan,  
Gogora azkenengo barri dogun Chemobil  
Gogora lurbirako ainbeste ixtriputan  
Eriotzea datorkigula lapurki, ixil.

Kutsatua ortzia ta, kutsatua lurra,  
Bizitzadun danak kutsatuak osotoro;  
Kutsatuak ibaiak ta, kutsatua ura,  
Gizona, ai! nun babestuko da nun gero!

MUNIATEGITAR SABIN





## EUZKADI ZEAR TXANGO BAT

Gure ZER onen eungarren zenbakirako, zerbait gertu naiez nebillan azpalditxuan, bada, jazokun onek badau garrantzia euzkaldun euzkaltzaleontzat, zori txarrez, euzkerazko aldizkari gitxi diralako onenbesteko aleraño eldu diranak, Eta, gure ZER au eldu da, ZORIONAK beronen arduradun ain zintzo jokatu dabena, asi ta orain-arte iraun ba'dau, gure izkuntza, euzkera benetan maite izan dabelako izan da-ta.

Badakigu ez dana errez euzkerazko aldizkari bat, eta batez bere bizkaierazko euzkeran argitaltzea, baiña, ordago ZER eta uste dogu beste urte askotan jarraituko daua-la, orain arteko zuzendariak edo euren tankerakuak ba'daukaguz. Orixe bai, orretarako gitxi dakigunok eta asko geiago dakienak idatziten alegindu bear gera, Bizkaiera garbi ulerkorrak beronen orri-aldetan utsik egin ez-dagian.

Asieran esan dogunez, zer idatzi ez dakidala nengoan aldi ortan "Euzkadi zear txango" bat egiteko aukera izan neban eta, eungarren Zenbaki onetarako egoki iduritu jatan txango orretako zertzelada batzuk argitaltzea, gukain maite dogun Aberriaren ezaugarri diralako gure azalpen apalak.

Igaro zan Garagarrillean urten gintzazan Galdakano'tik berebiltzar baten, Lan Kide Aureskia txindi etxeak ipiñitako berebiltzar aundi baten, ea irurogei notin, geienok senar-emazteak, Iruña'rantza, Bizkai'an zati bat eta Araba batez bestera igaro ondoren, Naparra'ko uriburu garbi apain orretara elduteko. Berton egin genduban lenengo geld-unea, oiñak pizkat luzatuaz "pizkolari" bat artu ta bertan zerbait ikusiteko asmoz. Bakoitzak al ebana egin eban eta, gu geratutako lekutik pizka bat urbil aurkitzen zan Takonera'ra zuzendu gintzazan, baratz eder aretan pizkabat ibilli ondoren baratz erdi-erdian aurkitzen dan Gayarre'tar Julen napartar abeslari ospetsuaren oroi-gallu eder apaña ikustatu ta abar.

Iruña'tik urtenda Erro'ko aldatz-gaiñetik igaro ta Aurizberri (Espinal'tik Auritze (Burguete)'ra eldu gintzazan bertan bazkalduteko, uritxu garbi ori pizkat ikustatu ondoren. Ederto bazkalduta urren urten gintzazan Orreaga (Roncesvalles)'erantza, bertoko apaiztegi ospetsua, Europa'ko garrantzitsuen bat dana, ikustatu ta Ibañeta gaiñera arrapalada baten igoteko, bertan diran eleizatxu polita eta orogallu lez dagon zutoia (pedestal) ikusteko.

Ibañeta gan orretan diran ikusgarri orreik, zelan inguru ortan 778'garrenan napartarrak, euzkotarrak, Frantzi'ko "Carlo Magno"ren gudarostearen aurka egin eben

gomutaz zirala azaldu euskun txangolarietariko batek, nai-ta eriotza asko izan bertan, zelango garaipena izan eben euskotarrak adierazoaz.

Ibañeta igaro ta jatsi gintzazan, jakiña! Luzaide (Valcarlos)'era euzko anaiok banatuzten gaituan muga mada-rikatua igaro ta laster baten Garazi'ko Donibane'ra eldu-teko. Emen, ordu ta erdiko epea emon euskuen eta, gitxi batzuk Uri-aldamenean goi-muñuan aurkitzen dan gazte-lupe ikusgarria ikuskatutzen igon genduan. Leku zoragarr-ria bera, bertatik diran ikuspegiakaitik. Ez egoan lenago-ko gizaldietan gaztelu ori trizkatuko eban izkillurik, ez orixe!

Arratsalde-erdian urten Garazi'tik (St. Jean Pied-de Port) frantzezentzat, eta Lousoa, Itsasoa, Espelete'tik Sara erri politera, bertan apaldu ta lo egiteko nasai-nasai, ibiltaldiaz pizkabat nekatuta, baiña, geure ikusmenak eta adimenak bikain asetuta, ikusi genduzan lurralde orlegi aberats ta baketsuak ikusi ondoren.

Urrengo goizean, Garagarrilla'ren 15'an, ederto gosal-du ta urten gintzazan Azkain aldera, baiña, erri polit orre-tara eldu baiño len dagoan Iñaki deuna'ren mendi-lepora, leku ortan artzeko Larrun mendi-gaillurrera igoten dana kate-bidezko bultzia (Tren cremallera). Oso atsegin izan jakun mendi-gain orretara igotea, batez be iñoiz bertan egon bakoak ziranai, ikuspegi orrek dituan ikuskizun zoragarriak gozatu ondoren.

Ordu ta erdi edo zerbait geiago Larrun'go gaillurrean igaro ta, barriz kate-bidezko bultzian jatsi eta, barriz Sara, aldi bateko "Axular" apaiz azkarraren izatezko erri polita obeto ikustera joan giñan, bertan beste ordu bat edo gei-ago eginda Ainhoa'n beste ainbeste agiñaz St. Pee'ko (ta-malez ezdakigu errionen euzkal-izena) Amotz errizka apañara bazkaltzen elduteko. Ipar-aldeko Euzkadi guztia lez lurralde zugaitzua, baketsua ta beraz atsegingarria.

Amotz orretan ondo bazkalduta, urten gintzazan St. Pee ta Ibarron'dik zear Donibane'ko Loitzun uri zabalera, Txangolari izan gintzazan geienok ezagutzen genduban erdi prantzeztuta aurkitzen dan uri eder ori baiña, bertan egin genduan egotaldi luzetxu bat, urren Endaya'n gero barriz, ainbeste amurru emoten dauskun muga igaro ta arratsalde beranduan urten genduban errira itzuliteko, egun bi pozik igaro ta gero.

Irakurle agurgarria, alegindu zaitez benetako zeure Aberria ezagutzen, ain polita eta ederra dan ezketiño, ez jatzu damutuko eta.

ALTUNA'TAR JOSU

## ERRIAK

# NAPARROA'KO BERTIZ JAUBETZA, LORATEGI BEDEGARRA

Aspaldi-aspalditik nengoan Bertiz lorategiri buruz idazteko asmo bizi biziaz.

Geure EUZKADI maitagarriak ba'dauz izan be berein eta berein toki ikusgarriak bere zazpi erki miragarrietan, bai iparraldetik eta baita be egoaldetik, ain zuzen. Gure egoalde onetan Naparroa dogu, ezin uka, oneitariko ainbat eta ainbat errazoi alde batera itzirik, nabarmenatariko bat.

Bertiz Jaubetza izentaturiko lorategi berezia, Naparroa'ko ikusgarriena, politena, zabalena ta ezkutuezkoena da. Irati oiana, basati samarra da, Auñamendi zabaleran daukaguna eta beste zergaiti edo zio batzuekaitik, ez naia-tortzue orretaz itz egitera. Esan oi danez, Alemania'ko "Selva Negra" edo Oian Baltzaren ondoren Irati'ko Oiana. Europako aundiena dala beti lutelestietan egizatzen daukue. Orrela ba, gure Bertiz Naparroa'ko Jaubetza, ikusmiraz bertako lorategi bedegar-bedegarrena da.

Bertiz Jaubetza, Jaurerri txiki izenez bere, deiturikoa izan leitekena, bere izen bereziko ibarrean kokaturik daunikigu. Bere ertz ezagunenak alde batetik Baztan'go aran ikusgarria eta bestetik erdel izenakaz esagaturiko "Cinco Villas", kondairan zear noizik-beinka aipaturikoak, dozuz. Lurraldetxo au oraintsu arte ezkutuz, misterioz gainezka, bete-beterik izan dogu. Alan da be, urte batzuk dirala irail baten bere atek zabaldu ziran eta erri zeak aukera osoa izan eban bere barnekoi zoragarriak ikusteko ezezik, bere lorategi lilluragarri, lats eta ur-jauzi ederrenetarikoakaz jabetzeko. Ez zan ez atsegin txikia izan, bertako lorategi ezezagunekaz atsegintzea ta gozatzea.

Egungo egunean berezko lorategi zaar ta barri bat legez agertu oi jaku.

Ezta ez gitxi lorturikoa atan be.

1.899'garren urtea, aurrera joian. Pedro Ciga ta Mayo Jaunari otu jakon urte berean gaur egun lelokerizko bat deritxogun salneurrian, 650 milla laurlekoakaz zorioneko lurralditxo au erostea.

Diñoenez, bazan bai gizon azkarra ta buru argiduna. Bere azken naian, bere eriotzea 1.949'an izan zanez, Naparroa'ko Foru Aldundiari bere lurren jabetzea emon eutsan. Ori bai, gozamina edo aldi bateko onurea "usu-fruktoa" Baztan'go abade zaarren Kontuzko Erakunde bateri, lege ozoz ezarritz. Olan Pedro Ciga Jabe aberats

onek, bere bizitz osoan batetik bestera ibilliaz, ta gizadiaren amorioz lilluraturik izanez bat, ta ludiko atsegiñak blai-blaika ta alik obeen gozatu ondoren; Naparroaz ezeze Jaungoikoagaz be pakeak egiñaz, biotz maitasunaz iltea gura izan eban.

Ordua da esateko zelakotxea dogun Bertiz lorategi bakan ta bere-biziko au. Lurrez 20 kilometro laukodun da. Pagadiz, aretkez, gatzain-ondoos ta beste zugaitz motaz orniturik daukagu. Jauregi jaukal bat mendi tontorrean; etxe dotore banaka batzuk ingurumarietan ta ikusgarritzko Iandare baratza aurrekaldean.

Bere oraingo Bertiz'go Jaubetza izena lenen eta bein 1.665'garren urtean dagerkigu, aldi areitan España'ko Jaurleritza eroian erregeak, Antonio Barragan eta Bertiz Jaunari Bertiz'go Jaubetza osoaren Agiria opizialki emon eutsanean.

Azkenengo iru mende oneitan belaunaldiz belaunaldi, Bertiz'go lorategi ikausgarri ta lilluragarrien aberastasunak Pedro Ciga ta Mayo'ren ardurapean geratu ziran.

Toki ezkutuen zerak, sarritan jazo oi dan legez, euren bame illun zabaletan egi ta egi itxura naiz guzur-antza edo sasi-kondairea, iraulketa baten, sasi naski baten, irabiotuta ikuskatu leitekezenez; ez da ez txit argitsua, erreztasun osoz eurak bereiztea. Alan da guztiz argi dagoena da, azkenengo jabea izandakoak ez ebalta itzi bere lorategi bardinbako orretatik, bere zugaitzetatik aurki, adartxo bat bera be kentzerik lagatzea.

Orrela gure irudimena azke be azke ibilli dabil. Ez zan be ez izan "mutil" jatorra, bertako jabe azkena izaniko Baztandar Indiano Pedro Ciga Mayo ludiko ibiltari aspergabeea.

Nobelagille azkar bat bear izango da diñoenez bere eskutitz ustegabe ta mueta guztirikoak eleberri mardul baten idazteko gai ezezik, astirik jadetsi dagiana, zurrrik asko.

## "AIZKOLEGF DEITURIKO JAUREGIA

II kilometrozko baso bide egokitsu bat. Langilleekaz batera, astoak, mandoak eta lergai edo dinamitea ugari, langilleen izardi-anpuluz bateratsu egiña. Onelan asi jakun gaurkotsen gure Pedro Baztandarra. Goialdean, aundikiro



"Aizkolegi" izeneko Jauregi berezia. Urez-andiko edo Kolonial izenez ezaguturiko tankerazkoa da bera. Urtean zear illunegi esan lei. Ogei egunetan doi-doi agertu oi da argi ta garbi Miarritzeko (Biarritz) ondartz zoragarria. Pedro Jauntxoak, nolانبait bere izakera aldakaitza ezagutuazoteko, olango egun argitsuetan bere urrun-ikustalluagaz Miarritzeko ondartz paregabea, bertan igerian naiz baltzaren margo politikak eurenaganatzen ebiltzezan gaztetxo udazaleak, begiztatu oi ebazan.

Eguraldi txarra dala-ta ia urte osoan Jauregi ospetsu au utzi-utzirik aurkitu oi da. Baztanetik Iparraldera oinkadaxo bat ala ta be. Ez da gauza zailla bestalderatzea.

## BIZIKERA AUSARTA

Pedro Ciga bera, aberatsa ba'zan, bere emaztearen ondasunak aundiagoak ei ziran. Batzuen iritxiz Argentina'ko "PANPA" izenezko zabalegi itzeletan Naparroa osoa kokatzeko lain ziran etxalde naiz lur-ondasunak (ranchos) zituan. Marruekos'ko Rifan eta Cuba'n be ainbat eta ainbat lurralde. Ziurtasun osoz Pedro Ciga Jaunak ia lurbira guztitik bere ibillaldi ausartak egin ondoren mueta guztiriko landareak etxeratu ebazan, eta orrela egungo egunetan dakusgun miragarritzko landare-baratza ornidu. Bertan ikusi leiz Txina Lateraldeko seska-zaillak edo banbuak, tropiko bero-aldetako palmadi galantak, goi-ameriketako sekuoi (sequoia) garaienatarikoak, zidar mardodun ezkiak, Libano'ko zuzi edo zedro mardulak.

Hernan Cortes'en arbolea ere an ei dago. Zugaitz mueta au Mexiko Lateraldeko jatorritzkoa, ta pa^ura ta urloietako il-zugaitz edo zipresa da.

Kondairak dirauskunez Kapitan ospetsu onek, burrukaldi bat galdu ebanean zipres onen aurrean negarrari emon eutson.

Pedro Ciga'ren emazte losintzalea, Dorotea Fernandez izenezkoa zana, bere senarra luditik zear ebillenean ontzixtu dotoretsu baten egurasten zan. Beretzat, ezkonkide samurrak antzez eta trebeki egiñiko zingiratxo bat eban; eta aate, zubitxo, zokondo eta zirkin-zuloak ugaritsu aurkitu oi ziran bertan. Ortarako goialdetik lats naiz iturribegi bat egokiro zearturikoa bera, zaratatsu zingirara ur-jausi eder bat legez isuriten zan.

Inguruetako biztanleak difioenez ere, altxor baliotsu bat ei dago Cigar Jaunaren lurralde zabaletan. Ori bai egotekotan, oso ezkutua legoke. Ziurtasunik alan da be, iñork be ez dau emoten.

## ARTU-EMONAK ELEIZEAGAZ

Berebiziko ta jatorritzko lorategi bezala Bertiz'go Jaubetza erri ta udaltzeleai zabaldu aurretik, ta onelaxe aurre-

rantzean jendetza guztietarikoentzat ta batik bat napartarentzat izan eitean, Gongotaingoaz aulako paradisu zoragarrian buruzko, Naparroako Foru Aldundiagaz, artu-emonak izatea bearrezkoa zan. Eleizeak aspalditik eban atsegin-toki onen gozamina. 35 urte ziran Pedro Ciga Jaunaren eskutik artu ebal. Azkeneko urteetan alan da be ez ziran gotzain eta beste eleiztar agintari ta arduradunak Bertiz'go Jaubetzara urreratzen atsegin osoz udea emoteko. Delgado Monsiñorea izan zan igelbelar edo nenufares beteriko lats garbietan, bearrezko atsedena artzen ta Jauregiko aspaldi bateko altzari ta erreditzak erabilten, ara bertaturiko osterengo Gotzaiña.

Eleizeak eban gozamenetik orrela, 80 millo iaurleko Naparroa'ko Foru Aldundiak ordaindu bear izan eutsan. Bosteren bat urte izango dira au jazo zala.

Egungo egunean Bertiz'go Jaubetza guztientzat zabalik dagoanez, gertakera erakarleak doazenentzat prestatzen diardue. Gaurkoz alan da be oifiez egin bear dira joan-etorriak. Debekaturik dago erretzea, bertan jan eta inguru-minguruak ez zigar motxikifiez, ez besteriko zerez zikintzea. Laster baten zaldiz joan al izango da, edo berebil txiki naiz burditxo apainduetan, alaikiro. Kanping bategaz ere itzul-inguruak ornidutzeko asmoak darabillez eta "Etnografiku Erakusketa" bat be, Gotzain Jaunek kokatu ziran Jauregian zertzeko, gogo biziak dabez.

Beste Natur edo Izadi-Jakintzetarako ere oroi-toki argitsu ta aparta idoro dabe; ta orrez gain laukitegi ta margozki areto eder bat, baliadun zer guzti oneik zaindu ta gordetzeko.

Lenen ta bein Jaubetzatik at, Parking eta askal-toki naiz jatetxe agirizko bategaz jardungo dabe. Batetik bestera ikustatuz, barrukaldean 20'ren bat kilometro daurkiguz, egurazteko egokienatarikoak, atsedena toki jaiio ta ezin obeak, baso bide zidorrez jori ta ugariak, euri buruz mintzatzeko baiño bertan eureka gozatzeko obeagoak, ziñez. Transitoreak guztiz eragotziak izango dira, ta txakurrak ugalez lotuak.

## LANDARE-BARATZAREN ABERASTASUN BEREIZKOA

Landare-Baratzaren miraritzko izateak, Pedro Ciga Jaunak ludi guztitik "Aranoz" errira ekarririko iñolango azi ezberdifietan oiñarri sendoa dau. Naparroan aurkitu leiteken paduretako il-zugaitz naiz zipresa mueta bakana, lentxo baten esan dogunez, Landare-Baratzean idoro lei. Bardin bertan dozuez aitaturiko igelbelar edo nenufarak lora txukunak, txinatar palma-ondoak, sortaldeko Java ugarteetan Sagoko palmadi ezagunak, Japon'go baso-erramu edo "boneteros" izenekoak, txiletar Araukariak, portugaldar loro izenezko zardai edo agak, txinatar laranja-ondo garratzak, Japon'go seska-zail naiz banbu

# ERRIAK

baltz eta orlegiak, Siberia'ko zumar (olmo) mueta berebizikoa, eriñotzak, inglandar zumarrak, 35 neurkin goiberako zuzi edo zedro izugarri bat; beste il-zugaitz, zipres, mueta arruntak: pagoak, aretxak, Leyland lurraldeko il-zugaitzak, ezkiak (tiloak) eta sekuoia, lurberako arbola galantenak diranak.

Landare-Baratzaren ondotoxoan Jauregi ezkutu ameslaria bere oian amaigabeaz, bere abere ta egazti jareiekaz. Or dozuez azeriak, orkatz eta basautzak, basurdiak, erbiak, ortz goialdetik zear doazen uso ibiltariak, suge-arranoak, ur-zozo ta sasi-zozo edo mirloak berein eta berein urteetan azke ta jarei bizi izan diranak.

## JAUREGIAREN BARRIZTATZEA

Arriz eta areitz egiñiko aizkolegiko Jauregi onetan talde bi etxegille edo arkitekto ekin eta ekin daragoie. Arritzeko benetan txunditzeko zera da, zelan Jauregiko gizaldi asierako "argi-bateri" naiz tresnerien artoa, oso-osorik iraun-azoten dala egiztatzea. Mende asieran tresneriek urtean urtean 20 egunetan Jauregi etxe osoa argitu oi eben.

Etxepean, 50 milla litro gordetzeko aiñakoa zan uraska aundi batek, ortzetik jausiriko euri garbi onuragarria artez artez artzen eban.

Olan, bai Pedro Ciga Jabea alde batetik, ta baita be bere emaztea Dorotea Fernandez eta serbitzuko amabost otsein-mirabeak bestetik, "aizkolegin" eurak emoniko egun gitxi orretan, ez eben iñolango ur peiturik izaten.

## BESTE ZER AITAGARRI TXUKUNAK

Inguru atzegingarri oneitan iturri ozkirri ta ur-jausiak ezezik be-aldetxoko lats-gardenetan salmoi naiz izokin eta amurrañ ugariak ikuskatu geinkez: ots, ezaguna dan Astorbi izeneko sail-errekan eta itzul-ingurunetako erretenetan. Goialdera igonaz bat, iru begiratoki ezin obeekez aurkitu oi gara. Ez dagoz ez irurak igotze mailla naiz aldatz bardiñetan, jakiña, baiña paradisuako aurrekaldean gagozala dirudi. Ikusmira bakoitza bestalde, tankera txukun eta bestelangoz ereikia dogu. Eurengandik, Bidasoa Ibaia menperatzen da; ta italiatar Aita Santu-ordezko Antoniutti Nunzioak arratsaldeetan, naiz begirategi batetik naiz besteetatik arnas-aldi ta atsedean alaitssuak artu oi zituan.

## "AIZKOLEGI" JAUREGIKO ARMARRI BAKANA

Bertiz'go Jauregiko Armarrari buruz, kondairak batzuen iritxiz esanikoak eta elezar naiz aspaldi bateko ale-

giak bardin, beste batzuen oldosmenai jaramon egitekotan begiztatuz, azalpen bitxiak idoro oi doguz. Zer onek, guztiari oraindiño ezkutu aundiago bat damotso egitan. Armari onetan arrain-andre edo lamiña bat esku baten orrazi bategaz eta bestean antz-ikur edo izpilluaz dagerkigu.

Alegiari jarraibide emonaz, bai-diño itxasotik urtekeran armarrarian agertu oi dan arrain-andrea, aldi areitako errege batek orduko Jauregiko Jabeari eskeiñitako ikurburua zala. Zergaitia, aipaturiko "Aizkolegiko" Jabeak Prantzi aldean erregearen omenezko ekintza diplomatiku, adeitsu ta ezkutzko bat zertu ebalako. Jakintsu batzuk gaiñeratu oi dabe armarriko lamiña au, baso ta aran oneitako lamiñen ordezkaria bezala dala. Ba bertako lamiña oneik zorarazi ta lilluratu ei eben betiko, Pedro Ciga ibiltari aspergaitz eta jatorra.

Egungo egunetan egiñiko lanak be, ez ei dabe galdura-erazi gizaldietan zear toki aparta ta miraritsu onek, aspaldidanik izandako goibeltasuna, bakartadea ta erromantiku-zaletasuna.

## JAZOKIZUN OROIGARRIAK

"Natxo Esquizabal Margines" bizitzalari, biologo ospetsuak, bame-bametik Bertiz Jaubetza ezagutu oi dau, eta Jaubetza oni buruz luzaro samar idatzi be bai. Trebetasun eta teknika bidezko zertzelada jakingarriak ezeze, kondairazkoak be alkartu oi ditu. Ba goaz, nire idazlantxo ontako ekiñaldian, oraintsu aurretiaz esan doguzanak alboratuaz, beste gogoangarri izan leitekezan batzuk irakurleai adieraztera.

Maria Lagundiko lekaime batzuk, Esquizabal Jaunak dirauskunez, joan ei ziran egun izendatu baten, Pedro Ciga'ri Eleizarako lora batzuk eskatzera. Onen erantzuna, bere lorategiren maitasuna ezagutu ondoren, uste doguna izan ei zan. Ez zan ez ifiolaz be bere lora-baratzetik loratxo bat bera be ebagiko. Ori bai, urte areitan ondo zenbartzekoak ziran milla pezeta, emon eutsezan bearrezkoak ebezanak erosteko.

Bertiz'go Jaubetzan, dana, ondo be ondo oldoztuta egoan. Urtegi ta zingiratxoetan, goibera txiki batzuk ikusi leiz. Euren jomuga naiz elburua bitariko dogu. Alde batetik, ur-gaixoak goialdera igoteko erreztasuna izan egien; eta bestetik abereren bat uretara jausten ba'zan, igoteko be zailtasunik aurkitu ez egian. Adan'ek eta Eba'k orreitarikorik izango ete eben atsegin-baratzean? Batek ba-daki!

Jauregiko basoaren sarreran oraindifio be burdin-sare bat dogu, ta bere ondo-ondotoxoan itzaltegi edo gaztelaraz deituriko "glorieta" txukun bat. Gure Pedro Ciga Jaun aipaturikoa, orra sarritan joaten ei zan. Itzaltegi au, ronbo

# ERRIAK

tankerazkoak ziran margodun leiarrekaz orniturik egoan. Orain diñodan zertxo bitxi, bakan au, ei eban alan da be itzaltegi onek. Ots, leiar batetik kanporaldera begiztatzean (izatez izan ala ez), eguna eguzkitsu eta alai agertu oi zan; beste leiar batetik begiratzekotan atan be, eguna zearo, guztiz goibel eta itun, nabaritzen zan.

"Aizkolegi"ko Jauregia ereiki zanean eraikitze-gaiak asto-gaiñetan eroaten ebezan.

Oneitariko asto bat zaaturik egoala, il gura izan eban, eta orduan Pedro Ciga'k asto ori bereganatu eban eta askatasun osos aldamenetako zelaietan bere erara larratzen itzi. Egun baten baiña asto zar onek bertako zingira aundienetako beltxarga edo zisne bat agiñekaz zamatik eldu eta bereala ito eban.

Pedro Ciga Jaunak, izadiaren eta abereen maitale jaioa ta gizadi-ongille zintzoa zanez, beste ainbeste egin eban bere gaztaroko zaldi lerdenak zaartu ziranean. Aipatzera noatzue zaldi onein izenak:

Ots "Salverte" izan zan bata; "Sorcier" bestea ta "Gorringo" irugarrenaren izena. Berebillez ibiltan asi zanean,

alboratu zituan eurak, baiña zaldi-jagoleai agindu zorrotz bat egin eutselako, ondo be ondo zaindurik euren bizitz amaierarte bizi izan ziran. Bertiz'go basoetan be berein katamixar bizi ziran, ta aurreratzen jakezan oroentzat pinpirin eta jolas-zale. Gaiso ezezagun batek oraintsu sunzitu ta desagertu zituan.

Aurrerantzean Bertiz'go paradisua edozeiñek begiztatu al izango dau; ta bertan gaiñera, oraindiño aipatu ez doguzan "Santa Maria" baseliz txiki polita batetik, eta bardin gabaz paitak gordeleku ta abaro bezela idoro daben zingirako ugartetxoa besterik, poztasunez so egin.

Baldintz bakarra alan da bere, Pedro Ciga'k eskatu zituan zertzeladak arduraz eta alik obeen betetutea izango da. Ori berbera eskatu oi dau Naparroa'ko Foru Aldundiak.

1.986/ko. Orrillaren lenenean.

ARREGITAR JOSU



# KONDAIRA

## USTEAK

Gaur goizean lagun bateri itxaroten nagoalarik, atsedan apur bat artzeko aukerea izan dot. Egotaldi txiki onetan, mai-ganean egozan aldizkarien artean bat artu eta irakurten asi naz. Orain urte bi edo iru argitaratua dala oartu naz; bere izenburuaren ondoan 1983 urtea irakurten zan.

Aldizkari au España'ko laterrian guztiz ezaguna da. Bertan, kazetari entzutetsu batek napar historiagille bateri itaunak egiten eutsezan. Ni jakiña, Euskalerraren usain edo antza daukan guztiari begira zuur eta erne egoten naz eta "euskaldun" itza aitatzean (au diñot, bera historiagille bere alkarrizketaren barruan kazetariari erantzuten olan erabatzen zalako, "euskaldun" legez identifikatzen zalako). "Ez naz ezetara be ulergabe sentitzen euskalduna izateagaitik"-iñoan.

Gero, jarraian, Euskalerrian izan diran burrukari buruz, leen izanak eta orain diranak aztertzean, ez dala karlisten burrukarik barrero izango, ezta antzekorik —iñoan— eta Santa Kruzen ekintzak aztertzen edo ikerztean erabillen izkera tekniko eta gogorra irakurtzean, biotzean otzikerea sartzen jatan.

Ez neuke iñoren pentsakerataz ezer esan gura, ez eta gitxiago enparaduen eritxietan sartu. Ni ez naz historiagi-ue eta dakianak, daki. Dana dala, zelan edo alan, bai biotz-bera izan edo idealak sentitzen dabena, olakoak entzunda errukitu leike, eta auxe jatort burura: Zer dakie gizon ospetsu eta jakintsu orreik kaleko gizonaren lan, itxaropen eta buruausteen larritasun eta esturen arloan? Ez dira konturatzen eurek edo eurlakoakaitik ez balitz "euskaldun" izena bera be lurbiratik oraingoz desagerturik egongo zala? Ez diño eurretariok Naparroa ez dala Euskalerria? Orduan, zer dala-ta bere burua euskaldun bezela agertu edo sentitu?

Au diñot, oraintxe amaitu barria Orixe'ren "Santa Kruz apaiza" idaztia irakurrita daukadalako. Jakiña da karlista eta liberalen arteko gudan zer jazo zan eta zelan amaitu zan; baita zelakoak entzun ziran Santa Kruzen ekintzei buruz. Bestalde, Euskalerrian fueroak galdu eta euskal nortasuna lur-jota egoalarik, zelan bada Santa Kruz geldi egotea lortu? Gizajoari kezkok gabetan ez ei eutsen lorik egiten izten. Olan ageri da edo irakurten da idazti onetan.

Orixe'k, liburu onetako itzaurrean liburu au bere aitari eskeintzen deutso eta, antza bere aita karlisten gudean ibi-Ui zan ezkerro —armak artzean Euskalerria burubiotzetan biotzetan eban antzera—, Orixe'k berak be ber-bera izan ebalu lumeari eragitean, eta liburu maite-agiritxo bezela eta begi-onez artzeko diñotso aitari.

Jente askok ez dau olakorik ulertzen, beste mundu baten, beste galaxia baten bizi da. Orregaitik diñot: Errukaria sentipenaren munduan bizi dana!

Oarra: Barrero be, orain gitxi dala, domeka bateko "Deia" egunkarian Xabier Arzalluz'ek "Deia" —opinion— deritxon 16 gn. orrialdean "Armisticios y Pactos" izenburua daualarik lan eder bat aurkezten dau. Bertan, lerro batzutan, Santa Kruzeri buruz azaltzen da, berak Santa Kruzek Primo de Rivera'ri idatzitako berbakaz: —Ni ez nintzan Karlogaitik edo Karlos'en alde burrukan ibilli, ezta Alfonso'ren aurka be. Ni Fueroak eta Jainkoagaitik ibiUi nintzan.

(Jaungoikoa eta Lege Zarra!).

LARRONDO

## KARMEL ERRIA

Washington'en Laterri Alkartueko idaz-gela Erdiko gidaritzan oraintsu arrituta egozan, agerturik ezegoala gidaritzan edo eskutitzen banaketarik California'ko Karmel izeneko errian, Agintariak egon arren orretarako azterletak dirala-ta, erabagi eben Gobernu-gizon bi ara bialdurikoek egiztu egiela an ez egoala karta banatzaillerik (eta ez zituela euki be gura).

Erria, gitxienez, 100 urte atzeraturik dago aldietan" eurek jakinerazo ebenez. Eta txarrago danez (edo onago, nok Jakin) eztau gura XX gizaldira bultzatua izatea."

Baiña Karmel zelan atonduten da karta-banatzaille barik?" Gure Banakolak 5084 daukoz antolaturik, eta erriarrak euren bidaritzan itzi lekie, esan eben.

Norbera bakoitzak artuten dau emen bere bidaritzan erakus-maian. Oartzen dogu beste munduko gizataldeak eztabela ulertzen au, Baiña Karmel'en gagoz, eta orregaitik ez-bardiñak gara".

Erri polit au antxiñakoa da, San Frantzisko'tik 90 milla neurkin sarteldera. Benetan ez bardifia da. Bidaritzan edo karta-banatzaillez ganera, saleroste andiak- lantokiak, egon ta lo egiteko etxeak, kiñu-argiak joan-etorritarako berebilen-tegiak ta onein egoitzaren neurlariak falta jakoz. Guk baiño ardura gitxiagoz bizi dira zentzubako gaurko-keri barik "Iñoan Gunner Norbert, erriko aolkari ardura-dunak. Guk erri ixildun on bat daukogu, anburgeseategi barik zaintzaille barik, arramarra barik, ta txarkeri ta espetxe barik". Karmel'ek es dauko olangorik, ta euki gura be ez".

Guk geure giroan ez daukogu argazkilari, diru-jokolari, lanburuzagien ardurarik. Orrelango norkiren bat ona datorrenean, begia artez ta zoli irabazki andiak egiteko, laster urtetan da erriatik".

Karmel'go oituraezaren beste begitarte bat *neon* argirik erabilten ez itxitea da.

Atzerapide onek eragozpen ugari sortzen dauz 61 jantokietan.

Etxeak ez daukie zenbakirik, bakarrik izenak.

Biztanlien arteko bazkunde batzuk erakunde berarizko bat dabe: The Carmel anti-Growth Movent Karmel eragin azkor edo geikintza aurka.

Erakunde onen lagun-kide ia erriko biztanle guztiak dira.

Karmel itxas basterreko uri bat da, eta bere ondartzak Pazifiko'an entzutentsuak dira.

Ango uritarrak bioztun dagoz tokiak garbi jagoteko, ta bateren batek ez ba'dau gura egon batera garbitasun oitura onegaz, al bait ariñen urten, eragiten jako, oxpa egin dagiala. "Guk aspaldiz erabagi genduan elburu au ta bide lillugarriak jarraiturik gure erria garbi, atsegin ta abegi onekoa daukagu", diño Sheriff Clyde Klauman, 26 urtean ertzain danak. "Emengo biziaren tankereak ezdautsa itxiten gaiztakeriari bere giro adikor egokirik egiten, augaitik, ez dogu eukiten kartzela-bearrik. Errizaiñek ez dabe egiten gau-inguruketarik erri onetan.


Biztanleak ez dabe iskillorik ifioz bear erabilli. Ez daukie oituarik.

Aita Junipero Serra'ri (1713-1784) atsegin izaten jakon Karmel'era etortea. Mixiolari Prantsizkotar Lagundiko ospetsua izan zan. Ez dakit zein España lurraldiko izango zan. Baiña, espazan Euskalerriko a postura baietz bere ondoan euki izan laguntzaille euskaldun mixiolariak.

Amazortzigarren eunkidan Kalifornia'ra Euzkadi'ko artzaiñak an dirua egiten nik uste dot joango zirala. Orduan, Euskal Erriko Mixiolariak, Pantziskanuak, Karmeldarrak, etabaf... zelan ez ziran arein ondora elduko Jesus'en irakatsiak irakasten: ez tala naikoa dirua egintea, ta indiano bat lez biurtu errira, ta an arrokeriz bularrean urregorizko erloju katea alde batetik bestera dingillizka ta espan ganean bobote luze kiskortuaz ibilli auzokoen artean esaten farmazia ezta esan bear, famezia esan bear da; gogo-arimea illezkor daukiela, bizitza onen ostean salbateko Jesukristo'ren Eriotza ta Berbiztuaren irabazkiekin.

Aita Junipero'k irasi eban Karmel erria orain 200 urte baiño geiago dirala. Antxe il zan eta obiratu antxiñako Mixio lurrean, eta an esan dodanez euskotar ta euskaldun mixiolariak aurki egongo ziran. Erreskada dagozan mixiotokiatan, geroago sortuko ziran oraingo uri andi aberatzak ta euskaldun lagunak bateatuko zituen katoliku izenekin, San Diego (Santiago), Los Angeles, jatorriz Reina de los Angeles, San Francisco ta Santa Rosa. Junipero etorriko balitz barrero Karmel'era, ez zan egongo oartu barik bidean: Ondo etorri zaitez etortekotan, ta gure erri ederra poztu egizu, Lagundu gagizuz osterantzean zoaz.

LETONA'K



# ARAZOAK

## KIROLA GAZTEDIAREN GAIZKUNTZA

Une onetan oñoz baiño gazte geiago aurkitzen dira drogabidean sendagille, izparringi, urrutikuskin eta barribide guztiak adierazoten dauskuenez eta geure begiz ikusiten dogunez nai-ta jakitunak izan ez, ez delako ain sailla gazte askori igarriten zein jokera edo biziera darabilen. Leenen edatetxeak zear dabiltzan asko, batzuk arrokeriz da beste asko ez-jakiñagaitik, erdi-jolasean lez edari gogorak edanaz ardauerretu, alkoholizatu, egiten diralako eurak igarri baiño len. Eta, sarri-askotan edari gogor orrekaz batera drogatu, gazte orreik dabiltzan edatetxe asko diralako lizunkeria ta droga-toki egokiak.

Badira orraitioño, zorionez! gazte asko euren aldi azketan kirolen bitartez zintzo zainduten diranak. Geienak jolastutearren, beste asko jolastutearren asi ta ogibidetzaraño, "profesional" izatera eldu ondoren, irabazpide ona dalako ta abar. Orixegaitik, asieran esan dogunean gagoz: kirola izan leitekela gaztediaren gaizkuntza, gauza asko gaitik:

Lenen, edozein kiroletan zerbait izan nai dabenak, soinketa, jinasia egin bear dau zenbat eta ondoago ta geiago, ainbat obeto. Batetik, obeto-erazi edo aziten dalako gaztea, antz oneko soña egiñik, eta, askotaz adimen argiagoa ikasteko ta lanerako osotuz.

Zein motetako kirola egin leiteken? Kirolak danak dira ongarriak; batzuk besteak baiño gogorragoak eta beraz, inder geiago bear dabenak. Bai-ta badira arriskua dabenak be, baiña, dan-danak dabe zerbait ongarri giza-kientzat, notiñentzat.

Egi-egia esateko, lendik emen izan doguzan kirolik geienak egiñak gara, geiago edo gitxiago: Txirrindularitza pizka bat egiñak gara, zetan esan bere ez esku-pelotan nai-ta lester laga izan behar neban neurre lanbidearen kaltegarri zalako. Atsegin jatan ugar, bardin oñezko lasterke-ta eta ostikoketa, futbola, bertoko epaikari edo arbitro

bere ainbat urtetan izanik. Baiña, benetan atsegiñen izan jakuna mendigoizaletasuna izan da, eta dogu, kirol txairo kementsu ori dalako osasungarriena eta, mendi baserri eta orrietako bizitaleen oitura eta bizierak ezagutuaz batera lurraldeak eta alanbere geure Aberria ondo ezagutzeko egokiena dalako.

Eskerrak mendi-zaletasunari ezagutzen dogu Euzkadi guztia, jakiña! azalez, barrenez irakatsi dauskuena egiztuteko;

Gaiñera mendi-zaletasunak, beste kirolak be bai baiña, izakera edo seta lortzen laguntzen dausku, eta ori, gure uste apalean, garrantzizkoa da norberaren joan-etorri guztietarako, bada, izakerarik ez daua gizon emakumea errazago izango da eskukatua (manipulado) seta pizkat daukana baiño.

Gaiñera, sarritan esan oidan lez, gazteak bearrezkoa dau txaranbel bat bere gaztetasunak emoten daua kemen geiegiak iges egin dagitson, gazteleraz esaten dan "valvula de escape" eta, orretarako ez dago ezer ego-kiagorik sarritan esan dogun kirola baiño besterik:

Ainbat izan dira gazte-gaztetatik gaztedia erriketa, politekera sartu nai izan dabenak, baiña, oso gitxi izan dira orretara alderdi politikuetan gazterik sartu diranak. Gure ustez bestela izan bear dau; euzko kirolak, txapelketak eta abar sortuz. Dantzaketak, abestaldiak, zein obeak jarriaz, baiña beti aldi orreitan adierazoten emonaz zeintzuk diran euzko legeak eta eskubideak, aintziñako gure abesti ta oitura garbi zindoak. Eta orretara Euzkadi ezagutuz sortuko litzake euren barrenean, bearkuna aldezteko egarria. Egin daigun alegin guztia geure gaztediaren alde, bera dalako Aberriaren itzaropena.

BASA-JAUN



## ITZULERARIK EZ DAUKAN BIDEZ

Jantzi buruzuridun etsipen ta, naigabez,  
bidean ainbeste uste amets, itxaropen,  
ainbeste gogakizun eder ta, goralgarri,  
betiko ondatu, azpiratu diranarren  
zearo lur jota, buru makur ezin da bizi.  
Batzuetan onuragarria da igaroan  
oiñak ezartzea, lengo alor ta baratzez  
pausoz pauso, "ni zein, ni-norka" barruratzea  
oartzeko nire oraingo ta lengokoan  
"ni" ori, bera ta bat, izan zana auznartzea...

Joan ara ta barruraturik, maitasunez  
abaro orlegietan etzandako abestiak  
daurkikeguz an, euren ezetasun ta, graziz,  
oroitzapenezko sorburu maitagarriak,  
dauzkuenak itzultzen, berein bide bereziz,  
gomutapen pillo bat antxe, abar geldietan  
zibukatzen diran aize-eragin maitezko  
dirdiramen lilluratsu ta amesgarriak.

Sartaldeak, unez une ta, apurka, gero  
ertsi, izten daukuzan bideak, zorigaitzez,  
bein bateko biotzaren gure maite-aroko  
laztandurazko gozotasun, ameskizunak,  
pinpilipaux antzerako soiñeko panpoxez  
egatzen diran igaroaren itzal kutunak.  
Sartaldeak, igarri barik, betti-betiko  
daruazanak itzulerarik ez daukan bidez.

### TXIKITA ASTOTXOA

Txiki nintzan mutil denporetan  
egurrerako, bedarrerako  
edo, beste edozertarako,  
zaldiak ta astoak, bearrezko  
izaten ziran bai, baserrietan,  
nekazari lanak arintzeko;  
astoak bear izaten ziran  
"arre ta iso" agindukeran  
norbera berera ibilteko.

Txikita zan bai gure astoaren  
izena. Txikitatxu polita,  
—asto bizkor, astotxu apala—  
berte lepo edo bizkarrearen  
ganean baserria zeroana,  
ainbat eroate ta ekarteren  
zama astunez, gure Txikita,  
negu gorri ta udako beroaren  
mapilpeko astotxu laztana!

Nire eskupe zebillanean  
basoko bidez edo landaetan,  
nire gogoaren araberean  
artaburutzuren bat nemotsan  
edo, asarra irakiñetan  
zipli-zaplaka astintzen neban,  
—astotxu polit, txiki, laztana—,  
udako egun naiz negukoetan  
neure lamkide etxeko zana!

MUNIATEGI-TAR SABIN ("Nire aintzindar oiartzunak" argitaldu bako liburutik).





# IPUINAK

## GAMEILLU, SORGIN ZIKIÑA

Kale bazterrean, kukuka, sorgin begi okerra, ule luze, nastua bizarra.

Erritarrek "gameillua" esaten deutsoe...

Gameillu onek gaztetxo bat ikusi dau, jatorra, bizkorra, eta deabruaren irri-barrez gaztetxo errubakoari esaten deutso:

—Gura dozu, gaztetxo, aske-libre bizi?

Zoriongaillu au, eutsi!

Onen atsegiñak zainetaraño sartuko jatsuz, eta munduko zorion guztiak zureak izango dozuz.

Gaztetxoak, kuriosidadez, zer ete zan jakin naiez, artu eban... eta sorginkeri guztiak bere zainetako odolean asi jakozan dantzan...

\* \* \*

Gaztetxoa, sorgin-amesetan, "sasi guztien gaiñetik, eta laiño guztien azpitik", egaz aizetan, askatasun errira, iges joan zan.

An, sorgin errian, arrigarriak ikusi ebazan: Urrezko jauregi bikaiñak, esmeraldazko zelai orlegiak, maitasun berba gozoak gaztetxoen ilusiñoak, sirenen kantuak, drogak, dantzak, seksua...

Gura eban guztia ikusi, ikasi eta gozatu eban.

Atsegin-itsasoan murgildurik, gure gaztetxoa egoan zoraturik. Azkenean, berak nai eban askatasuna lortu eban...

Baiña, ames gozo orrek zenbat iraun eutsan?

Berak be ez ekian.

\* \* \*

Ames zoro orretatik itxartu zanean, ostera be gure gaztetxoa, mundu zikin onetan aurkitu zan:

Bere gurasoen menpean, bizitzeko lan egin bearrean, eguneroko bizitza beti berdiñean. Ilusiño bako bizitza nazkagarrian.

Egoak moztutako txoriaren antzera, arrastaka lur astunaren gaiñean. Eta asi zan bizitza gorrotatzen, baita gaurko giuzartea madarikatzen. Mundu nazkagarri, zikin, ihuingarri au, betiko erreko balitz!!!

Iñon pozik ez. Danen aurka. Barruko arra ezin ito...

Bere buruaz nazkatuta, gure gaztetxoa, ostera be, gameilluarengana joan zan, zorion billa.

—"Zer gura dozu"?, itandu eutsan gameilluak infernuko irribarrez.

—Zoriongaillua bear dot. Nire barruan ito-larri ikaragarria sentitzen dot. Droga barik ezin naitete bizi.

—Gazte, zoriongaillu au ez da ain merke

Tailandiaraiño joan bear izaten dot onen eske.

Dirudi ba'dozu erosteko?

—Beti ditua. Diru zikiña.

—Mundu onetan, gaztetxo, diru barik ezer ez dago.

Lapurretan egin bear dozu etxean dirua lortzeko.

—Ez. Olakorik ez. Lotsaz ilgo nintzake.

—Etxean ez bada kanpoan. Diru asko dago bankoan.

Eta gure gaztetxoa lapurretan egitera doa. Nora? Al duan lekura. Droga barik ezin bizi. Gameillua da gaztetxoaren nagusi.

Deabruak arrapatu dau aingerua.

Zapelatzak usoa.

Gure gaztetxo jatorra, errubakoa, ezin bestez, derrigorrez, orain gameilluari lotuta dago drogaren bidez.

—Orain nire esklabo zara. Nik esandakoa egin bearko dozu, nai ta naiez.

Eta sorgin gameillu zikiñak, kate lodi bat gaztetxoari bota eutsan samatik, eta beste lodiago bat oiñetatik.

Eta orain ez da indarrrik, gure gaztetxoa gameilluaren eskuetatik askatu leikenik.

INAKI GOIKOETXEA

## ALDAKETAK ZERGAITIK?

Ezin ulertu dagikedaz Bizkaierari egin dautsoezan aldaketak, oraingo Bizkaiera batua ei da baiña; Zein motako batua da ori?

Bizkaiera batua orretan "H"ak erabili bear dira eta ZER-NORI-NORK aditzetan be DAUTZUT edo DAUTZUE idatzi bearrean DEUTSUT-DEUTSUE eta abar idatzi bear dira.

Ikusten dan lez, DAU, DEU biurtu dabe eta nik zergaitia jakin gura izango neuke. Aditz oneik erabiltean, Bizkaian iru eratan esaten da: DOSTAZU, DAUSTAZU edo DEUSTAZU baiña orreetariko ezagunena eta egokiena edo zuzenagoa DAUSTAZU dala, argi daukagu.

Aditzak aztertzean, "A'Mzka, orain aldiko ezaugarri bat dala, beti irakatsi dauskue eta "E" leen aldiko ezaugarria. Zergaitik ba, DEUSTAZU, DAUSTAZU aditzaren orde?

NORI adierazoteko bardin jazoten jaku, ZURI eta ZUEI bereizatzeko beti, TZU eta TZUE idatzi dogu Bizkaian eta irakasteko askoz errezago azaldu daiteke. Esate baterako:

ZER - NORI - NORK		
DA - U	TZU	T
orain <b>aldia-aditza</b>	<b>zuri</b>	<b>nik</b>
DA - U	TZUE	T
orain <b>aldia-aditza</b>	<b>zuei</b>	<b>nik</b>

Au egin bearrean,... TSO, ...TSU... eta...TSUE sartu dabez eta orregaz ikasleak errez okertu daitekez. Barregarriena, errezatzeko dala diñoela da, baiña esan egizue biotzez: Erreztasunik ikusi dagikezue? Iñun ikusi da errezatzeko "H" pillo bat idazkerean sartu, itz-egitean entzuten ez dan ezker?

Erantzun edo azalpen on bat badaukazue, erantzun egidazue mesedez ostantzean Bizkaierarentzako baldin-

tzakeriak dirala uste izango dot eta olan izango ba'litz izkuntzaren kondairak ez dautzue parkamenik emongo.

Beste "KOTXO" aundi bat sortu jako geure izkuntzari "EUSKAL TELEBISTAKOA" bera. eldu jakunetik Bizkaikoak gero ta zapalduagoak gagoz eta ez bakarrik Bizkaiko barri ta gertakizun oso gitxi emoten dauskuelako.

Itz zikiñak ez ezik, erderakada aundiak be entzuten dira. Lenengoz ez ziran garrantzi aundikoak erriak be olan esateko oitura ebalako baiña erriak be, asko ikasi dagike ikustirratia bidez. Berean osterira irakatsi egin bearrean, gero ta motxago egiten dabe eta orregaz ez dabe Bizkaiera bakarrik minduten, izkuntza bera be, kalte aundia artuten dago.

Orrez gañera, or daukagu gero Xabier Arzalluz Epailaren 23 garreneko DEIAN, orreilako gauzak esaten:

"Euskalerrira itzuli nintzanean izugarrizko iskanbilla topatu nuen... H, bai, H, ez, BATUA edo EUSKAL-KIAK... "Amaika gorroto eta politikatarrean zirala... "Ni ez naiz batuaren aurkakoa, nik Euskaltzaindiari eta euskalkie izugarrizko errespetoa diet... "Gauza bat bakarrik eskatzen det: Neure kaskartasunean, neure modura idazteko eskubidea..."

Baiña gizon! Zer uste dozu guk eskatzen dogula? Eskubide bardiña daukagu ez? Ez da ausarkeri bat izango, zuretzat ori eskatzea eta guretzat ez?

Andik geroago, neuk ikusi dot zure moduan idazteko eskubidea lortu dozula eta orregaitik emon dautzuei eskubide bardiña eskatzen dautset nik guretzat, eta ez bakarrik geure esakera dalako, erriko, eder, zuzen eta jatorra dalako baiño.

PALMIK

## ELERTIA

# MANU SOTA ABURTO, OLERKARI (1897-1979)

Bilboko andikien artekoa. Sir Ramon Sota'ren semea. Gudu aurrean Bizkaia'n eta gero Biarritz'en euskeraren onerako ainbat lan egiña. Gerra aurretik, 1932'an, Tolosa'n, Lopez-Mendizabal'en irarkolan ateraten asi-barri zan "Antzerti" illerokoak, bere leenengo zenbakian, Cocteau deitzen dautso Manu Sota-ri. "Onela deitu genezaioke —diño— Sota Aburto idazleari. Antzerkirako doai berezia du, ta euskeraz idazten dan ezkeru, ez dezala aztu gure Antzertitxoa". Euskaldun barria, garai aretan gure izkuntza ikasiz, euskerazko lan motzak, laburrak, olerkiak eta, "Euzkadi"-n argitaratzen euskuzana.

**Bizltza.**—Bizkaiko itxas-egalean, Ondarreta'n jaio zan 1897-VII-29'an. Ikasketak egitean eta gero, gai guztietatik elertia, literatura eban begikoen, arimea suspertute beteten eutsona. Laster asi zan idazten or-emengo aldizkarietan, erderaz batez be. Abetzale zintzoa bait zan, euskal gaiak urratu ta arnas-aunditu euskazan ele bietan, Tolosa'ko "Pyrenaica", "Euzkadi", "Euzkerea" ta olakoetan idatzirik.

Primo de Rivera'ren agintaldian ixillik egon bearra izan ba eben be, inguruko iraultz-indarren eraso zala-ta, jausi zanean, iñundiko antzerki ta teatru zaletasuna sortu zan Euskalerrri osoan. Antzerkia, izan be, adierazle bizia da, jolas antzera, entzule-ikusleen biotzondoa ikutu ta samur-erazteko; "zentzun guztien bidez sartzen da antzerki-gaia giza soñean, gogoraño elduaz" esan euskun norbaitek. Egokia, egia esan, erri-maitasuna zabal-azteko. Eta ortan arduratuko jaku Manu Sota, ainbat antzerki-lan oreturik.

Guda aurreko urteetan M. Sota izan zan teatru-lanen zuzendari ta bultzatzaile, Bizkai aldean batez be, antzetzalde errime sutsuak sortu-azorik. Gudaldian 1937'an, Biarritz'era aldatu zan, eta antxe itxas-gaifiek bere egoitza atsegifian bizi izan zan oraintsu arte. Ez geldi gero, euskereari ta euskal gauzai oso-osorik emona baiño. Ni, 1953'en, olerki billa mugaz andik ibilli nintzanean, oso maitekor artu ninduan bere jauregian, bere euskal liburuak arakatzeko bereziki, erreztasun osoa emonaz.

Lapurdi ta inguruetan ospatzen ziran euskal jai guztietan parte artzen ebana genduan: baita Lourdes'ko beilari guztiakaz artu-emon estua urteetan izan be. Gero esango dogunez, euskal idazleen lanak aztertu ta aztertu, lan ikaragarria burutu eban egundo be aspertu barik, geroago

azalduko zan "Diccionario de Autoridades de la Lengua Vasca", amar-amabi bat tomoko iztegi arnas aundikoa.

Manu Sota ao-eder genduan esaten eta luma gozo idazten. Garai aretako gerrak, ostera, erditik itoa itxi eban bilbotar gaztearen idazle atsa; baiña barruan daroaguna gairatik astindu eziña dan ezkeru, M. Sota'k be, naiz eta ixil samar, bere idazarloari muzin egin bage, ikerketari ekiñik, lan oso baliotsua burutu euskun.

Azken urteotan Bilbo'ra itzulirik, bertan il zan 1979-XII-16'an. Euskaltzaindikoa.

**Idazle.**—Idazle oso ugarria ez, baiña bai naiko oparoa izan jakun M. Sota. Antzerki-lanak dauz geienbat eskiñi euskuzunak. Ona emen sail bat, neure "Euskal Literatura"-an (V-garren alea) datorrenez; M. Sota-k erderaz idatzi ta, euskeratuak, gure errietan askotan emondako lanak dituzu.

1. *Negarrez igaro zan atsoa* (La vieja que paso llorando). Lauaxeta'k euskeraz jarria diño "Antzerti"-k. 1932'ko jorrailaren 17'an Durango'n Kirikiño'ren omenez egiñiko goratzarre egunean bertoko neska-mutillak emon eban. Baita Zarautz'en be orrillaren 7'an, Algorta'n garagrillean eta abar.

2. *Iru gudari*. 1933'an, Bermeo'ko "Antzoki Barri"-ri lan auxe anteztuz emon jakon asiera, geroz be erriz erri bala-bala ibillia.

3. *Libe*. Arana-Goiri'k gure Aberria jasotearren, gai askori ikutu egin eutson, izkuntza, edesti, erriketa, legedi, antzerki... "Libe" erti-gaia be Bizkaiko kondaira zati bati begira asmatua dau; Arana'k erdi-amaitua itxi eban lana M. Sota'k osatu eban, gero ainbat lekutan antzetzutu izana. Onela *Antzerti*% 1934'ko epaillaren 3'an Bilbon lenengoz "Oldargi" taldeak aurkeztu ebanean: "Bost ekitalditan zatitua dago "Libe", zein bafio zein ikusgarriagoak. Antzekizuna atsegiñago izatearren, tarteka-marteka eresi abestuek entzun erazten dizkigute. Irugarren ekitaldian berriz dantzaldi polita, ezteidantza albokarien soñuaz joa. Anitz antzetzalari bear dituan antzerkia degu "Libe"; taldeka. Antzez-lagun nagusiaz gafiera, erri-gizonak, aldun, gudari, sal-erosle, itxastari, ander, muti... Orrenbesterafio-ko giza-taldeai igitu ta erakutsi araztea ez da errez".

•4. *Buruzagiak* (Los Caudillos). P. Pearse irlandatar martiriak ingeleraz osotu eban (The Singer) antzerkia,

# ELERTIA

izen, toki, notin eta gaiñerakoai euskal tankera erantsiz Sota'k erderara itzuli ta J. Altuna'k euskeraz jarria. Atal batekoa.

5. *Gosemin eta Azken ordua* (La ultima hora). 1934'an argitara emonak; atal bakarreko antzerki bi dozuz. Erderaz dagozan arren, gaurko euskaldunen kezka buruz taiutuak. Sota'ren lanik eldu sakonenak, kritikariaren ustez.

6. *Urretxindorra*. 1935'ko agorraren 14'an, Portugalete'ko antzokian emona.

7. *Itxaro-itxarra*. Antzerki au Bergara'n antzeztu eben "Oldargi" taldekoak, 1930'en Eusko-Ikaskuntzak eraturiko euskal jaietan; gero, Durango'n Kirikiño'ren omenez egiñikoetan bardin, eta Lekeitio'n 1931'gerren urtearen azkenerantz.

8. *Siaska onduan* eta *Estropadiak* be bereak ditu, "Oldargi" taldeak Berengeren egunetan antzeztuak.

9. *Oztin* (1932). Altuna'k euskeraz.

10. *Iztegia. Diccionario de Retana de Autoridades de la Lengua vasca* deritxena. Lau ale "La Gran Enciclopedia Vasca"-k emonak, eta beste lau beintzat irarkolako gertu. Iker-lan izugarria, azken berrogei urteotako lanaren frutua, gizaseme langille ixil batek eta ekin osotu dauskuna. Azken argitalpenetan P. Lafitte ta L. Akesolo'ren laguntza izan dau.

**Olerkari.**—Itzez eta lumaz adierazo ebanez, eder-zale fiña zan. Or daukaguz lekuko lez aren teatru-saioak, irudiz ta gaiez eta metaforaz ondo apainduak, eta biotz-zauskada sotillez bero-bero.

Nik, urteak dirala, an eta emengo olerkiakaz "Milla Euskalk Olerki Eder" liburua leiartu benanean, Sota eta Aburto'tar Imanol'en poesi-lan bat be batu ta sartu neban bildume orretan; 716'garren orrialdean datorrena, "Tis-tas eta din-dan". Geroztik Enbeita'tar Kepa, Muxika'ko Urretxindorraren bertsoak eta Lauaxeta'ren olerkiak batzean, konturatu izan naz beste sei bat be argitaratu ebazala "Euzkadi" egunerokoan. Euskeraz ikasten ebillela

idatzi ta Lauaxeta'k, ikuturen batzuk, eginda, argitaratzen eutsozan.

Sagar-ale bat sarri naikoa izaten da dalako sagarondoak zelakoak emongo dabezan jakiteko. Eutsi zuri be, irakurle, batxo au eta zeuk ikusi zelako olerkaria genduan Manu Sota. "Tis-tas eta din-dan" deritxona bera dozu.

Gau ixillean,  
oldarrak arrapatzen gabeukatza dua,  
armarmasare bat legez.  
Tis-tas. tis-tas,  
Aldiaren biotza betikoz, andeatuten dago.  
Gabegaz itzaltsu zan ogokian,  
din-dan bat entzuten zan tis-tas aren esneurkiñagaz;  
seaska ankatxuak ziran,  
izaki barri bat eruan aziten.

Orain, ogokia bardin dago, eta bardin gabaukiak;  
baña seaska-ankatxuak mututu dira;  
din-dan, din-dan, abots itunagaz,  
bere abestia, bein, amaitu eban.

Beian ixiltasuna eguan,  
bafia goian -tis-tas, tis-tas- gabeukatza jarraitu eba.  
oldarrak jositen betitasunaren soiñazkian.

Tis-tas, tis-tas, beti jarraitu dabe  
ziztadak gabean.


Seaskeak, uts ta mutura,  
atsedenakin nekatuta, ortzeri diñotso:

"Barriz ibili gura dot;  
gogo bat barriz gura dot, bizitz-ziar eruan dagidantzat".  
Eta arratsalde batean,  
seaska kulunkatuten asi zan,  
bere ankatxuakin egiten, oso alai, din-danakadak.

Baña axian dagon tis-tasa,  
itun aztaltxukin orma baltza ganian dabil,  
bizitz barriari oldarrak ostuten dagualako.

Itz ez-ezagun batzuk: oldar (momentu), gubeoketz (erloju), ermarmasare (amareun-sere), andeatu (agortu), ogoki (gela), esneurkin (konpasa), eztaltxu (ointxo).

AITA ONAINDIA



# IPUINAK

## AMESETAN

Gaur gabaz amesetan egin dot; zuzenean kontatzera-koan izpillu baten aurrean edo irudimenean ikusi ba'neu legez (ametsa irudimena ete dan ez dakit baiña) esatera noatzue.

"Mutilla buru-soilla zan, ulea sustraietaraiño ebagita eban. Geroago, buruan uleak ebazan. Oneik (uleak) ondo orraztuta, ez luze, ez labur; belarrien ertzetan "patillak" modara jarrita, labur eta nasai mozturik ebazan, azkenengo modara auxe be.

"Etzan mutikoa baltzaranezi ezta ule-argiduna be, gaztaiña-koloredun eban ulea; begiak barriz, urdin-urdiñak ebazan eta auxe, karateristika auxe zan (begi urdiñak) argitasun lako bat emoten eutsana.

"Bere jokerea, azaletik begiratu ezker, nasaia, zindoa emoten eban, azalez jakiña; baleiteke barrutik ikusita beste gauza bat izan eitekeana. Iñoren barrukorik jakitea gatxa izaten ei da; mutil oneri, oster, beingo baten edo beintzat neiko argi eta laster bere asmoak zelakoak ziran igerten jakon. Iribarrea ia beti eban aurpegian.

"Gero, eskuetan ebala eta neuk ikusita, karatula edo katamalo antzeko bat egiten ebillan. Etzan karatula normal bat, edo beintzat zentzun onegaz esaten dana edo esan leitekena, txapel baten antzera ulearen drdez kendu eta ipiñi aal izateko batelakoa baiño. Buruan ipiñi edo jantzi ezker, ulea eroian; kendu edo erantzieran burua soil-soillik agertzen eban, orreek "guru" edo indiatar, soiñeko zuri luzedun batzuk darabilen antzera. Berba baten esanda, nik "karatula" izenez diñotsadana edo esaten deitsodana burutik kendu edo erantzieran, buru soillez edo moztuta geratzen zan'. Aren itxurea! Barriro jazten ebanean, uledun biurtzen zan. Ule ta guztiko mutil normala".

Ametsaren mamiña azaldurik, nire eritxia auxe da: Azpikeriaren irudia ageri dala. Katamaloa edo ule-ordea

buruan ezarri eta mutil zintzo-zintzoa emoten dau. Aurpegian iribarre gozoa darabil, uleak ondo edo normalki orraztuta daukaz eta gizonaren zeaztasuna, personarik arruntena bezala, ezetariko arazorik erakutsi barik eta zintzotasuna agerian daukala. Iribarreak, biotz ona, barru garbia erakusten daualakoa, edo. Gizon siñezkoa dirudi.

Katamaloa edo ule-ordea kentzean baiña, ulearen soiltasunak edo buru-soilla eroateak, personaiari beste nortasun bat emoten deutso. Iribarrea, oster, azpikeriz eginda legez edo zeozer eskutatzen daualakoa, bearbada.

Nire zirrada (inpresioa) azaltzeko "guru" edo indiatar soiñeko zuri luzedun personaiak aitatu dodaz. Bai, benetan sortaldeko personaiok, begi luzengadun, aurpegi orizkak, begirada sakondun personaiok, txikiaroan beldur, itzala emon eusten; orain, beldurrez ez ba'da be, errespetoz, begirunez begiratzen dodaz, irudimenean jakiña, baiña baleiteke nire barru-buruan be, antxiñeko itzalaren lorratzen bat aurkitzea.

Zer esatea gura ete eban amets arek?

Bearbada munduan dabillen atzipena eta gazteak oraingo egoeran zelako arriskua dauken eziketa maillan, gauzak edo ikasketak txartzat artu eta bide orretatik ibilli leitekezela-edo. Dana kolore politakaz dagola aurkezturik baiña barruan azi txarra egotea ba leitekela; zintzotasunaren zalantza eta oker ikastea.

Dana dala, ez orain nire leptik barrerik egin gero, amesetan nagola mozorroz jantzita edo mamuz burua estaldurik mutiko bat ikusi dodalako. Ipuin bat, besterik ez da. Ba-leiteke baiña, lurbira onetan jenterik neikoa mozorroz jantzita edo zerbaitez estaldurik ete dabillen bearrezkoa dala itaun egitea.

LARRONDO

## ZER 100 ZENBAKIRA ELDU

### Goiria

Nork esango eban! Bere jaiotza, bere sortzea atzo izan zala dirudi. *ZER* ez da zarra, ez da antxiñakoa; alan-da, be, asko ibillia da, lan andia egindakoa, garaipen andi ta garrantzitsuak lortutakoa.

*Mutiko* andi, sendo ta errimea eginda agertzen iaku; itxaropenez eta asmo barriakaz. Bere ametsa, amets txalagarri ta goragarria, bete dau agindu eban lez: bizkaiera zaindu; bizkaiera indartu, bizkaiera zabaldu. Mamuak, mamu ikaragarriak, mamu indartsuak eta ausartsuak agertu iakozan bizkai-euskalkiari bere inguruan, bere etxebarruan; il egin gura eben; lenbailen betiko lurperatu. Zorionez danak ez izan arerioak; asko ta asko bere alde jarri ziran beingoan. Euskerari bere adarrik ederrenetari-koa moztu ta ebagi? Makaldu? Indargetu? Il-zorian jarri?

Asarre bizian jarri ziran bere alde egozanak\* eta gogotsu ta itxaropentsu aUkartu ta *ZER* sortu-eben.

Arrera ona izan eban *ZER*'ek batez be Bizkaian. Alde guztietan zabaldu eutsoezan ateak. Eta gaur mardul-mardul dakusgu; geroago ta errimeagoa, sendoagoa. Eta pozgarriena dana; begirunea, itzala dautsoe danak. Orain-diño ate batzuk itxi egiten iakoz, etxakoz zabaltzen; baiña unerik txarrena ioan iako, aiendu iako; ekaitza urrindu da ta aurrera egitea ez dautsoela ukatuko ta galerazo dirudi.

Bizkaiko baserrietako mutikotxuak eta neskatotxuak euren euskera entzutea gura dau Zerek ikastoletara lenen-

goz ioan daitezenean; eta geroago gazteak, elduak eta zarrak izatera eldu daitezenean euren aitu ta ulertzen daben euskera entzun, mintzatu, irakurri ta idatzi.

Lan ederra egin dau Zer aldizkariak euskeraren alde, batez be bizkaieraren alde. Idazle trebeak, argiak, on-onak daukoz bai berba lauz, eta bai bertsoz. Aldizkaririk onenetarikoak, mamitsuenetarikoak dogu gaur. Eta au pozgarri da euskeldun danentzat, batez be bizkaitarrentzat. Ez da baztertu bear euskalkirik, ez da ebagi bear euskeraren adar-orririk. Bearrezkoak eta aberastasun, -iturri dira danak. Au dala-ta bakotxak, lurralde bakotxak indartu ta zabaldu egin bear dau bere izkelkia. Aberatsagoa, mardulagoa, indartsuagoa, geureagoa izango da Euskera.

Zorionak *ZER*. Zorionak gogo-gogoz. *Morroso* eginda dakustat. *Gizon* eginda naizta gaztetxo izan. Jaio intzanean ire ondoan nintzoan iri laguntzen. Ire ondoan *mutikotxu* intzanean. Ire ondoan *morroso* ta *gizon* intzanean, eta ire ondoan izango nok beti.

Aurrera *ZER* maite. Aurrera. Eragozpenak izango dozak bizi azan bitartean. Arerioak izango dozak kanpoan eta etxe-barruan. I aurrera. Emen gaiagozak gu iri laguntzeko prest.

Iraupenak garaipena esan gura iok. Aurrera!

### Malte dot Euzkadi

Maite dot nik Euzkadi  
aspaldi batetik,  
maite dot nik Euzkadi  
txiki-txikitatik;  
maite dot nik Euskadi  
iaio nintzanetik,  
euskaldunok ez dogu  
beste Aberririk,  
ez doguz Aberritzat  
España ez Frantzirik.

Gaurko sozialistak  
Uceden antzera,  
ukatu gura dabe  
gura izakera;  
Auxe izan da beti  
Españan jokera,  
baifia ez dogu ifioiz  
egingo atzera,  
Euzkadi askatzeko  
leiatsu aurrera.

Esnatu ta zutundu  
euzkotar anaia,  
zaindu dagigun danok  
gure Aberria;  
Jainkoak emondako  
sorterri maitia,  
ez daitela beragaz  
jabetu etsaia,  
askoz oba litzake  
betiko iltia.

# ERRIAK

## ARETXABALETA

Leniz'ko bigarren erri nagusia, Arrasate'n ostein. Une onetan 6.300 bizilagun inguru daukoz.

1946'garreneko urtetik onantz, bertako biztanleak, IRU bider geitu dira; orrek esan nai dau, jente asko etorri dala kanpotik edo erbestetik, sasoi onetan, lanpostu asko sortu diralako bertan.

Askeneko ogeitamar urtetan etxe asko barriak eraiki dira eta lengo kale bakarra, bitan biurtu be bai.

Aretxabaleta itxas-azaletik 841 neurkin itxasgoi dago; bere Errialdeko IRI-BURUTIK 83 Km inguru.

Toki orretako lenengo eleizea BEDARIETA izan zan; basterraldeko eleiza zarrena, ta bere tokia izan zan orain erriko ILLERRIA dagon tokian.

Aretxabaletako lurak, Leniz'ko lauenak dira, ta lur onak, errezak lana egiteko ta orregaitik, oraintsu artean, bertako jentea, lugiñak edo nekazariak ziran, baña orain jente gitxik lan egiten soloetan, lur geienak zelai dagoz, abereentzako bedarra ugari eukiteko.

Lenagoko denboretan ez egoan OLA bat baiño eta bera zan su-biztuteko edo poxopollo OLA.

Joan dan mende erdi inguruan orretaiko OLA bi eukazan eta 1790'an 1860 biztanle, Arrasate'k baiño 972 gitxiago.

### UR-BUSTIALDEKO ETXEA

Leniz'ko lurak oso onak dira UR-GORRIETAN ta bai metal-uretan be UR-METALETAN.

Edonun dagoz iturriak MOTA askotako urakaz.

Edozein TXOKOTAN aurkitzen dira iturri oneik, ur garbi ta osasuntsuak andik igaroten danari eskeintzen.

Aretxabaletako lur barruetan gitxienez IRU SULFU-ROSA UR ikusten dira.

Orretaiko bat erri barruan aurkitzen zan lenago eta denbora askotan izan zan UR-BUSTIALDIAK artzen jente asko etorten zan tokia. Toki orreri: BAINU-ETXEA deitzen jakon.

Udan urrundik etorten ziran jente diruduna, ta erriarentzat oso mezedegarria izaten zan, diru asko gelditzen zalako bertan eta jente edo gazte askori lan zamurra emoten eutselako.

Gero Baiñu etxe ori, bizileku biurtu zan, orain dagon bezela.

Bestea, Eskoriatza'ko lurretan, lekai-etxea izan da 1960 inguruan lurreratu edo eratxi eben, IKASTETXE barri-barria egiteko.

### GALARTZA'KO ZAINZAILLE ETXEA

Aretxabaleta'ko Udal-barruan aurkitzen dira ETXE BI ZAINZAILLEAK edo erderaz "CASA FUERTE".

Bata Galartza'ko auzoan eta bestea Aozara'koan.

Biak antzerakoak dira eta itxuria dagon lez, gitxi gorabera sasoi inguruan eginda. Euren egikera edo tankera ROMANIKO transiziokoa da.

Edestiak ez dausku esaten garbitasun aundirik, baiña begiratu ezkerro bien TANKERA, bildur barik esan geinke dirala bostgarren edo seigarren mendekoak.

Erroma'ko mutil-gudariak edo GUDALOSTEAK makaldu ziranean, Europa-Erdian egon ziran geldi, BILDURREZ, ikusi ebenean euren baiño gitxiago zirala Erromatarrek, orduan, ERRI-BASATI BATZUK ori ikusi ebenean Europa'ko sartaldera, eta Espafia'ko iparraldetik sartu ziran.

Erri orreik ziran HUNOAK, Sueboak, Alanoak eta Bandaloak.

Esaten eben onein aurrean jarten zana, dana austura izten ebela.

HUNOEN Buruzagiagaitik esaten eben: Bere zaldia- ren oiñak zapaltzen eben tokian ez zala bedarrik geiago sorten.

Orren bildurragaz ERAIKITA dagoz ETXE GOGOR ONEIK.

### GALARTZA'KO ETXEA

Mendi tontortxo baten eraikita dago, oso toki onean. Bertatik inguru guztia ondo ZAINDU leike ta orduko su-izkilluz oindiño obeto.

Oraintsuko gudoztean be an egon ziran sei illebetean zirkiñik egin barik etxeari, nai ta AMABOSTEKO lerkai-Uuak bota bertara.

Orain bere ondoan Galartzako eleiza polita dago, askoz be geroago jasota. Oraingo LERKAILLU bateren baten gogor joten ez badau, an egongo da beste gizaldi batzuetan be.

Nik ezagutzen dodan denboran beintzat, Irurogei urte onetan, bardin samar dago. Bai barrua eta bai kanpoa.

### AOZARA'KO ETXEA

Au be Galartza'koaren antzera eta denbora bardiñean jasota dago. Oraintsu-arte etxe onçtan baserritar edo nekazari batzuk bizi izan dira. Orain ogeien bat urte ARRASATE'ko Alkarte edo Bazkunak erosi eban etxe ori, euren moskin edo onerako.

Zer esanik ez dago; bizileku orrek beste ITXURA bat artu dauela eta esan geinke gaur egun. JAUREGIETXE BAT DALA. eta alantxe da.

Kanpotik eta barrutik GUZTIZ BARRIZTUTA itzi dabe; baifia lengo ERA edo, IRUDIA itxita.



# ERRIAK

Etxe-ingurua zelai ipiñi dabe, zugatzez beterik, urieta-ko ZUGATZ-BARATZ bat lez; jarlekuak ugari, lorategiak eta abar.

Baiña barruan dago zer ikusi aundia: Areto itzalak aundiak txikiak jentea artzeko, batzarrak egiteko, gelak ikasteko, ikasgelak, klaseak emoteko.

Baita badago sukaldea aurrerapen aundienakin gertatuta, jantokiak be bai ugari, Garageak be bai, ta lo egiteko gela ederrak.

Ikusi barik ezin leiteke esan zer dan edo zelan dagon.

## ZERTARAKO DAGO ETXE ORI AN

Orain EUN inguru gizon JAKITUN, inguruko ZOLIENAK, aurkitzen dira an. Onein mezua zein dan?

ARRASATE'ko Bazkunak bialduta dagoz eta bertan bizi dira, iru illebetan eta emen egiten dira IKERKETA edo aurrerapenak gero eroateko euren lantokietara; ta onelan gure Mondragon'neko Cooperatiba ori, ez da geldituko atzera.

Orregaitik da aurrenengoa ez emen bakarrik, baita mundu-zabalean be.

Bertan egiten dira SALGAI geienak, eta etorten diranak, antxe aurkitzen dabe OSTATU ONENA ta egokie-na.

Mundu zabaleko jentea etorten da ara bakoitza bere zeregiñak beteten.

Azatzako goi-zelai edo lautarak beste itxura bat artu dau. Orain jenteak be bakoitzak bere etxea ondu egin dau, ta orrelan lautara orretan esan geinke etxe geienak barriak dirala.

Zergaitik ori? Euskaldunok NOBERAGANAKO MAITETASUN aundia zelan daukagun, ezin dabe aldamenekoa ondo ikusi eta berea ez.

Onelan bakoitzak bere aldetik, alkarren leian, alegiña egiten dau besteak baiño itxura txarragoa ez eukiteko.

Jauregi etxe onen izena OTALA da.

## URKULUKO UR-BILTZA

Goi-zelai edo lautaran aurreratxoago joan da, aurkitzen da Urkolako Urbiltza ederra.

Ori egin zanean Goranata'ko erria erdia iruntzi eban urak bere sabelean. Len baserri-etxe bikañak, orain uren azpian dagoz.

Batzuei kalte gogorra egin eutsen, baiña orain jentea pozik dago. Kutxebarri'ko ur garbi, eder eta kutxadurabakoak, prest dagoz eguneru 45.000 biztale laguneri-egarria kentzeko, pozoin-bildur barik.

Aretxabaleta, Arrasate, Ezkoria eta aurrerago Bergara eta Oñateri bialduko dautse ur bizi-bizi ori.

Eguraldi ona dagonean atsegingarria da inguru aretara igon ta egoera edo bira bat egitea. Igande goizetan alata-be.

Arrasate'tik Kanpantzarrera joaten da jentea, aize garbia artzen eta Aretxabaleta'tik UR-BIL inguru orretara.

Eta nun toki kutunagorik? Eguzki ederra, aize garbia, ur ederrak bustialdi bat artzeko eta gero kerizpe ederrak baskari edo askari ederrak egiteko piñu artean edo beste zugatz batzuen azpian bero dagonean. . .

An inguruan aurkitzen da Jatetxe bat, bere izena "MATIKO", sabela ondo beteteko, edozein orduan, toki egokia ta orain samur ez dana, merke.

Ez dago besterik: Joan, ikusi ta gogoia bete. Agur.

ETXEBERRI'TAR ISIDOR

## LENIZ'KO IKASTETXE EDERRA

Leniz'ko bizilagunak ardura aundia izan eben, bertan, IBAR erdi inguruan, IKASTETXE BARRI-BARRI bat euki daitean.

Ipifii eben ERDIAN, danentzako EGOKI egon daiten, mutiltxoak nai oñez, nai txirindularian, nai berebillean samur joan daitezana.

Lenagoko MARIANISTEn lekai zarra bota edo lurre-ratu ostein apur bat gorago, jaso edo ERAIKI eben KOLEGIO edo Ikastetxe barri eder bat, oraingo denboratarako, MODERNUA.

Bertako ZUZENDARIA Marianiste bat da, eta onen menpetasunean 45 IRAKASLE INGURUK emoten dabez ikasketak edo klaseak.

Jentea oso pozik aurkitzen da eta danak dira BAZKIDEAK edo KOOPERATIBIZTAK. Jentea arin edo AURRETIK arduratzen da bere semea denboraz TXANDEA ARTZEKO.

E.G.B. eta MAILLA geiago emoten dabe berton; gertakizun ederra eroaten dabe andik urten eta Arrasateko LANTEGIKO IKASTETXERA joateko. Dana dago mailla onean ipinita.

Unibersitatera joateko be, ondo azi eta ezita dagoz.

Bertako gazteen ETORKIZUNA (porvenir), ortxe dago: Ondo AZI eta EZI ezkerro jentea, BALTZIK onena ori da gazteentzako. Zenbat eta EZI ohea euki gazteak, Ertzain gitxiago bear da, eta bestealdera bardin, Ikusi eizue igitoak, ez dira EZITEN bakoitzak bear dau Ertzain bat ondoan lapurretan ez egiteko.

Bilbon, Uztaillaren 22 an.

ETXEBERRI'TAR ISIDOR

# IPUINAK

## BEN ALI, DIRU GOSE

Ben Ali, jakintzu bezain diruzalea zan.

Orregatik bere auzokoak, dirua beste amesik ez ebalako, "DIRU GOSE" esaten eutsoen.

"Dioruak egiten dau zoriontsu",  
esaten eban sarri Ben Alik...

Jakintzu zan ezkerro, autsez betetako Ejiptoko artxibozar batean, papiro zar-zar bat aurkitu eban.

Faraonen Piramidetako plano "Gutziz Sekreto" bat ikusten zan papiro tximur aretan.

Ben Alik ba ekian, piramiden barruan, antziñateko Faraonen "momiak" egozala gordeta, urrezko jantzi, arma, ontzi, edergaillu, diru eta beste olako gauza eder urrezkoekin pillatura.

Plano aretan argi ikusten zan, non egoan piramiden sarrera ezkutua, nondik norakoak ziran lurpean egozan arrizko galeriak.

Non aurkitzen zan, azkenez, Faraonen urrezko momia.

Zazpi gameillu prestatu ebazan Ben Alik, euren otzarakin, eta bata bestearen buztanari errezkadan lotuz, iñok ez ikusteko, gauerdian, ixil-ixilean, piramidetako bidea artu eban.

Amaikaxo egun luze basamortuan zear egin ondoren, eguzkia goian, eta ondartza kiskalgarria bean, piramidetara eldu zan, azkenean.

Gameilluak piramide aurrean itzita, pozez beterik, planoak gidari, piramide sabelera sartu zan.

Argi zuzia eskuetan, ikaragarrizko galeria estu luzeak igaro ondoren... an, azkenean, piramide biotzean, Faraonen ilobia aurkitu eban. An ikusi ebana ikusita, Ben Alik burua galdu bear eban!

Arrizko gela erdian Faraonen momia egoan, urrez estalduta, eta aren inguruan lurrean, armak, ontziak, diruak, edergailluak... dan danak urrezkoak... Urre gorrizkoak!!!

Tokia illuna izan arren, urrearen diztiraz,  
eguerdi argia zala ematen eban.

Ben Aliren urre-gosea, oraintxe bai asea!!!

Zorroak arin-arin urrez bete zituan, eta lepoan artuta, pozaren pozez, biotza pil-pil, kanpora urten zan.

Baina, zer arraio?

Non dagoz nire gameilluak?

Ben Aliren gameilluak, bere nagusiaren urre goserik ez, eta alde egin eben...

Orain bakarrik zer egin?

Iñoren laguntzarik ezin.

Gaua etorri zan, eta Ben Alik afaririk ez.

Urrengo goizean eguzkia berotzen asi zan, eta zer edanik ez.

Gosea, egarria eta bakartadea,  
bata ez bestea baiño obea.

Ben Aliren begiak asi ziran zorabiatzen, eta gorputza makaltzen. Urre zorroen gaiñean jesarrita, urrutira begira jarri zan, iñondik ifiongo laguntzarik etorriko eta jakon, itxaropenean.

Alako batean, beduino pobre bat ikusi eban kantu eta txistu, gameillu makal baten gaiñean, beragana etorten.

Salbatuta egoan.

—"Egun on, gizon", agurtu eban pozik Ben Alik.

—"Baita zuri be, Jaun dotore", erantzun eutsan gameillu gaiñekoak.

—"Edateko zerbait ba-dozu? Egarriak itoten nau".

Beduino pobreak urrezko zorroai begiratu ondoren:

—Bai, Jauna... baiña desertuan ura, urrea da.

—Baiña nik ez daukat urrerik, zuri emotekorik.

—Ala bada nik be ez urik, edatekorik.

Ben Ali jakintsuak beduino pobreak ura kendu gura eutsan, ala bearrez, baiña indarririk ez.

— Emoidazu ogi zati bat jateko, mesedez, ilten nago-ta gosez.

—Nire lagun, jokatu daigun bardinbidez:

Nik zuri ogia eta zuk niri urrea.

—Baiña nik ez daukat urrerik.

—Ala bada nik be ez ogirik.

Eta beduino pobrea, bere gameillu makal gaiñean, kantuan eta txistuka, aurrera joan zan.

Eta Ben Ali aberatsa, bere urrezko zorro gaiñean, gosez eta egarriz, bere zekenkariagatik, il zan.

Egia bazan, ez bazan, niri olakorik ez esan.

GOIKOETXEA'TAR INAKI



## LIBURUAK

# BORDAZURI

Idazlea ZUBIRI'tar Iñaki (Euskerazaintzakoa).  
Idazpurua: BORDAZURI.  
Irarkola: I. BOAN, S. A. Bilbao.  
Urtea: 1986.

Aurten Zubiri'tar Iñaki Idazleak liburu barri bat idatzi ta eskuratu dausku: BORDAZURI.

Liburua irakurriz, laster konturatuko da irakurlea idazlearen elburua zein dan: Euskerearen eta Euskalerriarren maitasuna sortu ta zabaldu, oraingo onetan Naparroaren egoera kontuan artu eta eskualde onetako euskaltasuna be agertzeko garari biziagaz.

Udatzi dauz gure Zubiri'k beste liburu batzuk be, elburua antzekoa dala baiña bideak beste batzuk dirala. Olerkiak, antzerkiak eta elebarriak.

Elburu ori lortzeko, Yon Ander norki nagusia artu dau bide lez eta gaiñera bera da izan be elebarrian berba egiten dauana edo edeslaria.

### SENDI-GIROA

Euskalerriarren oiñarria, sendia edo onen ordeiz eta ize-nean etxeko Jauna izan dirala, guztiok dakigu eta orreregaitik Elebarri onetan be oiñarria sendia da: Aitita goratzen da, aita erriagaitik nekeak igaro dauzan gizon zintzoa da eta Yon Ander bera nekezaria, gudari gaztea eta aitaren lekuan etxeko Jauna.

Sendi-giro onetan guda-aldian eta aurrean eta osiean gure sendiak igaro dabezan egun garratz eta illunak zeaztuten dira.

### Naparroa

Elebarrian zelan edo alan Euskalerra osoa agertu gura da, baiña geien agertzen diran eskualdeak Naparroa, Gipuzkoa ta Bizkaia dira: Naparroa biziteko, Gipuzkoa igarobide lez eta Bizkaia gudaldiko egunik gogorrenak edesteko, espetxerako bide larriak artzeko.

Naparroan guda-aurrean izan ziran jokabide gogorrak bear dan besteko argitasunaz agertzen dira, baiña euskaldunen ikuspegitik ikusita eta euskaltasuna sortzeko edo zabaltzeko bide batzuk eskintzen dirala.

### GUDA-ARAZOAK

Sarritan entzun doguz gudaldiko jazokizun negargariak, baiña elebarri au irakurten dauanak lengoak argitu eta barriak jakin egingo dauz, batez be gudaldiak Bizkaia'n izan ebazan estualdiak.

Guda-arazoakaz batera espetxekoak be argitasun eta bizitasun bereziaz agertzen dira. Sarritan entzun doguz olako jazokizunak be, baiña elebarri onek egoera ori bizi izaten lagunduko dausku.

Eta espetxearen ondoren larri lez, Gipuzkoan dan "Bideko Zorua"ren edestia benetan gogoangarria da.

### SENDIRA BARRIRO

Guda-ostean, oraindiño epetxetik etorriarentzat giroa naikoa larria dala, Yon Ander'ek bizitza barria asten dau, giro' barrian eta itxaropen barrian. Izan be edeslari ta norki nagusia, gazte adoresua da.

Antxe geratzen da bere Bordazuri maitean bizitza barri orren eskariari erantzuten. Or elebarria zabalik geratzen da eta errez artuko leuke bigarren ekiñaldi bat.

### NORKIAK

Norki asko zeaztuten dira elebarri onetan eta egokiro zeaztu be, baiña erri-arazoak agertzeko bereziak diran iru oneik aitatuko neukez nik, besteak beste: Maisu biurria ta gure jakintzaren arerioa, abade mesedegille ta bere lekuan egoten dakiana eta osagille euskalzale ta mesedegillea. Azkenengo onek bere bizia emon eban gudaldiaren asieran bere errian.

Norkirik geienak erritik artutakoen bizitasuna agiri dabe.

### AZTERPEN LABURRA

Irakurgarria da benetan elebarri au. Irakurleak nekatu barik jarraituko dau azkeneariño aria, Bizkaia'ko euskerea itz egiten badaki beintzat. 422 errialde dira, baiña irakurri ondoren labur eretxiko dautsozu eta jazokizun guztiak argi ta garbi geratuko jatuz buruan.

Bai azalean eta bai barruan irudi alai eta egokiak aurkituko dozuz, irakurketa ori na^aiagoa izan daiten.

Orra or euskal-elertirako ekarperi aundi bat.

OLAZAR'tar MARTIN'ek.

## BARREKA

# BARRE-GAIAK

### GABONETAKO ERREGALOA

Gabonak dira eta Erregenak. Andre Joxepak Oto'ri:  
— Etorri, maitea, zure Gabonetako erregalo arrigarria erakutsiko dautzut. Uri osoan ibillia naiz billatzeko.  
— Ba-inoa, ba-inoa, bereala.  
— Egon apurtxo batean, soñean zein ederto emoten dausten ikusi dagizun...

### ZALDI-LAISTERKETA

Oto'k txartelak erosi ditu zaldi-kinieletakoak eta Lasarte-inguruan zaldi batek esaten dautso.  
—Oto! Lenengo laisterketa-aldian neuk irabaziko dot.  
Oto begira-begira eta zalantzan geratu jako.  
— Arritu egiten al zara izketan egiten deutzu dalako, ala?  
—Ez, ez, orregaitik, ez, zuk lenen aterako zarala sinisten dozulako, baiña.

### AUZOKO ANIXETA

Auzoko Anixeta, atso zaartuak, Pototo'ren dendan sartu eta arratoiak akabatzeko pozoia eskatzen dau. Bigaramonean or datorkio barriro irriparre gozoenarekin, esanez:  
—Parkatu, jauna, emen dakarkizut barriro atzo eroandako pozoia eta emon egidazu dirua.  
— Zer, ba? Arratoiak amaitu dira, ala?  
—Ez, jauna, ez da ori.  
—Zer da ba?  
—Kasualidadez bart il dala, istripu batean, nire senarra...

### OTOTXOREN ALMENDRAK

Gabonak igaro dira umore onean. Turroia be jan dabe nai-koa. Pozik Ototxo eta gaur, barriz, pozago: ez dau ba, kajoi batean, almendraz betetako zorrotxo bat topa...! Au poza!  
—Nun aurkitu dozu? —Amak.  
—Aitetaren gelan.  
—Ai, ene! Ez egizuz jan.  
—Zergaitik ez? Oso gozoak dira.  
—Aitak eroan dauz agiñak konpontzera.  
—Eta zer, gozoak dira-ta!  
—Alicante'ko turroia jan dogula aurtan...  
—Eta, zer...?  
—Ezin dauala jan...  
—Eta, zer...?  
—Miaztu bakarri egiten dauala...  
—Eta, zer...?  
—Ari miazkatzen sobratutako almendrak dirala.  
—Kotxino...!

### OTOTXOREN ATERALDIAK

Ototxo bialdu dau aitak Korreo-bulegora eskutitz bategaz, gizon prestu bateri Gabonetan zorionak emoteko. Zenbaitzue-

kin ondo gelditzea komeni eta marrazki eder-eder bat bialdu dautso. Ofizinakoak mutillari:

—Karta onek pixu geiegi dau eta seillo bat geiago ipiñi bear-ko dautsozu.  
—Pixu geiegi dau?  
—Bai.  
—Eta, orregaitik beste seillu bat ipiñi bear dautso?  
—Bai.  
—Ez al dau orrelan pixu geiago izango...?

### ETXARRI'KO ERA BARRIA

Europar sartu geran ezker, Etxarri'n azoka europearra antolatzea erabagi eben. Ori aurrera eroateko gizon azkar bat fitxatu dabe Udalerako, Pototo jauna.

Pototo komunikabideetako injiniero famatuak, errian ordenamentu barriak ipintzea dau asmo. Erosi ditu kartel-agiri barriak: urdiñak eta gorriak. Sakabanatu ditu erri osoan: emen gorria, an urdiña; an gorria, emen urdiftia... Zoragarri polit. Beste erri bat dirudi.

Azoka egunean estrenatu eben ordenamentu barri ori. Goiz ederra eta egusenti argi epela. Ba-datoz lau aizeetatik automobillak jeneroz beterik.

Oto ere emen da.

Alemania'tik ekarri dauz txarri bereziak: saiatza zur bat geiago dauke eta luzegoak dira ogi gabeko eguna baiña.

—Baiña-diñotsa Pototo jaunak —zelan ekarri dazuz karriak Etxarri'ra mendiak txarritz beteta dagoz eta...?

—Baiña oneik, luzeagoak dira.

—Txarria, laburra ohea, iñoan gure aitona.

Dana dala, txarriak emen dagoz, eta zer ez da errira etorri...! Sekulako azoka ederra.

IUunabarrean asi dira urteteko asmotan berebillak berotzen... Zer arrano gertatzen da emen? Sartu errez sartu dira guztiak; nolanaiko aukerak errian sartzeko; baiña, orain sekulako iskanbilla sortu da.

Otok protesta:

—Sarrerak ugari; urteerarik bat be ez.

IVA kentzeko era ona da ori! Jeneroak sartu eta atera ezin...

### ARGI-MUTILLAK ETA ZUGAITZAK

Ototxo bere aitagaz dabil eta "Lagun" bere txakurrak ankatxoa jaso dau zugaitz-enborraren kontra.

—Aitatxo, zergaitik dira tantai-arbolak ain luzeak.

Otok, txakurrak zer egin dauan ikusita, onelan erantzun dautso.

—Txakurrak ureztatzen dabezelako.

—Orduan ba-dakit zergaitik diran ain luzeak erriko argi-mutillak.

ANES ARRINDA

## LAU URTEKO NEURE IBILLERAK (XVII)

Ta alan nengoala beste albista bat etorri zan batallora: aldra andi batek Gaintxurizketa'ra joan bearko genduala. Ta gu, len Miranda'ra bialtzeko agindua egoanok, antxe tartean sartuta bialdu ginduezan. Olan, Miranda'tik gure deirik baegoan, Gaintxurizketa'n gengozala ta eskuak garbituko zituen.

Ta neguko egun eder baten, an urten genduan lau edo bost kamioitan Gipuzkoa'runtz.

Arizkun'dik urten eta Errazu ta Elizondo'rako bide gurutzean, lenago aitatu ditudan ardandegikoak, joiazan langilleai agur egitera urtenda egozan; antxe alaba polita be. Ta alegindu nintzan nigaz konturatu eitean baiña alperrik, besoak jasota ta didarka giñoiazan danok-eta.

Gaintxurizketa'tik laster Lezo'rako bide-zabalaren gaineko aldean Jaizkibel'en altzoan egoan Arriandi izeneko baserrira lagundi bat eroan ginduezan. An inguruan egoan arri andi bakar bategaz egindakoa ei zan baserri a ta ortik ebala bere izena entzun neban. Ez zan antxiñakoa. Esker eskuma bizitza bi ziran. Ez euken aberatsen antzik. Lur gitxi-edo gu bizi giñan alderdiko etxeko lau mutil gazte Errenderia'ra lanera joaten ziran.

Ara eldu giñanean an ingurukoai etxera osterata bat egiteko gogoia eldu jaken eta sarjentoak baimena emon eutsen, edo emon euskun, bada neuk be arreba ta senideak (aideak) ba-neukazan Donostia'n. Ez dakit jai aurreguna zan ala beste edozein egun; jai aurreguna bazan astelen arterako baimena emon euskun eta beste egun bat bazan biaramon goizera arte. Zana zala, goixean topotik urten eta burdi bidean goruntz baserrira urreratu giñanean, gudariak urten euskun estu-estu; komandantea etorri zala ta lista igarotzean an ez egozanen izenak erantzukin ez ebela izaten eta larri ebiltzala; ta eskutuka gizon zerrendan edo formaziñoiasn sartu ginduezan.

Baimenak, beingoak izan ziran.

Bereala lanera eroan ginduezan. Gure lan tokia Gaintxurizketa gaifia zan, Irun aldekoa. Lan asko eginda egoan orduko. Bide-zabalaren alderdi bietan ametralladorak abiak eta lur azpitik abi arteko bideak. Guda izan ezkerro prantzesari, Irun'dik zear euken sarrerea itxiteko asmoz egindakoak ziran. Gure nagusia zan alferez batek sekula-

ko gorrotua eutsen. "Zelango pozez egongo nintzake emen barruan ametralladoreari eragiñaz prantzesak garbitzen" esan euskun baten, abi aurrean.

Ni andik urte batzutara, ain zuzen be, Ondarrabia'ko irundar neskatilla bategaz ezkondu nintzan eta andik igerotzen garanean, an eta emen sakabanatua sasi ta iragarkiakaz estalduta dagozan guk alperrik (alan obe) egindako abiak non dagozan esaten ibiltzen naz neure andra ta seme-alabai.

Arizkun'en polito gengozan Teodoro ta ni, baiña Gaintxurizketa'n lanean asi bear izan giñan. Alan bere ez luzaro Teodoro. An bere ofizinan sartzea lortu eban.

Eduardo'k be pikutxari ta paleari iges egin al izan eutsan. Donostia ondo ezagutzen eban baten bearra egoan eta bera, ondarrutarra, aurkeztu zan. Josten ikasten Donostia'n luzaro bizitakoa zan. Somunistrokoa egin zan eta egunero joaten zan Donostia'ra kamionetan. Larunbatean ez zan biurtzen lagundira, Donostia'n geratzen zan astelen arte. Iñoiz entzun nebanez, galtza zuriakaz-da, dotore ibiltzen ei zan igande ta jaietan.

Denporeagaz, andik iru-lau illabetera. Arritxulegi'n gengozala, zerbait izan eban geure lagundiko sarjento bategaz. Langille atxillotua ain dotore ezin ikusita-edo, baileren baten beragaz zerbait izanda-edo, aurka jarri jakon asteko sarjentoa (sargento de semana) eta mendira lanera bialdu eban.

Baiña zori onak jarraitzen eutsan Eduardo'ri. Geienez be egun bi edo iru egin zituan lanean. Mendira bialdu ebeanean gure txabolako egin zan eta bat-be uste barik Plana Mayor'erako deia izan eban, jostun. Ta gu lagata an joan zan Oyartzun'era (ala Errenderia'ra?) etxerako eguna eldu jakon arte.

Nik barriz ezin-ta zori txarragoa izan neban Arizkun'dik alde egin neban ezkerro. Teodoro alegindu zan nitzat zerbait on billa baiña, dana alperrik.

Baten alferez barria etorri zan lagundira; ta kontixu asistentea Ibear ebala esan eban ofizinan eta bereala neure izena emon eutsan lengusuak. Baietzean geratu ei zan alfereza ta ori jakin nebanean an nengoan ni noiz deituko eus-

# GUDALDIA

ten, dana begio ta belarri. Mendian lanean nengoala be norbait gure alderuntz etorrela ikusten baneban, adi-adi jartzen nintzakion nitzat zerbait ete ekarren. Baiña egunak joan egunak etorri, ezerezean geratu zan dana.

Astebete inguru igaro zanean biztu aldia izan neban; aztuta egon zala alfereza baiña barriro berba egin ebela nire asistente kontuaz eta deituko eustala. Ta bigarrenez an nengoan ni danai begira zer entzungo. ¡Bai alperrik!

Azkenean beste bat joan asistente. Alferezak niri deitzeko lengusuari agindu eutsanean, naparra zan sarjento bat, Goñi, antxe arkitu ta berak ekarririkio eutsalka asistentea ta Erribera'ko napar mutil bateri deitu eutsan. ¡Agur nite itxaropena!

Geroagokoa, politagoa izan zan oraindik. Orduan Arritxulegi'n gengoan. Teodoro. orduko aske etxera joanda egoan eta Eduardo zan, Plana Mayor'en egoala, nire aldez alegindu zana. Almazenerako bear ei zan bat eta Eduardo'k nigaitik berba eginda egoala ba-nekian, eta zain-zain nengoala noizbait eldu jatan deia: biaramon goizean joan neinteala. Ta biaramonean jagi ta laster kukulmutxu bizarra kentzen niarduela geure txabolan, beko aldetik didarka asi jatan bat.

—Etxaburu, Etxaburu!

—;Que pasa?

-Que no te prepares, que no vas a Renteria.

Gaixotegitik urtendako gipuzkoar mutil gazte bat artu ei eben neutzat zan zeregin aretarako.

Gaintxurizketa'n lenengo illiabete edo bian mezarik ez genduan entzun ez gindezan erobatan-da. Gero, geure tokitik laster, bide-zabal ondoko zelai baten asi ziran geutzat mezea emoten. Lezo'ko bikariuak emoten eta sermoia bere egiten euskun. Ordurarte ez ebala jakin gu meza barik geratzen giñanik esan euskun lenengo sermoian. Ta pazkoazkoa be egin genduan. Orretarako iru eguneko sermoiak euki genduzan Lezo'ko elizan. Autortzak azkenengo arratsaldean egin genduzan. Ni sartu nintzan autorlekuan Zubigar olerkaria zanaren eta Garbizu'tar Tomas gaur eguneko euskal musikariaren anaia zan abadea egoan. Ainbat belarrimotzen artean euskeraz berba egin eutsan bat sartu jakonean poztu egin zan. Ta ez euskalduna bakarrik; euskaltzalea be ba-nintzala ikusi ebanean iaxe zan aljarrei biotzak zabaltzea! Bere abaija Zubigar olerkari lez ezaguna neban eta beste anaia, Tomas, arpegiz be bai ta alantxe esan neutsan.

Ain zuzen be nire lenengo olerkaria izan zan. Amasei, amazpi, amazortzi urte neukazanean egundoi eskuetan olerkari libururik artu barik, ARGIA'REN EGUTEGIA' KO olerki garauak irakurten atseginduten nintzan. Ta antxe egozan Zubigar'en olerkiak. Bere EUSKO YATORRAK KABIAN izenekoa ia buruz be ba-nekian.

Batalloiko nagusiari neure alde berba egitea nai ete neban esan eustan; eta eskerrak emon neutsazan niganako borondate onagaitik, baiña ez nebala nai. Olako kontuak len be aspertuta nengoan. Asistentetza zala-ta jazo jatazan istilluak barriztatzerik ez neban nai.

Teodoro lengusua ez zan autortu, modu aretako autortze ta Jaunartzerik ez ebala nai-ta. Teodoro autortu barik egoala jakin arren, Jaunartzera bialdu nai izan eban sarjentoak, autortu edo ez, ez ebala garrantzirik-eta.

Lenengo Jaunartzea egin ezkeru ordura arte Jauna artu bakoak izango ziran geienak; erregantxea artu ebala ta isekaz berba egiten be ikusi neban bat.

Denpora areitan zerbait jazo jakon gure lagundiko langille bateri. Zerbait esan eban-edo, beintzat, estu artu eben eta bekokitik samara ta belarritik belarrira ulea ondo-ondotik moztuaz gurutzea egin autsen buruan.

Igandea urreratzen egoan eta mutilla geroago ta kexuago, meza ostean komandanteak errebestea igarotzen euskun da. Komandanteak modu aretan ikusi baleu, zegaitik egoan alan itanduko eban eta bildur zan beragaz jasotakoa arek jakitea. Ta jai aurregunez, ulea ebagiteko baimen eske buru makur sarjentoagana joan zan. Baietz erantzun eutsan eta buru soil geratu zan; jeta pozik!

Barakaldo'koa zan mutilla; euskal abizenekoa, baiña "bai" esaten be ez ekian euskeraz. Bizkorra zan berbetan eta ori izan ebala uste dot bere okerra. Orduan ezin esan aitekean zerbait esan eban-edo. Gero aldatu egin jakon zoria. Bere erriko bat etorri zan batalloira ofizial lez eta mendia laga ta beragaz errira jatsi zan.

Gaintxurizketa'n gengoan aldia zan alemandarrak Europa guztia iruntsi bear ebena. Polonia'gazkoa amaitu ebanean onuntz begira ipiñi zituen euren gizon, kañoi ta tankeak eta neke andi barik menderatzen zituen Laterriak. Euren aurreratzeak iñor ez ginduzan poztuten, Europa'ren askatasunaren amaia zan da.

Ipar Amerika zan askatasun zaleen orduko itxaropen bakarra; gorriena be bai, komunistena be bai. Enkartaziñoietakoz gazte batek. Amerika gudan ez zala sartzen ikusirik, esaten eban:

—/Pero que hace America?

Orduan, kapitalistatzat eta erri zapaltzailletzat iñok ez eban joten Amerika, Jakiña, guk nai genduan baizen arin ezin eitekean sartu, gudarako gertu egin bear zan lenengo ta ez zan ori bi edo iru illabetean egiteko kontua.

Baten, ondo gogoratzen naz, egun aretan alemandarrak eun kilometro aurreratu zirala izparringiak ekarri eben. Barri ori danok barrez artu genduan. "Ori da benetan aoa zabaltzea" esaten genduan. Baiña ez zan dana aoa zabaltzea, ez zan dana gezurra. Beintzat ordutik aste asko baiño len gugandik arrabetera eldu zan alemandar gudarostea, Endaia'ra. Ta Deun Kepa arratsaldean ni ikustera etorri ziran nire arreba Rosario ta bere senar Migel'egaz Gaintxurizketa'ko Errekalde izeneko etxearen ondoan bide-zabal gaiñeko zelaian jarrita zerbait janaz gengozala, aurregunez Endaia'ra eldu ziran alemandar gudariak, jeeptan sarturik, euren kapela aurre arroakaz, bide-zabalak batean Donostiaruntz igaroten ziran. jAxe izan zan eten bako igarotea!

Ez ziran ez guzurak aurreragoko asteetan alemandarren aurreratzeaz izparringiak ekarri zituen berriak.

Antxe igaro genduan Aste Santua, Arri Aundi'n eta Gaintxurizketa'ko lanetan. Ez daukat orduko zer kontau andirik. Onako onegaz bai gogoratzen naz. Eguen Santu egunean Papini'ren idazlana irakurri neban LA VOZ DE ESPANA izparringian. Ba-neban Papini'ren entzutea. Gudea asi aurretik neukazan liburu apurren artean Agirre'tar Tomas'en (Barrenso), GAZIGOZOAK neukan. Liburutxo arek beste batzun artean Papini'ren zertxobat dakar. Italiar idazle ospetsu onen beste ezer irakurri barik nengoan eta arrezkero be ez dot irakurri. Donostia'ko izparringiak ekarren bere idazlan a ez jatan atsegin izan. Jesukristo gure Jauna gurutzean josi ebenekoaz idatzita egoan. Ango jendeagaitik txarto esaten egiña zan; buru andiak, sabel andiak, eta ez dakit zer beste olako zirala Jesukristo il ebenak. Idazlan zatarran nitzat, legun urkoaganeko maitetasun bakoa. Jaungoikoaren semea il ebenakaitik be olan ezin berbarik egin daiteke.

An egozan euskaldunak, edo euskotarrak, edo euskal lurreean jaiotakoak, danak nituen lagunak Bilbo inguruan jaiotako euskeraz ez ekienak bere bai. Jakiña, gorria izan zuria izan bardin jakun; baiña baten eurakaz politikea atara genduan eta eztabaidan jardun genduan. Eduardo zan nire aldeko bakarra, nire gogaien aldekoa edo ni lez eusko abertzalkea, baiña bere berbak gitxi laguntzen eusten. Euren artean bat ba-zan euskeraz jakin eta euskal abize-

nak zituana, Josetxu izenekoa. "Pa'I pelo" emongo eustela denporak aldatzen ziranean, esan eustan berak. Baiña ori gora-bera len lez jarraitu genduan edo obeto esateko, denporegaz euren eta nire adiskidetasuna sendotu egin zan.

Lagundia egoan baserrian sarjento mailla arteko gudariak egiten ziran, andik gorakorik ez. Olan, lanera bere soldatu ta sarjentoagaz joaten giñan. Egun baten Sarjentoari oetik jagitea kostau egin-edo, bera barik joan giñan. Ez zan izango lenengoa, ziur. Baiña egun aretan lanean asi giñan orduko, alfereza eldu zan bertara, Sarjentorik arkitu ez ebanean asarratu egin zan; an inguruan iru-lau lagun gengozan eta bat lagundiko baserrira joateko agindu euskun eta bost miñutu barru sarjentoagaz an egon bear giñala. Andik, Ilbistieta baserri ondolik Arriandi'ra osterea egiteko, nire ustez, Arruiz'ko Txikia'k be ia ordu laurden bear dau, ta iñor ez giñan aurreratzen. Orduan gero-ta asarretuago joian eta iñork zirkiñik egiten ez ebanean neu aurreratu nintzan. Mendiz joan bear zan ta zati bat aldatz apurra zan. Ta puts otsean niñoiala, bide erdian sarjentoagaz tope egin neban. Ta biurtu giñan. Ez dakit euren artean zelan konpondu ziran.

Beste baten be neuk nai barik olako kontuan nastau nintzan. Baiña orduan Arritxulegi'n zan.

Amar neurkin inguru goragotik, onil (enbudo) antzeko olez egindako batetik lur eta arri jaurtiten eben bagoneta gurdira. Gu bekoak giñan, gurdia erabiltekoak.

Baten, ain zuzen, geure komendantea aurrean egoala, nik ez dakit zelan, goitik jausita-edo, palea arkitu zan bagoneta barruan. Goikoak ez ziran konturatu orregaz eta jarraitu egin eben arri ta abar jaurtiten. Pala a andik atarateko ezer egin ez gendualako, asarratu egin zan komandantea. Ori egin al izateko, geratu egin bear ziran lenengo goikoak. Ta denporaz goikoai geratzeko agindu ez geuntsalako, orduan lana geratu barik paleas atara bear zala ta zarataka asi jakun. Iñor ez zan ausartzen ara urreratzen, bada arriak ikaragarritzko danbarradea ataraaz bagonetara jausten ziran eta asko salto eginda kanpora be bai. Palea an bagonetan eskutau bear zala ta ataratera iñor ez giñala joaten ikusita zoro baten antzera jarri zan komandantea, ta didarka, goikoai ez geratzeko ta guri, bat, palea ataratera joateko. Ta an be iñok zirkiñik egiten ez ebanean neu ausartu nintzan edo asi nintzan aurrera joaten. Baiña Jaungoikoari eskerrak, konturatu ziran goikoak jazoten zanagaz eta geratu egin ziran ni aurreratzen ikusi ninduean. Bestelan, antxe izango zan nire azkena.



# GUDALDIA

Lenengo denporetan ezin izan nintzan jarri ango jatekoak jaten. Cardeña'n bein be ez neban apaldu ango jatekoagaz. Baiña gero ez zan an nik jango ez neban jatekorik. Ta ori, etxetik asko bialtzen eustela. Nire etxeok eurak aukera andi barik biziko ziran baiña euren seme edo anai bakarrarentzat nunbaitetik ataraten eben. Baten, petroleoagaz kutsutako arroza ekarri eben lagundira. Ez eukan gauza andirik eta nik, neurea ta jan ezin eban lagunarena be jaten neban.

Nik etxeok laguntasun andia izan da bere angoa errez amaitzen banaban, zer esan laguntasun gitxi edo bat-bere ez eben urruneko gizajo askogaitik? Goseak arrakalaten egoten ziran. Eguerdian lana lagateko ordua urreratzen zanean, begirik ez eutsen kentzen jaboari ta onek txistua aora erban orduko, laga atxur, pala edo erabillen tresnea ta biderik laburrenetik, au da, edonundik, algarrerri aurrea

ezin artuta aringa-aringa joaten ziran, goian bageniarduan lanean, mendian beruntz, musturrak apurtu bearrean, bazkaria emoten zan tokira. Ta asko erdi batera elduten ziran da, lerroan jarteko, bata lenago zala ta bestea lenago zala, bultz eta bultz ibilten ziran.

Ta dana, danoi bazkaria emotean ezer geratzen bazan, errengantxea artzeko.

Gu, aringa-aringa areik ikustean barrez egoten gintzaziozan eta iñoiz "triperos" didar batzuk egin bere bai.

jGeuk be euren narruan egon bagiñan, eurak legez jokatu bear!

KAMINAZPI

## Oñatibia'tur Dunixi (G.B.)

Bat-bateko gaitz batek eramanda, bizien arteko mundutik joan zaigu aspaldiko laguna genuen Dunixi. Nork ez du bere aitza Gipuzkoa? Bere lanbidez sendagille edo osagille zana, Oyartzun'en sortutakoa izanik, Gipuzkoa'ko beste muturrean dagon Urretxu'n bizi izan da aspaldi-aspaldian. Bertan ezi du bere sendia eta Urretxu'n izatekoak ditugu gaur arratsaldeko seiretan illetak.

Oyartzungo Oñatibia sendagille zanaren sendikoak danak izan ditugu adiskide, bai Euskalerrian bertan bizi izan geran artean, bai Venezuela'n bizi izan giñanean ere. Sendi ugaria izatez, anaiak banaka-banaka joan zaizkigu, eta beti ildakoen illetetara joatea tokatu zaigu. Paulo apaiza, Joxe, Jon, ta Jesus Mari albaiteruak. -Venezuela'n ildakoak auek-, oraindik bizirik eta

tinko dabilzkigun beste senide eta aaideei gure samin agurra eman nai diegu egunkari onen orrialdeetatik.

Ongi ikasitako euskaldun-fededuna, Ounixi bere ogibideataz ezik, Euskalerraren egoera eta etorkizunetaz zuan izugarritzko kezka. Franko'ren diktadura denboretan bizpairu aldiz giltzapean jaurtia izan zan abertzaleekin isilpean lan egiten zualako. Euskalerraren burujabetzagatik adarrak austen ibiltzen zan gure Dunixi. Arana-Goiri'tar Sabin'ek esandako «gu Euzkadirantz, eta Euzkadi Jaungoikoarentzat» esakizuna egi biurtzearren aalegin guztiak egindako gizona. Bidezko derizkiot Jaunagan atsenden arkitu dezala opa izateal

Euskera eta euskal kultura izan ditu Dunixi zanak bere azken urte auetako buruaustea. Euskeraren gainbera ezin ires-

tea. Euskera zantar zarberritu eta arrotz bat eredutzat ipintzen digutela ikustea. «Euskerazaintza», euskeraren Erri-akademia eratze eta indartzea izan du azkeneko urteetan bere irrika nagusia.

Gaurko Euskalerrian iñori erriak oore ta maitasun zor ba'dio, Dunixi zanari maitasunez eta berotasunez betetako agurra eman bear lioke Urretxu'n gaur. Bere bizitzako biotzeko lagun eta emazte maitekor izandako Arantxa Bagues'eri bejoakio gure dolu-miña ezik, gure maitasunezko itz gartsuena. Agur Dunixi, lagun zar; laister artel

AZURTZA'tarJJ.'k

## "AITZOL" JAUNAREN OMENEZ

Azkanengo gure "ZER" aldizkariaren 99<sup>n</sup> zenbakian, *OMENALDIAK* deritxon atalean, Lauaxeta eta Aitzol'en omenez zenbait egiteko asmotan dabiltzala aituten emoten euskun Altuna'tar Josuk.

Ariztimuño'tar Jose jaunaren erailketaren 50'garren urteurrena dala'ta, "omenaldi maitekor bat" egin bear geunskiola diñosku. Neu be orretantxe nago; bakotxari berea emon bear jako, esaten dogu, eta uste dot eldu dala ordua, Aitzol jaunari biotz-biotzeko omenaldi sutsu bat egiteko zorioneko ordua.

Nik, Jaunari eskerrak, biak ezagutzen nebazan. Aitzol, lenagotik, Seminarioko neure ikastaro urteetatik; eta Lauaxeta gerotxoago, guda-sasoian Eusko-Gudarosteko idazkaritzan alkarregaz lan egiten gendualako. Bera, Argitaldaritzako eta Zabalkundearen (Prensa y Propaganda) buru zan; ni oster, Eusko-Gudarosteko Zuzendari nagosi zan Azkue'tar Erramonen mezulari utsa; baina biekin neukan artu-emon eta zerikusi apurtxo bat, subdiakono nitza-

na baekielako, eta baita be jakitun egozalako, orduan B.B.B.'ko lendakari zan Ajuriagerra'ren gurariz eldu nintzana eurekana.

Lauaxeta'ri, garrantzi aundikoak izan ez arren, zelako-alako omenalditxo batzuk egin jakoz Bizkaian beintzat; baina AitzoPeri ez dot uste ohdiño ezer egin jakonik, ez Bizkaian, ez bertan Gipuzkoan be, nik dakidanez, etxako egin olako omen entzutetsurik.

Nik neuk bizkaitarra izan arren, euskeltzale eta abade modura benetan maite neban Aitzol jauna, eta maitasun orrek eraginda, bera orail eta egun batzuetara, auxe olerkitxo au bialdu neutson Uribitate'tar Ibon'eri gure elantxobetar "OGOÑOPE"ren bitartez, eta an agertu zan, Ibonen aginduz, "EUZKADI" egunkariaren euskal atalean; ez dot uste beste iñun agertu izan danik.

Ona emen gogo onez eta maitasun berroz idatzia, Aitzolen alde:

Irakurri izan dot izparringietan  
ta abertzale diranen arpegieta,  
erail 'dabela,  
ez, kentzearren eukan sakela,  
erail dabela,  
lapur bat izan balitz bezela  
"Aitzol trebia,  
maite ebalako jaiotz orria  
maite ebalako jaiotz erria.

Euzkadiren maitale, eusko jauparia,  
eskier nago lortu dozula aulkia  
donokietan;  
merezi zendun ludi onetan,  
nitzat benetan,  
eusko jakintza mota naikotan  
nagosiena,  
euskeltzale diranen omena  
euskeltzale diranen omena.

Beti izan ei diraz abertzale onak  
Irlanda lur aldeko eleizgizonak;  
baña nik uste,  
ez dirazela gureak beste,  
Aitzolkin naste,  
beti lanean igande ta aste  
Aberri alde,  
euren odola izuri arte,  
euren odola ixuri arte.

Ez deritxat jauna, zure eriotzea  
izango ote jakun aiñ kaltegarria;  
Jainkua lagun,  
eusko zifiopen odolak nainun  
fazistok entzun!  
eraingo deusku jarrai euskaldun  
il arteraño,  
euskotarrago len giñan baño  
euskotarrago len giñan baño

LERTIBE.  
(Amutxategi'tar Andoni)

## EUSKERA ABERASTU

"EDER" itzaz esaldi politak egiten dira:  
EDER = hermoso, bello, guapo (Begientzat).  
EDER = aprecio, agrado, estima... (Biotzarentzat).  
Jaietara etortez erritarren *ederra* irabazi dozu =...has ganado el *aprecio*...  
Zure *ederragatik* egin dot ori = ...lo he hecho *por agradarte*...  
Zu *ez zara ederra* emen = ...*no eres estimado*...  
Mendia *ederrago jat* ondartzat baiño = ...*me gusta mds*...  
Baserri zuriak bai dirala eder bedar orlegia artean!  
Baserri zuriak bai eder emoten dabela bedar orlegi artean!  
Lora orrek bazter orretan *ez dau eder egiten* = ...*no luce*...  
Liburu au *ez jat eder* = ...*no me gusta*...  
Guzurra esatea *ez da eder* —• ...*no estd bien*.  
Ederra egin deutso = Le ha jugado una mala partida.  
Ederra egin dogu! = Buena la hemos hecho!  
Ederrak sakatu dozuz = Que exagerado eres.  
Ederra sartu deusue = Como te han engañado.  
Zozo ederra ta mutil ori! = Que tonto es! Valiente ton-  
to!

### LOGURA

Ze astun dodan neure gorputz au!  
Zartzaroaren nekea ete?  
Pixu gordin onek makurtzen nau,  
Orma zaar, arrakalaz bete.

Kemen-arriak ditut lur jota,  
untzak jan daroastaz ametsak,  
gogo-gelan milla pipi mota,  
kolkoan itxaro erre autsak.

Neure izatearen ertzetik  
kanpoaldean ez ete nago,  
goldeskua artzeko indar barik,  
neuretik gero ta urrunago?

Aaztutze guztien atari,  
ba dot bai nik sarritan logura,  
bein zuloratzeko joanari  
ene etsipen aroen kezura.

Ederrak emon ditu, baita artu be = ha repartido buenas, pero tambien las ha recibido.  
Gizon arroak ez deutso ifiori *eder egiten* = a nadie le *agrada*...  
EDERTU = hermostear, embellecer, adornar, decorar...  
Danok dakizu gure *burua edertzen* = ...*disculpamos*...  
EDERRETSI = tenerlo por hermoso, admirar, apreciar...  
Norbere *burua ederretsi* = ...*vanagloriarse*...  
EDERGAILLU = embellecedor.  
EDERGARRI = adorno, decoracion.  
EDERZALE = artista.  
EDERTI = arte.  
EDERTO = EDERKI = hermosamente, bien.

### ESAERA-ZARRAK

Beleari eder, bere kantua.  
Bai eder, astoa polainakaz! (Arroa dala esateko).  
Galbai ederrenak be urari ezin eutsi.

GOIKOETXEA INAKI

### GU PEKATARIOK

Erneko ete jaku errian,  
iñoiz, bake zurien ogirik,  
ala, gorrotoaren gerrian  
beti izango erio zintzilik?

Izu-labetan poza errea,  
azurgiltzetan kiribildua  
dabilkigu ikara arrea,  
arri loturetatik sartua.

Bor-bor jabilku gogorkeria  
odol gorrien zirlilluetan  
eta akarren zakar gorria  
kanporatzen jaku izerditan.

Aztu egin jaku betirako  
poza ezetu eban euria?  
bake landarak ureztutako  
maitasun lañoen ixuria?

Zenbat zulo t'arrakala dogu!  
Gu bai erri madarikatua.  
Arri mamiñetan dagerkigu  
saitasun ezaren pekatua.

A. BIDAGUREN

## UNAMUNO BAI ALA EZ? (Altuna'tar Josu'ri)

Nire idazlekide ona:

Zuk 1986'ko gargarrillean, aurten eta 99." dan azkenengo zenbakian, "Unamuno'ren Euzkadi'ganako jokabidea" izena emon dautsazun idazlanean, Unamuno'k Euskalerriari gorrotoa eutsola esan dozu eta 1901'ean Euzkadi'ri buruz Bilbo'ko Lora-Jokoetan esan ebazan berbak aitutzen dozuz: "Aldenduz zoazen erria zara, ludiko izareari aurrerapena galazoten dautsazu, joan egin bear zara".

Altuna jauna! Oartu egizu esaldi orreik gazte zala esan ebazala eta Lora-Jokoak ziran ezker, zer esaten eban asko jakin barik edo gogoak bere trebetasunera ekar-teko esango ebazala.

Ba-dakigu, baita, zelango berba eta gogorapen oke-rrak erabilli ebazan gure euskera ederraren arloan, baiña ori bere asarrea agertzeko izan zala kontuizu: Bizkai'ko Erdi-Maillako Ikastegian euskal-irakasle izateko Sabino'k eta Azkue'k geiago egin eutsoelako.

Eta beste alde batetik, gogoratu dagiguzan euskaldunok bere gazte-aldiari buruz beste idazki batzuk, esaterako "Recuerdos de niñez y mecedad", "Mi religion" eta "Mi diario intimo". Liburu oneitan ez dau Euskalerriaren aurka berbatxu bat be esaten, zuzena ez danik eta bai gogorapen eta berba egokiak erlejiño gaiari buruz: Andra Maria'ren alde agertzen dauan aintza ta oneraspen eta zaletasun aundiak, Bernardo Deunarena dirudi eta sarritan onek baiño teoloji-sakontasun geiago dauka.

Gaiñera erdeldunen aurrean iñok ez dau zaindu ta zuritu olerkia Unamuno'k egin dauan bestean.

Eusko'tar agurgarri eta idazle trebe eutzutetsu ta begirunez ikusiak diran, esaterako Trueba. Oneri Madrilen eskiñi ei eutsoen aldi-idazkaritza eta gurago izan ei eban Euzkadi'n, Gernika'n, eginkizun ori egitea. Eta Trueba'ri Santander'eko Menendez Pelayo'k olerkiak iraintzen eutsozan, onek andra pasiega'k Bizkaia'n ganora barik ebiltzala esan ebalako.

Gai oneri buruz entzun dagoigun, entzun, Unamuno'ri: "Ertilariak urrintzeko eztenkada ta irri-mirrien aurrean samindurik aurpegi emon dot eritxi orregaz batera euskal olerkaria "zintzoa" dala diñoalako. Bai, egiz, zintzoa da, zintzotasuna ta sakontasuna bardin dira-ta. Oituraren zuzenbidea, ulermenik eta edertasunik gorengoena da".

Zer gaiego esango dogu Unamuno'ren izena gure artean garbitu ta zuritzeko?

Asko ta asko esan geinke, gai au ugaria dala uste dot. Baiña gaurkoz Bilbo bere Uriari abestia aitatu dogu.

Abesti au Idazlariak Renan'ek Ginebra'ri egin eutsona'gaz alderatu eta Unamuno'rena goi-argitsuagoa dala diño.

Euskotar guztiok ezagutu bear dogu Bilbo dala Euzkadi'n, Katalunia'n Bartzelona dan lez eta berton dago gauza guztien baliotasunaren ardatza. Beraz, Bilbo goraldu-tean Euzkadi goralzten da.

Ona Unamuno'ren goraldiak: "Zu, nire Bilbo, ez zaitue ezagutzen, bai guzurrez iraindu. Ez zaitue maite, bildurra dautzuelako. Zu zara eurentzat ausnartzeko ezkutukia. Zu berbetan laburra, egiteetan luzea, egite askokoa ta isilla zaralako. Isillezko gizaldiak inguratu eban zure euskaldun gogoa eta erri barritsu ta antzerkibidekoak ez dogula ezer egin uste dabe. Ez genduan berba egin gura gauza aldakorak eta ariñak esateko. Zure berbak, Bilbo, egiterakoak dira, ez esaterakoak. Gure antziñako lagun genduan Tirso de Molina'k gure Bizkaia gai lez artu eban ederto esan eban: Onen burdiñaz eta urreaz alaitzen da España."

• Parkatu, Altuna'tar Josu, zugaz eztabaidan sartu izate. Gure idazkietan eztabaida gitxiegi darabilgula euskeraz uste dot eta geiago erabilli bear genduke. Eztabaidea, gizabidez erabiJli ezker, ona izaten da.

LETONA'k

## GUZURTIK ASKO DAGOZ

Emen danak daroe, batera-bestera, erreketako ura euren errotara.

Olan ezin da jakin nork daun errazioia. Bakotxak daki zelan esan historia.

Egia maite daunak, zintzoki badabil, guzurren esan baño, lenago nai dau il.

Onelako gizonak, lurrean dauz gitxi, egon badagoz, gero... Auxe dot eritxi.

Olan dago mundua guzurrez bete. Ta zer egin entzunaz askoran berbea?

Guzurren diñoana ez da fiatega. Guzurren gaur niretzat, biar zuretzako.

Azurbakoa dauka izena mingaiñak. Azur barik, garratzak damoskuz samiñak.

Egiaz dabillana ondo urtengo da. Trumoiaren ondoren dator eguzkia.

Artzain mutiko batek guzurren iñoan: "Artaldean otsoaaa!". Eta ez goan.

Benetan etorrita bardin esan eban. Ez eutsoen siñistu t'ardia eroian.

MAIXUAK esan euskun ikusten dirala, otsoak bildots jantziz. Au, bai, karnabala!

Baita be, esan eban bearko nazala, izan uso antzeko, zintzo ta apala.

Euskaldun barritsuok: GORA EUZKADI, ta euskeraz ez egin, iñoz b'ez iñori?

Orrelako gizonak, erdeldun artean. Ez daiguzan ipiñi euskaldun partean.

Emen zer palta yaku? Egia? Zentzuna? Au bai negargarria ikusten doguna!

Olan egiten daunak dau jantzi bikotxa. Zintzoak izan eta, bakotxa..., bakotxa.

# EUSKEREA

## IDAZLE-BATZARRA

Bizkaieraz idazten daben idazleak Euba'n egin eben batzarraren barri, egin eta gero jakin izan neban.

Iraduz ibilli izan zirean, antza, baten batzuk, batzar a atondu eta egiten.

Batzar ori egiteko zanik ez eban iragarri izan ZER aldizkari onek, nik dakidala, beintzat, eta ez-ta, nik irakurten dodazan beste aldizkari euskeldunak bere. Nok edo nortzuk atondua zatekean, ba?

Izan direanak izan direala, atondu ebenak, ez dira, aurki, euskaltzale sakon-sakonak gu geu betiko euskeltzale ta bizkaierazko elederra bultzatzen eta jasoten, gazte-gaztetan asita ekin izan dautsagunok ez ezagutu izateko. Ala, *santu-santak* dagoz, gure artean bere...?

Batu ta berealaxe egin bere egin ei-eben bizkaierazko idazleen araudia:

Zer dalata alako abazuzia idazle guztieri aitzen emon bagarik?

Benetako erri-euskerea, ta alperreko izki ta abar ontzat artzen ez doguzanen idazkerea, gogoko etxeakeelako-edo? Tamalgarria!

Idazle guztieri dei-egin bagarik egiten dan batzarrak, ez dauko zentzunik ez onurarik, niretzat neuretzat, beintzat. Araudia egitekotan astiz egin eta guztion arten ontzat artu bear da eta ez zeuok, batzarra atondu dozuena, eta beste lau edo bosten artean.

Araudi bateri lotuta egotekoa ni neu enaz, izan, idazleak askatasun osoa bear dauala uste dot-eta; baiña batzar

orretan izan izan ba'nintz, neure eretxiak esateko miiñean ugarrik ez nebala izango, uste dot. Bizkaieraz idazten daben batzun artean bere lorrinkeri asko dabiz, ba, itzetan, aditzetan, joskeran eta abar.

Bizkai'ko euskerearen zalea nazala esan bearrik ez daukat, auxe da neure (geure) euskeltzia-ta, baiña iguiña emon daroast gatz bagarik eta edozelan itz egin eta idazten daben euskereak.

Esanak-esan ez dot uste, ba, igali onik eta ugarririk emon dagikeanik gitxi batzuen asmuz egin daitekezan batzar eta araudiak.

Aldi onetan gitxi-gitxi dira euskeraz ondo idazten daben idazleak eta guztiz urri, bizkaieraz ondo idazten dabenak bere. Urritasun orretan ba-dira baiña, banakatxu bat, ondo, egoki ta ganoraz idatzi daroenak be. Orreik, betiko akatsak zuzentzen alegintzen ez direanak, euskerea ondo menperatzen daben irakurgaietan ikasi-bear asko dauke. Idatzi ta idatzi egin bear da ikasteko, baiña, ugari dira gire artean, idazten zale izanarren, dituen betiko akatsari deusela etxakiñez eta buru-gogor diarduenak.

Guk geuk esku artzeko aukerarik izan ez dogunarren, Bizkai'ko euskerea gaitzesten dabenai aurpegi-emoteko onuragarria izango al-da Euba'n egin izan eben batzar ori.

AURRE-APRAIZ

### BAKARTADEZKO NEKEPEAN

Maitasunik ez gizatasunik sinismenik eztagonean, dana zalantzan,jartzen danean elburu bat ez daukagunean guzur utsez gabiltzanean anaia be ez dazagunean sinismena galdutakoan illunpean sartzen garanean geurekoikeri utsal batean aurkitzen gara bakartadean nor barik ilduraz itunik aurkitzen gara naaspildurik gizarteko lokatz artean amilduta etsipenean Gizona, erri bat ondatuta aul ta makal, endekatuta illik dagoz lizundurapean orrela munduko grinapean buru barik jokutzen danean biotzik eta Jaungoiko barik bat lagunik barik ibiltzan norberazko utsean galdurik... Izateak ez dauka zentzunik, bakartadezko nekepean.

### OIU BAT

Kaleetan oiubat, karraxi itsu bat dabil ots gogorrez ta gorrotoz beterik asarre, aize latzera jazorik amaika ukubil maitasunik ezaren irakindura labe.

Apurtu, apurtu au ta ori be apurtu apurtu bizitzazko bizibide, indarrak; apurtu, apurtu Euzkalerriko bazterrak ta, anai artean lanik-eza sortu.

Apurtu, 'apurtu, erre dana ta kixkaldu gure basoetako piñudi baltzetaraño goitu diran dirubide danak lurreratu.

Apurtu, apurtu ta, ixil-arazi dana Euzkalerriaren izena be, zapaltzeraño Oi gure Ama euskera, Aberri laztana!

MUNIAITEGI-tar SABIN

## EUNGARREN URRATSA

Ez da erreza eungarren aleragiño illero, eten bagarik, aldizkari bat ateratea; gitxiago, barritz, bizkaieraz, etxean asita daukaguzan arerioak izanezkerok.

Ekin eta jardun, benetan euskerea maite dabenen lan eta nekez, aurrera ta aurrera, eragozpen eta ostopo guztiak zapaldu eta ezereztuz, eungarren alera eldu yaku, ba, bizkaiera-zaleak eta baita bizkaitar ez direan askok bere, gogo-gogoko dogun illeroko apain au.

Aitatugarria baizen gorezgarria dogu, izan bere, idazle nekegaitzen laguntasunaz ZER aldizkari au agitaratzeko *Euzkerazaleak* izan dabene gogo, ardurea ta geure berbe-teaganako begiramen eta zaletasuna.

Ez gara ez izparkari (*periodista*) ez liburuak idaztea da gure bizibidea baiña maite-maite dogu euskerea, geure-geurea dogulako eta, besteak beste, geure elederra indartzeko izaten dira gure asti-aldiak, bizkaitarren berbetea birrindartu eta sendatu daiten. Zigur gara, ba, bizkaiera sendatu eta zabalduak beste euskalkieri bere mesede aundia egiten diarduguna.

Ba-dakigu, ondo jakin bere, geure ar-emon guztietan euskereaz baliatzen gareawok, zelango garrantzia daukan norbere amaren altozan asita ikasiriko berbeteak. Barreikarri eretxiko neuskio, nik neuk, beintzat, eta beste askok bere baietz uste dot, auzoko edo erriko norbaitek gipuzkeraz edo lapurderaz itz egingo ba'leust.

Naiz-ta beste izkuntza batzuk bere menperatu izan, norbere-norberea dan izkeran azaltzen da, ba, bakotxa ondoen, errezen eta garbien: Beste izkuntza batzuk buruan izanarren bere, norberea bakar-bakarrik izatzen dogu, ba, gogoan eta ondo ezarrita izan bere.

Ibinagabeitia'tar Andima'k, elatxobetar euskeltzale argia genduanak, gipuzkeraz idazten eban eta auxe esan eroiaztan: "Nik neuk bizkaieraz idazten jarraitu izan ba'neu, asko bere obeto idatzi izango neban..." Damututa egoala uste dot, ba, bizkaitarra izan eta bizkaieraz, bere izkeraz, idazten jarraitu izan eza.

Izkuntzeak, itz, esakera ta beste ezkutu asko izaten dabez eta ume-umetan asita beti erabilli izan daianak baiño ez daroa jakin jatortasunez eta senez erabilten ez idazten. Naiz-ta gipuzkeraz ondo idatzi dala uste izan, bizkaitarrari beti igarten yako ber euskalkia ez darabillana; bardin, edo geiago, beste izkelgietakoeri bere, bizkaieraz idatzi ba'dagie.

Norbere izkelgian idazten da, ba, ondoen, egokien eta mamintsuen; bidezkoa da, izan bere, ba, bizkaitarrak bizkaieraz idaztea eta kiputzak gipuzkeraz.

Baten baiño sarriago entzun izan dautsiet irratikuskiñean, bizkaitar batzuri, or dabillan erdera-euskera lorrin ori egin eziñik, ondo itz egiten dabelakoan. Esan bear dabena ebagi eziñik eta itzak eta abar atondu eziñik ibilli barik, euren euskera jatorrean egingo ba'lebe oba litzake, olangoak, bai euskerearentzat eta baita Euskalerrarentzat

berarentzat bere. Bururik baldin ba'dabe konturatuko dira noz edo noz, euren ganorabakokeriaz.

Izkuntzea ez da, ba, goizerik gabera menperatzen: Euskeldun jaio, euskeldun asi euskeraz esi eta euskerea ezpanetan eta gogoan beti dogunok bere, ba-'dakit zelango eragozpenak izaten doguzan argi ta garbi, irakurleak ondo ulertzeko eran, egoki idazteko.

Aldi onetan, euskereari kalterik andiena egiten diarduenak euskera-gaiztoa baiño ez dakien euskal-sen bagako irakasletzakoak dira, nire eretxiz. Ez itzak noz, nun eta zelan erabilli dakie, ez joskerarik dakie ez aditzak erabilten ez... berba egiten. Eta oneikaz batera, antzekoak alkarte-bidietan diarduen esatariak bere (Ba-dira euskeraz itz egiten tautik bere ez dakien *euskal-irakasleak*).

Dirua irabaztearren bakarrik euskerea *maite* dauan asko sortu izan yakuz, aspaldion, eta onelangoak mesede baiño kalte geiago egiten daragoioe euskereari.

ZER, bizkaierearen alde diarduan aldizkari onuragarri onen inguruan jokatu dogu, ba, aderez, kementsu ta aspertzeke, txakur-amesakaz diarduenai jaramonik egin bagarik, Bizkai'ko erri-euskera bizia sendatzen eta indarbarritzen, erderaz bizi direan *euskalari* batzuen atonketaz lorrindutako euskera gaiztoa indarrez ezarri guraz diarduenen erakunde ta bada-ezpadako euskaltzale guztien aurka.

Bere-berea dauan berba-egikerea itxi ta euskera gaizto eta barreikarri ori erabiltzen ez da iñoz bere auzartuko gure erria, naiz-ta alegin guztiak agin Bizkai'ko euskerearen arerio ganorabako guztiak: Berean jarraituko dau, ba, erriak eta iru-lau etxakin eta buru-beroren ezpanetan itto-ko da zentzun bagako erdera-euskera erkin ori.

Benetako euskaltzaleak baldin ba'gara, bizkaieraz itz egitea, bizkaieraz idaztea ta bizkaiera zabaltzea da, ba, bizkaitarren eginbearra. Bestetara jokutzen dabene bizkaitarrak kalteak-kalte egiten diardue, bai euskereari ta baita Euskalerria'ri bere.

Auxe, benetako euskerazalien aldizkaria, ZER, dogu, ba, bakar-bakarrik, oso-osoan, Bizkai'ko euskerea, *geure euskerea*, zabaltzen zuzperten eta berpizten diarduana, nik dakidala, beintzat. Naiz-ta Bizkai'an eta bizkaitarren tzat jardun izan, beste guztietan sartu dauskue muxturra lorrin-zaleak: batzuetan zuzendarien ardurabakotasunagaitik eta, geienetan, ameskeri ta abertzaletasunik eza-gaitik.

Benetako euskaltzaleak, bereaz ganera, beste euskalkiak ikasten bere alegindu egin bear dau. Auxe genduke, ba, benetako batasunerako biderik egokiena. Gure (?) irra-ti ta irratikuskiñean be bizkaieraz eta gipuzkeraz, (erri-euskeraz) egingo ba'lebe, mesedegarriago litzakeke euskerarentzat: Entzuleak ikasi egingo leukiez eurenak ez direan euskalkiak bere eta ortxik letorkigun batasuna genduke onuragarriena. Erriak ulertzen ez dauan eta entzun

## ZER 100

bere egin gura ez dauan^ izkera zatarrez ekiteak, euskerea berpiztu ez eta erdereari lekua itxi egingo dautso, ba.

Ez gara adorekatuko ez kikilduko, ba, geure Erriaren izan eta izangoaren ezaugarriak argiena ta bearrezkoena dogun ezaugarria, geure erri-euskerea, bizkaierera, euskal-elederraren goirengo maillara jasoteko diarduguzan alegiñetan esamez, ostopo, eragozpen marraxokeri ta are-rioen maltzurkeri guztiagaitik bere.

Aurrera, ba, gogaitu bagarik, bizkaieraren zaleok, benetako erri-euskerea maite dogunok, oraiñarte lez, aldizkari onuragarri au geroago ta ederrago, apaiñago ta irakurgarriago izan daiten.

AURRE-APRAIZtar BALENDIN

**EUSKALERRIAN EUSKERAZ**

**EUSKERAZALEAK**

**1986**

**UDAKO IKASTAROA**

**BIZKAIERAZ**

**IRU MAILA ETA ALKARRIZKETA**

**EGUNAK : ASTELENETIK EGUENARTE**  
**GARAGARRILLAN**

**ORDUAK : ARRATZALDEKO 5'etatik - 7'etara**  
**EDO 7'etatik - 9'etara**

**ORDAÑA : 3.000 peseta.**

**IZENA EMOTeko . TOKIA : EUSKERAZALEAK**  
**COLON DE LARREATEGI, 14 - 2**  
**BILBO.**  
**URRUTIKIÑA 423.93.22**

**CURSILLO DE EUSKERA VIZCAINO. 3 NIVELES Y CONVERSACION**

**DIAS: LUNES A JUEVES - JULIO -**

**HORAS: 5 a 7 ó 7 a 9**

**PRECIO: 3.000 pesetas.**

**INSCRIPCIONES: EUSKERAZALEAK**  
**COLON DE LARREATEGI, 14-2 BILBAO.**  
**TELEFONO 423.93.22**

## IKAS-IBILLALDIA

Gurasoak dira seme-alabak azi ta ezi bear dabezanak. Etxean ikusia ta entzuna, axe geienik ikasia; sukaldea da, beraz, eskolarik egoki onena. Ikastolak eta ikastetxeak ederto dagoz, baiña etxea eskolarik bikaiñena. Nik ezaguna dot famili bat, gurasoak eta iru alabak osotzen dabena, naiz-ta alabak bakotxa bere tokian ikasten jardun, etxean dagozan bitartean, gurasoen altzo guria ikasleku eder dabena. Gai askotaz itz dagie alkarrekin, gauza asko aztertu ta eztabaidatuz; ikasterakoan erne oi jakezan dudak, ezbaiak eta zalantzak, apal ostein batez be, uxatzen alegiñak dagiez, bakotxak, izate barrurik datorkiona, lau ta argi adierazoz.

Ikasmodu onek, jakintzarako iturri jori izanez gaiñ, guraso ta seme-alaben artean konfiantzea sortu daroa, jakitateak alkarren laguntzaz zabalagotuz eta ikastaro amaieran ikas-agiri ta nota obeak lorturik. Era orretan nik ezagun dodan sendian. Eta berez sortzen da gero gazteen ikas-griña eta, urte barruko ekiñaren ezaugarritzat, eskol-agiri ta nota onak ekarte ta gurasoak seme-alaben ekin txalogarri ori saritu nai izatea. Onetan, nik uste, ikasleak ikasten baiño, gurasoak, oneik ikasten erakutsi daben alegiña saritzen, geiago dirala.

Dana dala, nik aitatu nai ez dodan sendikoak gurasoak, euren alabak lortu dabezan ikas-agiriakaz pozik, beste sari batzuen artean, euretatik gura ebenai ibillaldi bat askiñi dautsee, ni ba, uri, bide ta mendi erakusle lez tarteko arturik. Jarri zan eguna, zapatu bat. Naparroa zan gure txango-leku, Baztan aldea. Beste bein be egonak gintzazan Maia'n edo Amaieur'en; baiña orduan, eguraldi ain egokia etzalako, ez genduan argazkirik atera, ezta oraintsu eregitako gomutagaiñu arek lau alderdietan dakazan idazkunak artu be. Orduan egin-eza, oraingoan osotuko.

Goizeko bederatziak lauren gitxiago Zornotza'n autopistan sartu giñanean. Odei zuri-baltzak narras zeruan; euri-antza ekarren itxas-aizeak; baiña etzan tantarik be jausi egun guztian. Barritsu ta pozik, Irun'en gengoan amarrak baiño leen, eta goizegi zala-ta, bazterrak ikusi ta ikasi naian, Ondarribi'rantza artu genduan emen. Itxas ertzeko erri txanbeliñeko portu barriztuan kotxea itxirik, nasa punta-puntako mukulu gaiñetik, Kantauri urdiña, bare-bare, kolore askotako potin, txalupa, ontzi aundi ta txikiak begipe, kresal-sunda erion aize ozkirritan, Euskal-erri alde bietako gozotasuna xurgatu gendun.

Berebillean, ostera be. Ikasgaiak, jakintzari buruzkoak geien bat gure autu-ari. Irun eta Bidasoa'zn beste aldetik Pausu, atzera itxirik, or Bera'n zera gu, Lesaka-rako zubian eta Yantzi'ko Benta barrena, abiada burrundatsuan. Sunbilla'ra orduko, amabiak zirala-ta, gu barriz gose samar, bide egalean ibaira begira, jeteko daroagun amaiketakoa artzea erabagi dogu: ogi-bitarteko gozoa,

frutea ta kafesnea, ogi-ardao ta abarrez apaindua. Ordu Batzutan ez dogu beste ezeran premiñarik.

Aurrera ekiñik, Santeztebe igarotakoan, Gaztelu ta Donamaria: emen itxi bear doguz ainbat liburu pakete, bertoko karmeldar lekaiñeak azal dotorez jantzi dagiezan. Barriro Iruña'rako bidez, NARBARTE, Oieregi, Oronoz ta Bertsi-aranako bide-kurutzea. Ez otx ez bero, eguraldi ederra ibilteko. Irurita, Oarriz, Lekaroz, Elizondo, Elbetea gibel lagarik, Arizkun, Agoten auzune Bozate okertuz, or eskumatik Amaieur ber-bertan; bide estua ba'dau be, erri atsegiña, etxerik geienak armarriz jantzita. Gaintxoan Trinitate baseliza. Emen itxi dogu kotxea. Muiñorantz artuaz, laster gara bizkarrean arrikoskor artetik gora, oroigaiñuaren ondo-ondoan. Laiño moltzo baltzak ingurumari.

Eder izan jake ikasle gazteai Arizkun aldea, eta Agoten istoria. Ederrago oraindik monumentu au: andik eta emendik pelikula luze-luzea atera daotsoe. Berau begiz ta eskuz neurterazten saiatu gara. Oraintsu estreñatua da, esan dodanez, eta egoki dator berau gaintxo onetan: asaben egitsari bikaiñak gogoraztea, beti txalogarri. Iru erri-txo beintzat agiri dira bertotik, Azpilikueta, Arizkun eta Erratzu, eta basetxe zuriak ugari, or-emen sakabanaturik.

Ezpada be arri batez egiña dirudi, gorantz luze doana oiñarri zapal sendo gaineen. Leku sotilla mendiñoaren txuntxurrean, nainundik ikusten dala. Aspaldi bateko gaztelu ospetsuaren zoru gaiñ jasorik dago. Guk jakin-irritsari ezin eutsita, inguru ta abar, dana ikuskatu dogu zeatzc-meatz, erripa, bidetxior, goibe, zugatz, bedar-mota, arri koskor, lueban... dana euskaldun asaba zaaren oroi-arnasa jarioka gaur be. Beian datza ixillik Maia erria; bertako biztanleak, bazkari-izkia egin ondoren, biao-lo bear bada. Lau erbestetar andra-gizon, geu lez ikus-miñez, urreratu jakuz; gero bost-sei neska-mutiko era berean, oroigaiñuari jirabira batzuk egiñez, poz-txilio, barre-zantzo ta abar, lora batzuk be baturik, barriro beerantza.

Gu, bakarrik, nasai, iñoren alamen barik, arri-mokorra urreratu gara ostera be. Gazteetatik bati diñotsat: "Ona papera ta idakortza. Kopia eidazuz, mesedez, monumentuak lau alderdietatik daroazan idazkunak". Orrela dagist esaneko ta alai.

Ego-aldera begira: "Napar Askatasunaren alde, Amayurko lekukarian borroka egin zuten gizonak. Betiko argia. 1522".

Ipar-aldera begira: "Navarra, agradecida, a los postres defensores de la independencia patria. 1522-1922".

Sortaldera begira: "1522. Juan de Orbara, Abad de Urdax, Jaime Velez de Medrano, alcaide del Castillo de Maya, Miguel de Jasso, señor de Xavier, Luis Velez de Medrano. Juan de Jasso, Victor de Mauleon, Juan de Agurre de Echalar. 1922".



# LURRALDEA

Sartaldetik: "A los heroes que el Castillo de Maya pelearon en pro de la Independencia de Navarra. Luz perpetua. 1522".

Buru-makur jatsi gintzazan andik. Beerakoan, aldatz erdira lez, zortzi-amar urteko mutiko aldra bizia idoro gendun bidean, gora igoten. Leena orainaz alkar laztanka.

Bide zabalaera eltzean, ezkerrera jo genduan, Otsondo'rantza. Kotxe barruan giñoazala, eskuman agiri jakun gaztelu-bizkarra, guk begi-ninietan dardar gozoz genkarrena. Mendi, troka ta pagoz ondo aseak Otsondo ta birak; beerantz egiñik, ezkerrera, muiño tarte sakon zulo-gunetsuan Urdazubi, beeratxoago Dant-arinea, eta ona orduko, ezker aldera txartel batek oartzten: "Zugarramurdi'ko Aitzartea". Oindiño berandu ez da-ta, ara goaz. Nik leenago be lau-bost bidar ikusita euki arren, nire iru lagunak ez dira egundo koba-zulo orretan egon, eta ikuskatu nai dabe.

Zugarramurdi erritik metro gitxira, or kobarako atea. Leen ez egoan, baiña urte batzuk dirala toki oneri garrantzi geiago ezarteagaitik, eta Udaletxerako txanpon batzuk batu, zurezko sarrera apaiña ipiñi dautsoe. Naiz-ta aratzen dan jenteak diru pizkat emon bear, itxura ohea dau olan. Iru neskatilla dagoz sarrera zaintzen, gu ara eltzean beintzat, bata errikoa, bestea bizkaitarra (Orozkokoa) ta irugarrena Kanbokoa, azken bioak euskeraz ikasten ara joanak. Guk euskeraz jarduten, antxiña bateko ara urretzen ziran euskaldunak legez.

Nik azkenengoz ikusi nebanetik naiko aldatua dago, mailladiz, bidez, zubiz eta argiz orniduta. Zabal ikaragarria dozu Zugarramurdi'ko kobazulo au; goitik beera ezdauko aitz-negarrik, ez toskarrik; ezta beetik gorako urtantazegiñiko troska ta orratzik be. Erdian zear, sorkaldeketik sartaldera, erreka zatatsua ibilli dabil, alboetako arri-mokor artean eta azkenez zugazño azpitan marmar adigarria biztu-azorik.

Leenago, ta gaur be, ezta gitxik ikusia. Noizik beinka antzetu izan dabez bertan komediak, beerantz goazala eskumatik antzoki itxurako zelaitxo zabala be ba-dauko-ta. Kanpo aldean, naiz beetik gora, gaur egurrezko eskilaretatik gora, naiz goialdetik, errekatxo gaiñean dagon zuba igarorik, areitz-enbor zaar artetik nunbait, gaur solo biurtutako landa batera eltzen da, leenago "Akellarre" deitura. Ementxe izan oi zan antziña sorgin-batzarreko azken-zeremonia, "Aker baltza" gurtzea, au da, deabruari uzkie mun egitea.

Leku ezkututsu ari agur egifiik, etxeruntz artu genduan. Baiña, laurak ziran eta gilborrak gili-gili. Bazkaria, beraz. Erritik urteieran, bide egaleko arezti kerizpetsuan, nasai-nasai, egin genduan bazkari-legea, aragi ta arrautz-opilla, guraiña igali, 'napar gorria, akeita ta koñaka. Zer geiago bear ete' dozu? Ikasi zuk be merke ibiltzen, erbeste-

tarrak egin daroen lez. Izadia izan be, aizez, kantuz eta berdez estalia, jatetxe barru ketsua baiño ohea dozu jateko.

Urdazubi bertan, Otsondo'rako bidean eskumatik. Aurrez aurre dogu Atsular euskal idazle jatorraren jaiotetxea. Ara goaz, ikusgarri baita. Errian, antxiñako Salvatore eliza ta ikastetxearen ondotik itzul-ingurua egiñaz, onuzkoan, ezkerretik Atsular baserrira igon dogu. Atsegin aundiz zainduta dagoz exea ta inguruak, Naparroa'ko Aldundiari esker; "Gero" liburua baizen apain eta jakingarri. Egale-bazterrak arakatu ta miretsi doguz, Sara'ko erretore jakintsu ta euskal idazlari gurena izan genduanaren espirituz eta arnasaz ase-kutsutu nairik.

Laiño-lits narrasak ostera be Otsondo'tik eta Etxalar inguruko mendietatik beera. Gorantz goaz gu, Zugarramurdi, Atsular, sasi-muga ta abar gogoan irauliz. Elizando ta Oronotz bide-kurutzea atzera lagarik, Boneztebe'tik zear, Elgorriaga, Ituren, Zubieta, Ezkurra, Leitza, Berastegi, Berrobi, Ibarra zear, Tolosa'n gara. Donosti-Gasteiz'en erako bidean sartuz, Bentan-Aundi'n, zalantza erne jaku... Eskumatik artuko ete? Bai, eskumatik; itzal urdiñez dagozan bide ez nasaiegietan-gora. Or Algiztur trokan, fabrikak bean eta baserrian erripan; goian, or ezkerretik Beizama'rako bide-kurutzea, arantza doa tarranta bat, jakiz ondo beterik. Bidania eder gaiñeko lauan; Goiatz'erantz ezkerretik eta aurrez aurre Erni, erromarrak iñoiz gugaz burrukatu ziran mendia. Mendarte txikia igarorik, beian aizekin zabal iduri, Errexil zoragarri, landa, zugatz eta basetxe zuriz betea, erdian lez eliza ta etxe-mordoa daualarik.

Eguzkia etzun nairik Izarraitz ezker. Azpeiti laga ta Loiola bertan; larunbata dalako, eta uda-aldia, ba-da jenterik inguruetan, bai santutegi biran, eta bai taberna zuloetan! Azkoiti eder, beti lez. Eta Azkarate gaiña, Madariaga eskumatik dauala. Elgoibar'erako aldatz-beera txirristatsua, ezkerretik Sallobente ballara trokarrua ta aurrez aurre San Migel gaiña ta Arrate. Eibar, Ermu, Zaldibar, Berriz, Durango, Zornotza... Zortzi t'erdietan Larra'n aparta. Gorputz nekatuak ondoren atsendena eskatzen.

Nik iñor aolkuz jaztekotan, ikasleai batez be ibilteko esango neuskioe; ez urruti-zale gero, geure lurra ta bazterrak egiaz ezagutzeko moduan baiño: aurrenik geurea ta gero besteak. Gure alkar-izketak bai sarri txepelak... Ain agertu oi gara ezjakin! Saia gaitzean geurean, euskal lurra, gizona, literatura, lege, kanta ta dantzak... ezagutu ta sakonduz. Labor: zer izan ziran euskaldunak. Gure gurasoak egin ebenetik, pitin bat beintzat guk be egiñik, geurea danari eutsi, geurea dana obetu... Lan bikaiña, benetan, Aberri alde jokatzea!

AITA ONAINDIA

## OMENALDIAK ETA SORGINKERIAK

Aurten omenaldi bi eskiñi daustez. Obeto esanda iru, baiña itxi basterrean irugarrena. Lenakoak esaten ebena: irugarrenean jo dau emen lurra.

Ni ez naz asiko omenaldirik merezi ete neban edo ez barriro eztabaidatzen. Onelako gauzetan edozelako erantzunak, salduta itxi leikie bat bitsez eta aparrez, edo ta ipokresi eta eskar txarrez.

Orretan sartu barik, bitarteko gertaerak esatera nator gaur.

Orrelakoetan, gonbidatzeko agiriak eta abar bialtzen dira. Jakiña, ori ez da gizarteko artu-emonen alderdi bat baiño.

Idazki, tarjeta eta abar txukun egin nai izaten dira. Baiña askotan, sorgiñak oraindik bizi diran lez, sorginkeriak gertaten dira irarkoletan.

Etxean daukat Aldundiak agindutako nire omenaldirako tarjetak zelan urten eben irarkolatik.

Au esaten eban: "euskeraren alde egin^ako lan merita-garriagaitik". Konturatzen? Eginiako eginrfakoren orde.

Ni ez nua esaten egin^ako esaera ori guzurtia izango zanik, baiña zelan bustartu egin^akoa meritagarriagaz?

Orra askotan berba batek, obeto esanda izki bakar batek, zelako nastea sortu leiken.

Beste bat. /fomenaldira gonbidatzen zaituzte adeitsuki, esaten eban. Norbaitek esku leunagaz zoriondu nai izan nindun eta //orreri orrazia sartu eutsan eta or galdu zan.

Izan be Aorek aidean garabiz danok. Batzuk ten eta besteak bultz. Eta ba dirudi gu, kalean gabiltzanok, libreago bizi gareala. Baiña "barruan" gorputz eta arima sartuta dabiltzanak?

Orreiri, itxuraz, geiegizko pekatuak ez dautse kezkarik emoten. Or konpon. Gitxieigizko utsak geiago lotsatuko lituzkela dirudi.

Au idazten nagon egunotan "Deia"n, Jaurilaritzan euskera arloan txapela darabillan bateri, onelako geiegizko batek laban egin dautso: /fastero bide hori egiten. Erderazko semana *aste* ez da ba eta ez *hastel*

Zorionez iztegiara begiratzeko zentzu pixka bat askok daukagu. Berbak zer adierazi nai, alako esan naikoa aurkitu eta emoten alegintzen gara. Baiña, oraintsu, etxe bateko seigarren oiñari buruz, au idatzita ikusi neban: seigarren landarea. Nunbai "sexta planta" euskeratzera iztegiara joan, eta an planta nai eta bedarki lez landare ipini, dana

bat dalakoan, seigarren landarea idatzi eta gaiñera etxe barruko igogaillua artzean, seigarren "landara"ra joango zan nasai eta zabal.

Beste au lez. Euskeraz "manzana de casas" erderazkoa etxadi esanagaz ondo datorke. Baiña idazki baten au be irakurri izan dot: etxe sagarra.

Eta orrelakoak dira gure umiak, errietako umiak euskerarik ez dakiela eta lotsatuten alegintzen diranak. Orrelakoak zenbat? Otzarakadak batzeko aiña.

Guazen omenaldira, aririk eten barik.

Erritar askoren irudimenean zer adierazoten ete dau omenaldi batek?

Aldundikoa egin eta andik egunetara adiskide bat urreratu jatan. Jakiña da gure errian, Kultur Etxearen ardurapean, Ondarroa izeneko urtekaria ataraten asi giñala. Aurten bostgarren urtea. Lagun orrek kezkatu itandu eustan: Zeiñek atara al izango dau aurten Ondarroa aldizkaria?

Esatea lez, zu omendu zaitue ta ez daukazu orretan sartzetik. Edo ta ondarrutarrak esaten dakigun lez, kosteria amaitu dozu. Orain atsedean eta lo.

Bigarren omenaldia Labayrukoak eskiñi eusten Derio'n.

Egun larria euki neban. Etenda nenguan osasunetik. Goizalde larria eta eguerdian be kezkatu nenguan, joan al izango ete nitzan be nire artean zalantzatuten nebala.

Derio'ra eldu eta izerdi otzetan. Adiskide batek ikusi ta... gaixo zagoz? Kolore txarra daukazu. Eta esan bein eta barriro be. Adorea emoten, itxuraz.

A igaro zan eta nun diñosten gabean Frantze'ko Tour'eko etapa irabazi nebala. Kontxo! Bermeorako bidean ete nabil ba?

Ze gertatu zan?

Euskal Telebistak, Derioko omenaldiari buruz nigaz jardunaldia agertu baiño len, Tour'eko etapa irabazi ebanaren goramenak esaten ebillala, nire argazkia ipinita euki eban atzekaldean. Orra ba ni, ia beste omenaldi bat egiteko puntuak irabazten, zaartu ondoren, ia bastoiaren laguntza bear dogunetan, kaltza txikiak jantzi eta errubera biko txirindulan etapak be irabazteko gai. Eta ain zuzen aspaldikdik egunik argalena euki neban egunean, txirindulariak lez "pajara" sartuta euki neban egunean!

Sorginkeririk ez dagola?

AUGUSTIN ZUBIKARAI.

# AURKIBIDEA

## ZER'EKO IDAZLEAK ETA ZENBAKIAK


- Aberkide: 9, 19.  
Asboitiz, Jerardo: 98.  
Agirre, Domingo: 68.  
Agirre, Jon Joseba: 14.  
Agirre, L.: 97.  
Aizpuru, Lontzi: 43, 48.  
A. J.: 11.  
Akesolo Aita: 5, 7, 8, 11, 13, 17, 33, 34, 36, 48, 57, 59, 82.  
Altuna, Josu: 6, 9, 14, 20, 21, 23, 24, 26, 30, 31, 32, 37, 38, 41, 42, 43, 45, 46, 48, 50, 52, 53, 54, 58, 60, 61, 62, 63, 64, 65, 66, 68, 69, 70, 72, 73, 74, 75, 76, 77, 78, 79, 80, 81, 82, 83, 85, 86, 88, 89, 91, 92, 94, 95, 96, 99, 100.  
Amaia: 49, 72.  
Ameslari: 23, 25, 31.  
Amutxategi, Andoni: 56, 100.  
Anboto (Ker.): 57.  
Anton: 1.  
Apaolaza, Agustin: 51.  
Arenaza, Josu: 1, 2, 3, 5, 7, 8, 10, 12, 16, 62, 64, 76.  
Aretxa (Ker.): 53.  
Argintxona, Matai: 68, 73, 74, 75, 77, 81, 82, 84, 85, 88, 92, 95, 96, 100.  
Arostegi, Luis: 39.  
Arranegi, Anes: 65, 74.  
Arregi, Josu: 1, 2, 3, 4, 6, 7, 9, 10, 12, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26, 27, 28, 29, 30, 31, 32, 33, 34, 35, 37, 38, 39, 41, 42, 45, 46, 49, 52, 59, 70, 75, 81, 82, 91, 100.  
Arrinda, Anes: 53, 59, 60, 62, 63, 64, 66, 69, 71, 76, 84, 94, 95, 98, 99, 100.  
Arrinda, Donato: 59.  
A'tar Bi.: 9.  
Aurre-Apraiz, "Aurraitz": 50, 51, 57, 63, 64, 65, 66, 67, 75, 92, 95, 100.  
Atxutegi, Bitor: 5, 6, 7, 9, 10, 11, 12, 15, 41.  
Azpeitia, Gotzon: 12, 13, 14, 16, 17, 18, 24, 26, 33, 37.  
Azpeitia, Julene: 11, 39.  
Azpiri, Joxe Mari: 53.  
Badiola, Imanol: 34.  
Baraiazarra, Luis: 76.  
Barona, Astrid: 35, 37, 38, 42, 47, 48.  
Barturen, Juan Luis: 55.  
Batiz, Bingen gita: 30, 33, 36, 37, 45, 92.  
Beiztegi, Jon: 89.  
Bergaretxe, Jon Joseba: 67, 78, 88.  
Bidaguren Arrien, Anjel: 70, 73, 74, 76, 77, 84, 85, 88, 93, 96, 97, 98, 99, 100.  
Bilbao, Gidor: 45.  
Bilbao, Jon Erramon: 41, 63, 64, 65, 66, 67, 68, 69, 70, 72, 73, 74, 75, 76, 77, 78, 79.  
Bilbao, Martin: 71, 72, 73.  
Bollegi, S. J.: 95.  
Duo, Santiago: 59.  
Egileor, Jon: 81.  
Egiluze: 2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 14, 15, 18, 23, 25, 28, 31, 50, 51, 66, 69, 71, 79, 82, 83, 84, 85, 86, 93, 94, 95, 98.  
Euzkitza, Miren: 26.  
Elexpuru^ Joseba Andoni: 16.  
Elexpuru, Luke: 16.  
Endika: 10, 11, 13, 15, 16, 17, 18, 20, 22, 23, 27, 28, 50, 51.  
Erkiaga, Eusebio: 78.  
Erkoreka, Josu Iñaki: 57, 58.  
Estonba, Manuel: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 20, 21, 22, 23, 24, 26, 27, 28, 29, 30, 31, 32, 33, 36, 38, 40, 42, 44, 46, 49, 54.  
Etxebarria, Isidor: 42, 79, 81, 82, 83, 84, 88, 89, 94, 97, 98, 99, 100.  
Etxebarria, Juan Manuel: 33.  
Etxebarria, P.: 44, 51, 52.  
Euskaldun barri: 3, 4, 19, 20, 21, 24, 29, 35.  
Euskerazaintza: 19.  
Euskerazaleak: 14, 15, 17, 19, 26, 32, 34, 46, 47, 48, 73, 87, 94.  
Ezkubaratz (Ker.): 55.  
Gallastegi, Klaudio: 2, 3, 5, 7, 8, 9, 10, 12, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 24, 25, 26, 27, 28, 31, 33, 34, 35, 37, 38, 40, 41, 42, 43, 44, 45, 46, 47, 48, 49, 50, 53, 58, 59, 60, 62, 63, 64, 65, 66, 68, 69, 70, 71, 72, 75, 82, 85, 86.  
Gamiz: 11, 13, 26, 28, 35, 43, 44, 45.  
Gatardi: 50.  
Gazi-gazak: 9.  
Gaztañaga, Jesus: 73, 74, 75.  
Goikoetxea, Iñaki: 4, 5, 6, 7, 8, 10, 11, 13, 18, 19, 21, 29, 32, 35, 37, 40, 41, 44, 45, 46, 47, 48, 49, 50, 51, 65, 67, 72, 73, 74, 75, 76, 77, 79, 82, 84, 85, 88, 89, 90, 91, 92, 93, 95, 96, 97, 98, 99, 99, 100.

- Goiria: 28, 29, 30, 31, 33, 35, 36, 37, 38, 40, 42, 43, 45, 46, 48, 49, 50, 51, 53, 55, 57, 59, 61, 68, 72, 73, 74, 75, 79, 81, 82, 94, 96, 97, 98, 100.
- Goitarki: 74, 75.
- Gorri: 30, 31, 32, 34, 39, 40, 52, 55, 58, 59, 65, 66, 67, 77.
- Gorrino: 84.
- G. T.: 25.
- Gutierrez Pujana, Itxaso: 83.
- Ibañez, Karlos: 70, 75, 76, 78, 80, 81.
- Ibarra, Bernardo: 21, 22, 23, 24, 25, 26, 27, 28, 34, 48, 51.
- Iruzta, Andoni: 83.
- Itarbe: 25.
- Iturriaga: 56.
- Izaro: 49, 57.
- Jai-jai: 52.
- Jaka: 21.
- J. L.: 7, 22.
- Josu: 41.
- Kamiñazpi: 78, 80, 83, 85, 86, 88, 89, 90, 91, 92, 93, 94, 96, 97, 98, 99, 100.
- Kepa: 7, 54, 89.
- Kerexeta, Jaime: 13, 32, 52, 53, 54, 55, 56, 57, 58, 60, 61, 62, 64, 65, 66, 67, 68, 69, 70, 71, 72, 73, 75, 76, 77, 78, 79, 80, 81, 82, 83, 84, 85, 86, 98, 99, 99, 100.
- Kirikiño: 49.
- Kuikera: 52.
- Landajuela, Andoni: 1, 2, 3, 5, 6, 7, 9, 11, 12, 13, 16, 18, 20, 21, 23, 29, 30, 42, 45, 48, 49, 50, 52, 53, 54, 56, 57, 61, 62.
- Larrondo: 100.
- Latiegi, Bixente: 33, 35, 37, 40, 45, 46, 48, 49, 50, 51, 52, 53, 54, 56, 57, 60, 62, 63, 64, 65, 66, 67, 68, 69, 70, 71, 72, 73, 74, 76, 77, 79, 80, 80, 81, 82, 84, 85, 88, 89, 93, 95, 96, 97, 99.
- Lazkau'ko Anes: 62.
- Legarreta, Josu: 6, 7, 8, 9, 10, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 26, 27, 28.
- Legarreta, Piru: 34, 36, 37, 38, 39, 44, 46, 47, 48, 49, 50, 51, 52, 56, 57, 62, 66.
- Legartza, Joseba: 59, 95.
- Leio: 5.
- Lejartza, Sebastian: 78.
- Lertibe: 20, 60, 75, 100.
- Letona: 1, 2, 3, 6, 7, 12, 14, 17, 18, 21, 22, 23, 24, 25, 26, 27, 28, 30, 31, 33, 35, 37, 38, 40, 41, 42, 43, 46, 47, 48, 50, 51, 53, 58, 61, 63, 64, 65, 66, 67, 68, 69, 71, 72, 73, 74, 75, 77, 81, 82, 84, 85, 86, 91, 92, 93, 94, 95, 96, 97, 98, 99, 100.
- Lontzi: 39, 40, 41, 44.
- Madariaga Anai: 79.
- Maitena (Belaustegigoitia): 15, 22, 30, 39, 50, 53, 56, 59, 60, 62, 68, 73, 76, 79, 80, 96, 99.
- Mallona, Agurtzane: 61.
- Martintxu: 74, 75, 76, 77, 78.
- Martzel Aita: 4.
- Meabe, Miren Agur: 83.
- Mendigana: 21, 24.
- Merino, Palmi: 73, 75, 79, 84, 88, 90, 96.
- Mintxiri: 56.
- Miren: 54.
- Mokorhoa, Juxto Mari: 56.
- Mugarra (Ker.): 58.
- Munegain: 1.
- Muniategi, Asier: 39, 40, 41, 52, 54, 55.
- Muniategi, Sabin: 17, 24, 29, 32, 38, 39, 40, 42, 43, 48, 49, 50, 51, 55, 57, 58, 60, 68, 70, 71, 74, 75, 76, 77, 80, 85, 86, 89, 90, 92, 93, 95, 96, 99, 100.
- Norbait: 10.
- Nortanai: 2.
- Olabarri, Markos: 4, 25, 29.
- Olabarria, Anastasio: 93.
- Olaraz, Martin: 1, 3, 4, 5, 6, 13, 14, 15, 16, 18, 20, 21, 22, 23, 25, 26, 28, 30, 32, 34, 35, 36, 37, 38, 39, 40, 42, 47, 50, 57, 60, 61, 65, 67, 70, 71, 72, 76, 80, 82, 84, 85, 89, 90, 93, 96, 97, 100.
- Oleaga, Karmele: 42, 44.
- O. M.: 11.
- Onaindia Aita: 1, 2, 4, 6, 8, 10, 12, 15, 16, 19, 20, 22, 23, 24, 25, 29, 32, 36, 37, 39, 44, 50, 51, 53, 54, 55, 56, 59, 60, 61, 62, 63, 64, 65, 66, 67, 68, 69, 70, 71, 72, 73, 74, 76, 77, 79, 80, 81, 83, 86, 89, 90, 91, 92, 94, 96, 97, 98, 99, 100.
- Onaindia, Alberto: 36, 55.
- Onintze: 35, 42.
- Oxofiondoko txoria: 14.
- Penades Bilbao, Josu: 59.
- Peña, Xabier: 90, 91.
- Pujana, Basilio: 1, 2.
- Puxana, Pedro: 2, 3, 4, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 15, 16, 17, 44, 70, 71, 72, 87 (osorik).
- Retolaza, Jose Antonio: 84.
- San Nikolas, Iñaki: 29.
- San Sebastian, Jose Mari (Latxaga): 57.
- Solozabal, Paulin: 7, 10, 14, 15, 16, 19, 20, 21, 22, 23, 26, 27, 28, 30, 31, 32, 34, 37, 38, 41, 43, 45, 46, 47, 49, 55, 57, 58, 59, 63, 64, 65, 66, 68, 69, 71, 76, 98.

# AURKIBIDEA

Ume batzuk: Biotza Fradua: 11; Kristina Sardui: 11; Felix Unamuno, Karmentxu Olasolo, Patxi Juaristi, eta Ana Isabel Anitua: 24.  
 Ureta: 83.  
 Uribitarte: 51.  
 Urkiola: 1, 2, 3, 6, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 20, 21, 22, 23, 24, 26, 27, 28, 29, 30, 31, 32, 33, 35, 36, 38, 40, 42, 44, 49, 54.  
 Urkiri, Timota: 65.  
 Urrutia: Ander: 64, 72.  
 U'tar L.: 59.  
 Utarsus: 3, 8, 10, 18, 20, 22, 25, 28, 29, 30, 33, 37, 38, 41, 52, 63, 69, 74, 84, 85, 88, 90.  
 Uxola: 63.  
 Wim Jansen: 12.

X X: 1, 17, 20, 28, 32, 33, 34, 37, 40, 43, 48, 49, 50, 51, 52, 53, 54, 55, 56, 57, 58, 62, 63, 64, 65, 68, 70, 76, 77, 80, 85, 86, 91, 95.  
 Yon: 74.  
 Zabalo, Balendin: 89.  
 Zangroniz: 1, 2, 3, 5, 6, 11, 13, 19, 20, 22, 23, 24, 25, 27, 28, 34.  
 Zapirain, Ramon: 45.  
 Zar-gazte: 21, 24, 25, 27, 31, 33, 37, 43, 46, 47.  
 Zelaia, Adrian: 52.  
 ZER idazkolakoak: zenbaki guztietan.  
 Zubikarai, Augustin: 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 12, 19, 28, 29, 30, 31, 32, 33, 44, 45, 52, 54, 55, 59, 66, 67, 70, 78, 81, 88, 89, 100.  
 Zubikarai, Joseba: 60, 63, 64, 71, 76, 77, 78, 81.  
 Zubiri, Iñaki: 19, 30, 41, 52, 60, 63, 93, 95.



**EUSKERA ABERASTU**

**EGIN**

"EGIN" aditza bere esanietan ain aberatsa dan ezke-  
ro, adibide gitxi batzuk bakarrik agertuko doguz emen.

Egun gitxi *egin* ditu gure artean (Egun gutxi *pasatu* ditu...).

Biar *egin*o ditu 8 urte = Mañana *cumplird*...

Litroak ogei ogerleko *egiten dau* = El litro *vale*...

Burua *egin*o neuke = *apostaria* la cabeza.

Baietz *egin*o neuke = *apostaria* que si.

Egia dala *egin daigun* = *supongamos* que es verdad.

Zoroarena *egin*, illarena *egin* = *fingirse loco, hacerse*  
el muerto.

Zezena datorrenean illarena *egina* bear da.

Aberatsarena *egiten dau* = presume de rico.

Gureak *egin dau* = estamos perdidos.

Ikastera *egin neban* = *intente* aprender.

Diruak asko *egiten dau* = el dinero *influye* mucho.

Gure beiak txala *egin dau*.

Aize-orratzak iparraldera *egiten dau* ... tiende hacia el  
norte.

Erri onetan bizitzera *egin*o da = ...ya se *acostumbra-*  
*rd*...

Gitxik *egin dau* arrapatu ez nauala =... poco *hafalta-*  
*do* para...

Egitea aukan = haberlo hecho!

Biok batera joango garala *egin dogu* = ... hemos con-  
venido en que...

**ESAERA ZARRAK**

Gizonak ekin, baiña Jaungoikoak *egin* = El hombre  
propone, pero Dios dispone.

Erronka andiak, *egintza* txikiaz.

Bat esan, eta bestea *egin*, kontuz orrekin!

*Egin* alak *egin*, beti dago zeregin.

*Egin* baneu, etorri banintz... Balitz'ko erroreak urunik  
ez.

*Egin* lagun deabruari, eta infernua sari.

Diruak ez dau *egiten gizon*.

Prakak ez dabe *egiten gizon*.

Ezin ba'dozu gura dozuna, *egin* al dozuna.

Ezin egiñak, ez dau legerik.

Jaungoikoak *egin*, eta eurak alkarrekin (Dios los cria y  
ellos se juntan).

Jaunkoikak bost atzamarrak desbardiñak *egin* zituan.

Joanean joanean, bide *egiten* da.

Berbetan eder, egiñetan lander.

Ustez eziña, ekiñez egiña.

GOIKOETXEA INAKI

**ZER'EN SENDIKOAI OARRA**

Emen daukazu 100n. ZER, aurrekoak baiño lodiagoa ta ederragoa, zenbaki berezia, dagonillari  
ta irailari dagokiena.

100n. zenbakira eldu al izateak, ospakizun baten alkartuko gaitu: Larra Amorebieta'n, irailaren  
20'an eta goizeko 11'tan.

Eguneko egitaraua au izango da:

11'tan Mezea.

11,30'ean batzarra, Iñaki ZUBIRI'ren itzaldia ZER aztertu, aurrera jarraitzeko bideak artu.

13'etan bazkaria, EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren kontura.

Aurretiaz zenbat maikide izango garan, gitxi gorabeera, jakitea ondo litzake. Orregaitik eskaritxu  
bat *egiten* dautsuegu: Balkaltzera etorteko ustea dozuenak ebagi egizue orri onen barreneko txartela eta  
bialdu zuzenbide onetara:

Olazar'tar Martin

Parrokia

Mungia-Bizkaia

Urrutizkiñez be emon zeinkee izena. Deitu zenbaki onetara: 674 11 38.

.....eta.....'tar..... naz  
(1.º ABIZENA) (2n. ABIZENA) (IZENA)

Irailaren 20'an bazkarian maikide izango naz.

# Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoiari, itxaropena oztopoen gainetik jarrita,  
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,  
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,  
batez be, emoneko berba lez daroan  
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.  
Itxasorearen oldarra gelditzen,  
gizonaren neurribako  
alegiña:

**BIZKAIKO**  
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS  
VIZCAINA

**Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.**